

Zu hemen zaude. goiena

DEBAGOIENEN TURISMO ESKAINTZA, INOIZ BAINO OPAROAGO ETA ESKURAGO

Ostatuek aurreikuspen onak dituzte eta eskualdeko herri nagusietan turismo eskaintza zabala izango da, "COVID-19ak baldintzatu gabeko" eskaintzara itzulita / 2



Oñatiko Turismo Bulegoko
Eduarne Urteaga, Aste
Saturako eskaintzaren
berri ematen.

IMANOL SORIANO



"Giro ederra zegoen Oñatiko frontoian; pena dut, kaskar ibili naiz eta"

JOKIN ALTUNA PILOTARIA / 29

Jaurlaritzak ingurumen baimena eman dio Valogreeneri; Bergarako Udalak errekurtsua jarri du / 20

Espainiako Kritikaren Saria jaso du Itziar Ugarte idazle oñatiarrak 'Gu gabe' poema liburuagatik / 33

SINADURAK

 VALEN MONUX / 8	 MIKEL ARROIBIDE / 17
 JOSU ZUGASTI / 13	 AINTZANE OIARTZABAL / 40

ASTE SANTUA

Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:
GOIENA: Apirilaren 29an.
'Puntua': Apirilaren 29an.

Ondo ibili!

2 mó
betaurreko graduatu
99€

+
ukipen-lenteak doan hilaibete baterako
+
premium azterketa bisuala, erretinografia barne
+
gogobetetze-bermea



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

0475 91710

BORDA ARANZAZU
OÑATI

Aste Santuko egunak hartuta dituzte Borda Aranzazun. "Pazko asterako geratzen da egunen bat libre", dio Julen Arabaolazak [aurreko astean galdetu zuen GOIENAK ostatueta]. Eurena dute Sindika hotela ere: "Ostegun eta Ostiral Santu egunetarako dena beteta dugu, talde batzuk ditugu eta; zapaturako badugu logelaren bat libre, baina bai, badaude erreserba batzuk". Itxaropentsu dago Arabaolaza: "Ea lan apur bat egiten dugun; jaiegun hauek beti etortzen dira ondo". Sarritan bezala, eguraldiak ere baldintzatuko du ostalarien lana: "Eguraldi onarekin, mendira-eta etortzen da jendea, eta hori igarri egiten da tabernan eta jatetxean egin zenezakeen lanean. Eguraldi ona egiten badu, ibiliko da mugimendua". Bi urte gogorron ostean, jendeak irteteko gogoa baduela dio Arantzazukoak.



Julen Arabaolaza, Borda Aranzazun. J.A.



Hotel Mondragon, Arrasaten. H.M.

HOTEL MONDRAGON ARRASATE

Hotel Mondragonen gustura daude Aste Santurako erreserbekin: "Okupazioa %20 inguru igo da aurreko urtekoarekiko", dio administrazio arloko buru Narcisa Berlak. 46 logela dituzte hotelean: "Ez dago %100era beteta, baina erdia baino gehiago bai. Eta hilaren 13tik 16ra jende gehiago ibiliko da. %60tik gorako okupazioa izango dugu orduan". Dena dela, jendeak azken unean erreserbatzeko joera duela dio Berlak: "Oraindik espero dugu jende gehiago etortzea. %70-80ko okupazioa posible izan daiteke". Pandemia aurreko egoera oraindik ez dela itzuli dio hoteleko arduradunak: "Jendeak ohiturak aldatu ditu. Uzku dago jendea".

Bisitariak hartzeko prest

Askotariko turismo eskaintza izango da egunotan Debagoiengan, bai kanpotik datozen bisitariarentzat, baina baita bertakoak izan eta etxe ingurukoekin gozatu nahi duen jendearentzat ere; Gipuzkoa osokoarekin, agenda digitalean batu du Aldundiak

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Herri erdiguneetako ondarea -monumentuak eta beste- gidariarekin bisitatzeko aukera izango da, batetik, Oñatin -Aste Santuko egunetan, 13:00etan eta 17:00etan-, Bergaran -Aste Santuan eta Pazko astean, 11:00etan eta 12:30ean- eta Arrasaten -bihar, eguena, 10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gaztelaniaz-.

Gainerakoan, bisitak izango dira Oñatin, Txokolateixan -Aste Santuan, 11:30ean- eta Arrikruztzen -eta Espeleotxiki hilaren 14an, 16an eta 17an, eta helduentzako 18an, 15:00etan-, eta baita Arantzazuko Santutegian ere -hilaren 24ra arte, 10:30ean eta 15:30ean, euskaraz, eta 12:30ean eta 17:00etan, gaztelaniaz-; bisitatzeko moduan izango dira Aizkorri-Arartzeko parketxo eta Gomiztegi baserria ere, eta familiarrentzako orientazio jolasa

egingo dute domekan, 11:00etan, aurrenekoan, eta gaztagintzari buruzko saioa bihar, 11:30ean, bigarrenean -nahi izanez gero, irteera, perkatxetik, 10:30ean-. Euskal pottoka "behatzeko" bisitak ere egingo dituzte Pottokalekun.

Bergaran, berriz, Laboratorium museoak ordutegi zabala izango du opor sasoiari, Olaso Dorrea eta lorategi historikoak ere izango dira bisitatzeko aukeran, eta Dolmenen Ibilbidea da, aurten ere, beste proposamenetako bat, Soraluzeako Karakatetik -Pazko astelehenez, 10:00etan-.

PANDEMIAREN ERAGINA DA JENDEAK EZ DITUELA AZKEN UNERA ARTE PLANAK ZEHAZTEN

Arrasaten, herriko industria ondarea ezagutzeko bisita egingo da Ostiral Santu egunean -10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gaztelaniaz-, eta udaletxean beste bi egunetan, bi zapatueta, hain justu -aurreko ordutegi eta hizkuntzetan-. Horrekin batera, hilaren 17an, 18an eta 24an mendi ibilbideak egingo dituzte, Santagedaaxera, San Kristobal eta San Balerio ermitetara -errogatibak gogoratuz- eta Anporretara -Burdinaren Bidea, hezegunea eta Espainiako gerrako lubakiak-, hurrenez hurren, 09:00etan Herriko Plazan hasita.

Debagoieneko gainerako eskaintzari dagokionez, Elgetan Intxortako ibilbide gidatua egingo dute barikuan -euskaraz-, domekan -elebiduna- eta hilaren 24an -elebiduna-, 10:00etan abiatuta; Leintz Gatzagan, berriz,



Bisita gidatua Oñatiko unibertsitatean, 2020ko uztailean. OIHANA ELORTZA

Aste Santuko egun guztietan egingo dituzte Gatz Museoan bisita gidatuak, 12:00etan -euskaraz- eta 13:00etan -gaztelaniaz-. Debagoieneko eskaintzatik bisita aukeratutakoan, aurrez erreserba egitea gomendatzen da -lekua ziurtatzeko-, programatutako bisitez gain, zenbait kasutan badago aukera aparteko bisitak adostekoa ere.

Jendea, azken orduan Oñatiko Turismo Bulegoko Edurne Urteagaren esanetan, ez da erraza Aste Santuko eskaintzak

izango duen harreraren eta bisitari kopuruaren aurreikuspena egitea [aurreko astean hitz egin zuen GOIENAK harekin]: "Ikusten ari garena da jendea azken unerako ari dela uzten guztia. Orain arteko asteburuetan, behintzat, hori ari da gertatzen".

Bergarako Udaleko Komunikazio arduradun Saioa Rodriguezen arabera, berriz, herrian aurtengo berritasun nagusia da COVID-19ak baldintzatu gabeko eskaintzara itzuli direla: "Esate baterako, jende kopuru

LAMAINO ETXEBERRI LANDETXEA BERGARA

Begarako Lamaino Etxeberri landetxeko Maite Aristegik dio aurtengo Aste Santuan "ondo" lan egingo dutela: "Nahikoa beteta dugu landetxea". Egun onak Aste Santukoak izango dira Bergarako San Martzial auzoko landetxean: "Pazko astea hemen ez da igartzen. Pazko astean langileak-eta, betiko bezeroak, izaten ditugu gurean". Sei logela bikoitz eta bi apartamentu dituzte Lamaino Etxeberrin: "Aspalditxotik ditugu hartuta, egia esanda. Zaragozako kuadrilla bat etorriko da; lehenago ere etorri izandakoak dira. Lau egunerako egin zuten erreserba". Pandemia aurreko garaiarekin alderatuta mugimendua oraindik ez dela normaldu dio Aristegik, nahiz eta badoan hobera: "Asteburuetan-eta, oraindik ere, jende gutxiago dabil lehen baino. Baina badoa normaltzen, bai, badoa".



Maite Aristegi, landetxeko zuzendaria. GOIENA



Pilar Belastegi, Ibarre landetxeko zuzendaria. GOIENA

IBARRE LANDETXEA ANTZUOLA

Aste Santu honetarako jendea "animatu" dela dio Antzuolako Ibarre landetxeko Pilar Belastegik: "Egia da, gero, eguraldiaren arabera, jendeak bertan behera utzi ere bizkor egiten duela. Baina, tira, momentuan ondo, oraindik dena bete gabe dago, baina...". Bisitariak "hiruzpalau egunerako" etortzen direla dio: "Asteazkenean hasten dira etortzen, eta domekara arte edo astelehenera arte". Pazko astean "enpresetako jendea-eta" itzultzen da. Oporraldian, atzeritarrak ere nahikotxo etortzen zaizkie, eta gauza normaltzen hasi da, nahiz eta igartzen duen erreserbak ez direla lehen besteko aurrerapenez egiten.

mugak-eta, lehenago itzuliko dira berriro".

Arrasateko Udalak, azkenik, zera adierazi du prestatutako eskaintzari buruz: "Gure herrian bertan altxor ugari dugu, gure ondarea, natura... eta era jasan-

garrian gozatu dezakegu. Ekin-tza kultural zein artistikoen osagarri da".

Gipuzkoako agenda digitala

Debagoieneko turismo eskaintza eta Gipuzkoako gainerakoa

ere -ehundik gora jardueragenda digital batean batu du Foru Aldundiak. www.gipuzkoaturismoa.eus webgunean dago eskura. Aldundiko arduradunek adierazi dute "Gipuzkoa sustatzeko eta turismo fluxuak

lurren osoan banatzeko" ekimenaren dela, tokiko eragileekin elkarlanean gauzatua. "Gure lurraldean bidaiari izatearen ideia indartu nahi dugu. Benetak altxorak ditugu etxetik gertu, eta une bikaina da horiek

guztiak ezagutzeko, aldi berean, gure turismoa, gure ostalaritza, gure saltoki txikiak eta gure lehen sektorea babestuz, kontsumoaren bitartez", adierazi du Foru Aldundiko Turismo zuzendari Iker Goiriak.

CEBANC:
LANBIDE HEZIKETA
FORMACIÓN PROFESIONAL

eman forma zure etorkizunari

ate irekiak

ERDI MAILAKO ZIKLOAK:

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA:

Maiatzak 14 (larunbata), 11.00.

SISTEMA MIKROINFORMATIKOA ETA SAREAK:

Maiatzak 14 (larunbata), 11.00.

SUKALDARITZA ETA GASTRONOMIA:

Maiatzak 12 (osteguna), 18.30.

OKINTZA ETA GOZOGINTZA:

Maiatzak 12 (osteguna), 18.30.

GOI MAILAKO ZIKLOAK:

NAZIOARTEKO MERKATARITZA:

Apirilak 30 (larunbata), 11.00.

MARKETING ETA PUBLIZITATEA:

Apirilak 30 (larunbata), 11.00.

SUKALDARITZA ZUZENDARITZA:

Maiatzak 5 (osteguna), 18.30.

TURISMO OSTATUEN KUDEAKETA:

Maiatzak 5 (osteguna), 18.30.

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA:

INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK:

Maiatzak 21 (larunbata), 11.00.

ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK:

Maiatzak 21 (larunbata), 11.00.

SUKALDARITZA ETA JATETXE ARLOA:

Maiatzak 21 (larunbata), 11.00.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Berio Pasealekua, 50, 20018 Donostia, Gipuzkoa / 943 31 69 00 / www.cebanc.com



Proiektuaren babesleak, egubakoitzean egindako aurkezpenean. MARKEL ARRAYAGO

Energia berdera batzeko aukera zabalduko dute

Leintz Bailarako Ekiola Kooperatibako bazkide izateko aurretiko izen-ematea abiatuko dute maiatzean, eta herritarrei zuzendutako hitzaldiak ere egingo dira. Hala iragarri zuten egubakoitzean, proiektua gauzatzeko estrategikoa izango den inguruan

Uxue Igarza Loiola ARRASTE

Debagoienean kontsumitzen den energiaren %95 baino gehiago kanpotik dator eta gehiena jatorri ez-berriztagarrietatik eratorria dela diote ikerketek. Hori horrela, trantsizio energetikoari ekiteko Leintz Bailarako Kooperatiba aurkeztu zuten urrian.

Kooperatibaren helburua bazkideak instalazio fotovoltaikoen jabe izatea da, eta kontsumo elektriko osoaren baliokidea den energia-bolumena sortzea; beste modu batera esanda, kanpoko energia iturriekiko mendekotasuna murriztea eta energia berdearen alde egitea.

Horretarako, Garaia Berrikuntza Guneko lurretan plaka fotovoltaikoen eguzki-parke bat jarriko dute. Aurreikuspenen arabera, 500 bat familiari eman ahalko die zerbitzua.

Beste urrats bat

Kooperatibaren bilakaeran beste urrats bat egingo dute laster. Maiatzean herritarrentzako hitzaldiak egingo dituzte. Asmoa da Leintz Bailarako Ekiola Kooperatibaren xehetasun guztiak azaltzea eta egon daitezkeen

zalantzak aurrez aurre argitzea. Gainera, aukera egongo da aurretiko izen-ematea egiteko ere; hots, bertan izena ematen duten herritarrek lehentasuna izango dute bazkideztza prozesua abiatzen denean.

Maiatzaren 3an Arrasaten egingo da lehenengoa, 18:30ean, Amaia Udal Antzokian. Aretxabaletaren txanda maiatzaren 10ean izango da, 18:30ean, Arkupen. Eskoriatzan, berriz, maiatzaren 12an egingo da, 18:30ean, Antzokian. Bukatzeko, maiatzaren 16an, Leintz Gatzagaren txanda izango da, 18:30ean, kultura etxean.

"Mugarri" den proiektua

Euskal Energiaren Erakundeko ordezkari Natalia Diaz Arcayak azaldu duenez, Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba "mugarri garrantzitsua" da: "Kooperatibaren eredu oinarri hartuta, inguruko biztanleei energia garbia eta kontsumitzeko hurbilekoa sortzeko aukera ematen du EEEk eta Krean-ek sortutako proiektu honek". Ildo berean, Ekiolako zuzendari tekniko Hodei Arzak ere itxaropentsu agertu da.

Babes zabala duen proiektua



MARIA UBARRETXENA
ARRASATEKO ALKATEA

"Proiektu sendoa da, ordezkari zabalarekin"


"Ekiola proiektu sendoa da, ordezkari zabalarekin – Leintz bailarako udal guztiak daude bertan, eta baita Jaurilaritza, Debagoiena 2030 eta Fagor Taldea ere—. Elkarlanean egindako proiektua da, energia berriztagarria, iraunkorra eta bertakoa sortuko duena. Herritar guztiak animatzen ditut hitzaldietara joan eta asmoa ezagutzera. Benetan uste dut horrelako proiektu batek aurrera egiteko aukerak izatekotan, gure bailaran dituela. Gure apustua irmoa da".



ARITZ OTXANDIANO
FAGOR TALDEA

"Erronka konplexu honi erantzuteko osagaiak ditu"

"Historikoki konpromiso handia izan du Fagor Taldeak komunitatearekin, eta horregatik nahi izan du Ekiolarekin bat egin. Agente aktibo izan nahi dugu gure kooperatibak kokatuta dauden lurren trantsizioan. Ekiola proiektu estrategikoa da Leintz bailararen trantsizio energetikoa sustatzeko eta baita energia sorkuntzak demokratizatzeko eta komunitate erresilienteagoak eraikitzeke ere. Erronka konplexuei modu eraginkorrean erantzuteko osagai guztiak ditu".



ELENA HERRARTE
DEBAGOIENA 2030 SAREA

"Erabakitzeke aukerarik ezak ahuldu egiten gaitu"

"Trantsizio energetikoa lehentasunezko erronka da. Alde batetik, badakigulako klima larrialdiari aurre egiteko premiazkoa dela, eta, bestetik, azken asteotan, herritarrok ere ikusi dugulako energia zein garrantzitsua den. Egun kontsumitzen dugun energiaren inguruko erabakiak gure komunitatetik eta lurraldetik oso urrun hartzen dira, eta horrek herri bezala ahuldu egiten gaitu. Eskualdeak erabaki du etorkizuneko eredu energetikoak zein izan behar duen: berdea eta tokikoa".



OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

DATA: 2022ko apirilaren 30a

ORDUA: 10:30ean, bigarren delaldian (10:00etan, lehen delaldian)

LEKUA: Kulturateko areto nagusian, Arrasaten

GAI-ZERRENDA

1. Bileraren akta onartzeko bi bazkide hautatzea
2. 2021eko kudeaketa-bostena
3. 2021eko urteko kontuak irakurtzea eta onartzea
4. 2021eko bosten aktuariala
5. Auditsarekin egindako hitzarmena onartzea
6. Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua 2022rako
7. Urteko kuotak eta diru-sarrerak zehaztea
8. Prestazio ekonomikoaren definizioa eta prestazioengatiko gehieneko zenbatekoak zehaztea
9. Gobernu Batzordeko karguak berritzea
10. Galderak eta eskaerak

San Felipe Elkarguntzako Elkarte Erregimen Berezia eta aseguru-jarduerarik egiten ez duen Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) ikuspegi lasaigarria eskaintzen du, 2021eko kontuen formulazioen, auditoretzen eta eskatutako hornidura teknikoen arabera. Informazio hori azaltzeko eta, hala badagokio, onartzeko, San Felipeko bazkide titularrei dei egiten diegu Ohiko Batzar Nagusirako. Batzar hori goian adierazitako egunean, orduan eta lekuan egingo da.

Deialdi hau, gai-zerrenda eta ordezkari zabalarekin inprimakia (familia-talde bereko titulardeari edo onuradunari edo beste familia-talde bereko bazkide titularri) gure webgunean daude eskuragarri: www.sanfelipe.eus; baita gure egoitzan eta bulegoan ere (Alfonso X. Jakintsua 3 - Grupo San Juan).

Gobernu Batzordea

Oharra: noritasun agria edo bazkidearen barfela eskatuko da batzarrera sartzeko.

Kasuek gora, neurriak malgutzear direla

Azken astean bailarako positiboek gora egin dute, eta baita EAEko ospitaleratzeek ere. Halere, neurriei lotuta, maskararen erabilera malgutzear da; datorren astetik aurrera, espazio itxietan –salbuespenak kenduta– maskara ez da nahitaezkoa izango

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Osakidetzak emandako datuen arabera, gora egin dute kutsatzeek azken astean. Zehazki, 82 positibo atzeman dira bailaran –aurreko astean baino hamabi gehiago–; gehienak, Bergara eta Arrasaten. Horrenbestez, intzidentzia-tasak ere puztu egin dira. Debagoieneko tasari dagokionez, bi puntu egin ditu gora: 237,49koa da.

Ospitaleratzeek, gora

Euskal Autonomia Erkidegoko erietxeetan, bi egunetan, 65 lagun gehiago ospitaleratu dituzte. Zehatzago esanda, astelehenetik egubakoitzera bitartean, ospi-

talerratu kopurua 130 herritarren bueltan ibili zen; zapatuan, baina, 174 ziren, eta domekan, aldiz, 203. Eskualdera etorrita, Debagoieneko Ospitaleko zuzendaritzak jakinarazi du hiru lagun daudela ingresatuta, eta igoera arina sumatu dutela astean.

Zainketa Intentsiboetako ospitaleratuei dagokienez, datuak hobera egin du EAEEn. Martxo-ko azken astetik apirilaren lehenengora, hamar lagun gutxiago daude egoera larrian.

Maskararen erabilera

Neurri murriztaileen alorrean beste urrats bat egingo dela ohartarazi du Carolina Dariasek,

Espaniako Osasun ministroak. Barrualdeetan maskara erabiltzeko neurria indargabetuko du Ministroen Kontseiluak hilaren 19an. Halere, hiru eremutan nahitaezkoa izaten jarraituko du maskarak: garraio publikoan, zentro soziosanitarioetan eta osasun zentroetan.

Estatuko Buletin Ofizialean argitaratzen den unean sartuko da indarrean arau berria.

Gainerako herrialdeak

Espanian, Frantzia, Portugalen, Italian eta Belgikan, 12 urtetik gorakoek COVID Ziurtagiri Digitala izatea nahitaezkoa da; baina, horren orde, gehienez

ere 72 ordu aurretik egindako PCR proba negatiboak edo 24 ordu aurretik egindako antigeno test negatiboak ere balio dute. Herbehereetan, Alemanian eta Erresuma Batuan malguagoak

dira neurriak. Maskaren erabilerari lotuta, bakoitzak bere irizpideak ditu. Gobernuen webgune ofizialetan herrialde bakoitzaren oinarritzko arauak kontsulta daitezke.

Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Bergara	32	24	5.529	%37,91	378
Arrasate	23	19	8.689	%39,74	193
Oñati	9	11	4.604	%40,29	175
Aretxabaleta	7	8	2.631	%37,01	210
Elgeta	6	0	311	%27,26	535
Eskoriatza	3	5	1576	%38,15	193
Antzuola	2	2	836	%40,17	186
Aramaio	0	1	562	%38,60	66
Gatzaga	0	0	73	%34,60	0
DEBAGOIENA	82	70	24.811	%38,76	237

OHARRA: ASTELEHENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

DEBAGOIENENKO PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Adinekoendako egoitzak, zaintza eredu berrirantz

Gipuzkoako Foru Aldundiak 20 milioi euro bideratuko ditu lurraldeko sei egoitzatan egokitzapen lanak hasteko; horien artean dira Arrasateko Iturbide eta Oñatiko San Martin egoitzak. Proiektu arkitektonikoa egiteko lehen bisita jaso dute bi egoitzetan

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE Adinekoen arreta eta zaintza eredu berritu beharra dagoela eta urteak dira gaia mahai gainean dela. Eredu berriak zein izan beharko lukeen definituta dago. Orain, egoitzak eta baliabideak egokitu behar dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du bi urteko epean 20 milioi euro bideratuko dituela helburu horretara. Asmoa da, denborarekin, eredu lurralde osoko egoitzetara zabaltzea, baina hasiera faserako sei egoitza aukeratu dituzte, eta tartean dira Arrasateko Iturbide eta Oñatiko San Martin egoitzak. Inbertsioa 2022an eta 2023an gauzatuko dela adierazi dute Markel Olano diputatu nagusiak eta Gizarte Politikako foru diputatu Maite Peñak.

Egoitza eredu berria

Egoiliarren arretan eta ongizatean eragitea helburu duen eredu berriak arreta pertsonalizatuagoa eta bizikidetz-unitate txikiagoak lortu gura ditu. "Adinekoak eduki behar du sententzia etxean dagoela, eta ez ospitale batean", azaldu du Olanok. Hori horrela izateko beste egoitza eredu bat behar da, eta egokitzapenak egin beharko dira. "Egoitzak hamabost pertsona inguruko bizikidetz-unitateetan oinarritutako zentroak izango dira, banakako gelek eta bitak jasotzeko pribatutasun handiagoa emango duten espazioekin". Matia Fundazioak Oñartzunen duen Petra Lekuona egoitza aurkeztu du adibide gisa Olanok. Eredu berriak zer nolako aldaketa arkitektonikoak eskatzen dituen galdetuta, diputatu nagusiak honako hau erantzun du: "Gaur egungo zentroetan 50 bat pertsona egon daitezke solairuko, eta horrek ospitale baten modura egituratzen du egoitza. Eredu berriarekin, pribatutasunean irabazi



Arrasateko Iturbide egoitzako sarrera. GOIENA

ITURBIDE ETA SAN MARTIN EGOITZETAN JASO DUTE ADITU TALDEAREN LEHENENGO BISITA

behar dugu; bizikidetz-unitateak txikiagoak izango dira, espazio komunek desagertze aldera egingo dute –pasilloek ere bai–, eta bakarkako gelak izango dira. Helburua da egoiliarren sententzia etxean daudela. Gaur egun, hamar adinekotik zortzik etxean bizitzen jarraitu nahi dute".

Esfortzu ekonomiko eta sormen handia eskatuko du egokitzapenak. "Egoitza bakoitzaren ezagueriak aztertu, eta obrak gauzatzeko proiektu individualizatuak idatzi beharko dira". Lan guztiak 2023a amaitu baino lehen egitea aurreikusten dute foru arduradunek.

Lehen bisita egoitzetara

Arrasateko Iturbide eta Oñatiko San Martin egoitzetan jaso dute dagoeneko obrak gauzatzeko azterlanak egiten ari den lan-taldearen lehen bisita. "Beste

bisita bat ere egingo dutela esan digute", azaldu du San Martin egoitzako zuzendari Elena Bezeibarrek. Begi onez ikusten du egitasmoa. "Hobetzeko izango da. Egoitza eredu berriak bakarkako gelak aurreikusten ditu, bizikidetz-unitate txikiagoak... Zaintza lanak hobeto egiteko aukera emango digu horrek". Egokitzapen arkitektonikoen lanak egitea ekarriko duela dio. "Gure egoitza nahiko zaharra da, eta lanak egiten badira hobetzeko izango da beti. Bai, pozik gaude!". Ohe kopuruan aldaketarik aurreikusten den galdetuta, ez duela uste dio. "Ez dut uste, gure egoitza nahiko handia da eta. Espazioa bada-goelakoan gaude, baina ez dakigu. Ez digute, oraingoz, proiekturik aurkeztu. Planoak begiratzaren ari dira. Hasiera-hasierako fasean gaude".

Antzerako iritzia du Arrasateko Iturbide egoitzako zuzendari Olatz Etxabek: "Eredu berria interesgarria da. Pertsonengan zentratutako arreta aurreikusten du, eta hori betetzeko bakarkako gelak eta antzerakoak behar dira. Zerbitzu hobea eskaintzeko aukera izango dugu".

Martxan da 2021eko errenta eta ondarea aitortzeko kanpaina


Iaz, 83.100 aitorten egin ziren euskaraz; 2023an 100.000tik gora izatea da Ogasun Sailaren helburua

L.Z.L. BERGARA

Gipuzkoako Foru Ogasunetik jakinarazi dute 256.446 proposamen prestatu direla aurten; 163.504 dira itzultzekoak eta 92.942 ordaintzekoak. Zergadunek jakin dezakete dagoeneko proposamenik jasoko duten postaz, eta, horrela bada, edukia ere ikusgai daukate. Horrekin batera, eta proposamenarekin ados egonez gero, posible da onartzea.

Emitza itzultzekoa bada, proposamena onartzen denetik hasita hiru laneguneko epean ordainduko du Foru Ogasunak. Emission ordaintzekoa bada, berriz, bi modutara ordaindu daiteke: bi zatitan –%60 uztailearen leian eta %40 azaroaren 10ean– edo dena batera uztailearen leian.

Hain zuzen, ekainaren 30era arte dago errenta aitortpena egiteko. Errenta mekanizatuaren hitzordua eskatzeko epea, berriz,



Bergarako bulegoa, iaz. J. INUNTIAGA

ekainaren 8an amaituko dela jakinarazi dute Ogasunetik.

Errenta euskaraz

Aitortpena egiteko hiru modu daude eta guztietan erabil daitezke euskara. Iaz, 83.100 aitorten inguru egin ziren euskaraz.

Autobusak Herri Urrats festara joan-etorria egiteko

Bi urtez egoera zailean egon ondoren, maiatzaren 8an itzuliko da Herri Urrats jaia Senpereko lakura. Hori horrela, Debagoieneko hainbat euskara elkartek joan-etorria egiteko autobusa antolatuko ohitura berreskuratu dute. Txartelak AED, Loramendi eta Jardun elkarteetan eskura daitezke. Prezioa da 10 euro bazkideenda-

ko eta 12 euro gainerakoendako. Maiatzaren 5a izango da txartelak erosteko azken eguna. Ordu-tegiak eta geltokiak honako hauek dira: Aretxabaletan 08:45ean Azben, Arrasaten 09:00etan Zalduspen eta Bergaran 09:15ean Ibargarai autobus geltokian. Itzulera ordua, 19:00etan, Senperetik. "Astindu ditzagun nagikeriak eta itzuli gaitezen Senpereko lakura. Eta ez bazara inoiz egon, ez galdu ezagutzeko aukera. Itzuliko zara!", adierazi dute euskara elkarteetatik.

Domekako Aberri Eguna: EAJK Bilbon eta Bilduk Iruñean

Bilboko Plaza Barrian egin dute hitzordua jeltzaleek. Ohiko ospakizun tokia zen azken urteetan eta "jai formatu tradizionala" berreskuratu dutela adierazi dute. 2020ko Aberri Eguna etxean konfinaturik ospatu zuten jeltzaleek eta 2021ean ekitaldi politikoa egin zuten Euskalduna jauregian, baina edukiera mugatuarekin. 2022ko

Aberri Eguna "kalean, militanteekin eta jarraitzaileekin" aldarrikatu dutela esan dute.

Bilduk deituriko Aberri Eguna Iruñean izango da. Ekitaldi nagusia 12:00etan Golem zinematik abiatuko den manifestazioarekin hasiko da. Jarraian, ekitaldi politikoa egingo dute Sarasate pasealekuan. Bilduko militanteek Amairuko gaztelua hartua izan zeneko 500. urteurrena ekarriko dute gogora. "500 urteko zapalkuntza eta ukazio" egoera salatuko dute.



Telebista



Profesionalekin

Euskaraz

Komunikazio Campusa 2022

Sare sozialak



Podcastak

Fotokazetaritza

Kamera aurrekoak



Noiz: 1. txanda, uztailaren 4tik 8ra. 2. txanda, uztailaren 11tik 15era. **Taldeak:** gehienez ere, 15 lagun.

Non: Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan, eta Goienan, Arrasaten.

Ordutegia: 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedenaldiarekin).

Norendako: DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak. **Izen ematea:** Martxoaren 18tik ekainaren 17ra. **Prezioa:** 125 euro.

IZEN EMATEA ZABALIK: www.labur.eus/komunikaziocampusa



Master-eskolak adituen eskutik:

Alex Padilla Sare sozialetan aditua. **Ainhoa Vitoria** Komunikatzailea eta Gazteako irrati esataria.

Xabier Urzelai Goienako kazetaritza-argazkigintza aditua.

Informazio gehiago:    600 02 27 20  komunikaziocampusa@mondragon.edu

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



Anima zaitetz eta eman izena!



ZABALIK

VALEN MOÑUX

'Kontrola + Z'

Informatika asko erabiltzen dut, informatika gustatzen zait, informatika maite dut. Nire belaunaldikoek badakigu zergatik deitzen zaion *disco gogorra* ordenagailu barruan dagoen dispositiboari. Erabili nuen lehen ordenagailuaren diskoak megabyte bat pasatzeko edukiera zuen –gure edozein telefonotako argazki pare batek hartzen duenaren parekoa–, 20 zentimetroko zabalera zuen eta guztiz *malgua* zen. Disko bat genuen programa bakoitzeko eta kontua asko hobetu zen diskete-gailu bikoitzeko ordenagailuak agertu zirenean.

Sekula ez nuen ikasi makinaz idazten, ordura arte eskuz idazten nuen, eta, kasurik onenean, norbaiti testua mekanografiatzeko eskatzen nion. Nire informatikako

MILISEGUNDO BATEAN ETA EGINDAKO ZUZENKETAREN ARRASTORIK UTZI GABE

maitasuna hasi zen letra berdeak pantaila beltzean agertzen ikustean *WordPerfect* zoragarriarekin, eta gero, aurkezpena amaitzeko, orratzeko inprimagailua zaratatsuarekin disfrutatu.

Hori izan zen nire lehen maitasuna, ia nerabe, baina informatika maitearekin nire ezkontza banaezina marrazki programekin hasi zen, sagu magikoa erabiliz. "Diseinatu eraikin oso bat bi hatzekin bakarrik", esaten zuen orduan CAD programa baten publizitateak.

Baina ordenagailutik zerbait gustatzen bazait, teklatuaren beheko izkinan ezkerreko eskuarekin dagoen letra-konbinazio erabat mirengarria da: *Kontrola + Z*. Konbinazio simple hau informatikaren teknika loriatsuaren magia intrintsekoa da. *Kontrola + Z* (edo *desegin*) milisegundo batean eta egindako zuzenketaren arrastorik utzi gabe. Ez dago tatxoirik, *Tippex* usain txarreko mantzarik edo gaizki egindakoaren inongo arrastorik.

Nori ez litzaioke gustatuko bizitzan *Kontrola + Z* erabiltzea? Norberaren akatsak azkar zuzendu, atzera egin eta berriro hasi ikaragarri aise; zuzentzaile automatiko baten laguntzarekin, gainera. Diote informatikak eragin handia duela gure bizimoduan. Handiagoa izanez gero, hobeto!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Gorrotu dut zuen euskara

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gorrotu dut gure hizkuntza ontzien jolas bihurtua ikustea: B-1, B-2, C-1... Lehengo EGA beste. Gauza bat baita B-2 eskuratzeko eta beste bat euskaraz ongi jakitea. Eta bien artean, nik ez dut zalantzarik zein axola zaidan gehien.

Lan elkarrizketatu bati buruz "halakok ez dauka EGArrik" entzun eta "baina ba al daki euskaraz?" galdera erantzuna atera izan zait beti erreflexuz. Erretxina izan! Ezagutu ditudan euskal hiztun jator eta naturalenek

EGArrik ez zutelako izango da, noski.

Hala iritsi zait funtzionario baten e-mail adeitsua. Ukitutik hondoratura. Halako dekreturen aginduz, istripua: batxilergoko lehen mailara arte beti D ereduan euskaraz ikasi eta, bidean, euskaraz bizi izan den ikasle bati, euskal unibertsitate publikoan magisteritza ikasketak egitea eragotziko diona. Bere bekatua? Batxilergoko bigarren urtea atzerrian egitea, eta ez Euskal Erdian. Ez daukazu B-2rik, "baby"! Bye, bye!

Jaurlaritza eta UPV-EHuren B-2 jolasak ukitu eta hondoratu ditu bere aukerak. Berdin da benetan euskara

dakien edo ez, inork ez dio hori galdetu; hori frogatzeko modu bakarra ontzien jolasa da. Inork ez dio galdetu euskara maite duen, euskaraz bizi den edo bizi nahi duen. Nori axola dio horrek?

Dekretuzaleon mundutxoan, ontzien jolasak axola du gehien. Hori da ongiaren eta gaizkiaren arteko marra; C-1 edo C-2 dutenen eta ez dugunon arteko marra gorria. Horrexegatik gorrotu dut zuen euskara. Hizkuntza den mundu eta jolastoki zabal hori ontzien joko soilera mugatzeagatik. Tresna eta helburua nahasteagatik. Eskumuinak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Baikorra naiz; enpresek badituzte eskariak eta lana"

JABIER LARRAÑAGA EKONOMIA SUSTAPENENKO DIPUTATUA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Mundu mailako faktoreek eragina dute lurraldeko ekonomian. Bestetik, Aste Santua bertan dugu. Horien inguruan jardun du Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurueneko diputatuak. **Ez dira sasoi onenak ekonomiarendako...**

Zurrumbilo batean murgilduta gaude eta enpresendako une zailak dira, batez ere, egunerokoa kudeatzeko. Baina balioan jarri nahi dut enpresek, une honetan, lana dutela, eskariak dituztela, eta horrek aukerak ematen die. Perspektibaz begiratuta, enpresek lana badute eta ezegonkortasun egoera asko luzatzen ez bada, baikorra naiz.

Lurraldeko hamar enpresatik sei ari da sufritzen Ukrainako gerraren eragina.

Bi tipotako erasanak ditugu: batetik, energiaren eta lehengaien garestitzeak dakar irabaziak txikiagoak izatea; bestetik, egunerokoa



Jabier Larrañaga, Goiena telebistako platoon, asteen. ENEKO AZKARATE LASPIUR

kudeatzeko, buruhauste asko sortzen dizkie lehengaien gabeziak enpresei.

Zerbitzu bat jarri duzue martxan Gipuzkoako enpresek Errusiarekin eta Ukrainarekin duten

eragiketekin zerikusia duen guztiari buruzko kontsultei erantzuteko. Zertan gauzatzen da?

Gerrak ekarri du muga asko jarri izana indarrean. Ondorioz, normei dagokienez,

gauzak konplikatu egin dira. Horregatik, aholkularitza zerbitzua jarri dugu.

Zenbateko mendekotasuna dauka Gipuzkoak Errusia edo Ukrainarekiko?

%1era ez da heltzen lurraldeko enpresek bi herrialde horiekiko duten harreman komertziala. Batzuentzako pisu handia daukan arren. Edozelan ere, batez ere, inportatzen diren lehengaiekiko mendekotasuna handiagoa da, bai lehen sektoreaz eta baita burdinez badihardugu.

Lacor-Ibili Taldea eta Fagor Electronica saritu ditu Gipuzkoako Bazkondeak. Merezitako aitortza?

Bai. Egun dugun bizi kalitatea lortu dugu, hein batean, aurreko belaunaldien lanagatik. Etorkizunean, gure ardura da ondorengoei ere bizi-kalitate oneko gizartea uztea, eta, horretarako, enpresa indartsuak behar ditugu.

Bi enpresok jakin dute pandemia aukera moduan hartzen.

Bai. Ondo kudeatuta dauden eta lidergo indartsua duten enpresendako, askotan, aukera dira une zailak ere. Gure enpresek badute altxor bat. Berrinbertsiorako kultura dute. Produktzioan, ikerketan, garapenean... asko inbertitzen

dute eta hori oso inportantea da ekonomiarendako.

Zeintzuk dira Gipuzkoako enpresen erronkarik nagusiak?

Epe motzekoak lotuta daude energiaren prezioei. Eta egoera horri aurre egiteko hartu ditugu neurriak, fiskalak eta bestelakoak. Epe ertain eta luzera, esaterako, enpresen kapitalaren jabegoa edo erabakiguneak bertan egotea. Lantegiak han eta hemen izan ditzakegu, baina erabakiguneak hemen.

Baserritarrak, haragi eta esne ekoizleak, ikusi ditugu larri. Zein da egoera?

Egiturazko arazoak dituztenei arazoak areagotu zaizkie bizi dugun moduko koiuntura negatiboetan. Hortik harago, hausnarketa behar dugu: kalitatezko produktuak behar baditugu, lehen sektorea beharrezkoa dela iruditzen bazaigu, horren aldeko apustu egin behar dugu, erakundeek eta kontsumitzaileok.

Aste Santua ate joka dugu.

Zeintzuk dira Gipuzkoaren erakargarritasunak?

Kostaldekoko osagai erakargarriez gain, barruko eskualdeetan ere baditugu aktiboak, naturarekin, artearekin edota kulturarekin lotuak, oso distantzia txikira. Horiek sustatzen ditugu turismo agentziekin.

ITURRI ONETIK

Bilgune Feministaren 20 urteak Oñatin

Euskal Herriko Bilgune Feministak 20 urte betetzen ditu aurten. Hori ospatzeko, "herrietan, plazetan, txokoetan eta gaztetxeetan" batuko direla diote. Eta, ospakizuna borobiltzeko, Topagune Feminista egingo dute Oñatin, ekainaren 11n eta 12an. Aurreratu dute "mahai inguruak, tailerrak, kontzertuak, kalejira, elikadura burujabetza, disko jartzaileak, kale animazioa, lo lekuak, hitzaldiak, herri bazkaria, festa, ekitaldiak eta azoka" egongo direla, besteak beste, bi egun horietan.

ALBISTE IZAN ZEN



2013-04-12

Atez atekoaren aurka Bergarako kaleetan

Manifestazio jendetsua -4.000 lagun antolatzaileen esanetan eta 1.500 udaltzainen arabera- egin zen Bergarako kaleetan atez atekoaren aurka eta bosgarren edukiontzia alde. Bergara Garbiak deitu zuen manifestazioa eta bertara batu ziren inguruko herrietako beste herri plataforma batzuk. Hiri hondakinen kudeaketan "Bilduren inposizioa" eta batutako sinadurak aintzat ez hartzea salatu zuten deitzaileek.

HAU BE BADOGU!

Euskaldunok bagarela nor Twitterren!

Euskarazko txioen gainean jardun du Umap-ek asteen: *@umapEU*: "Gutxienez 70.000 euskaldun gaude Twitterren; 15.000 aktiboak; guzian artean euskarazko 6.000-7.000 txio botatzen ditugu egunero, 200.000 hilero... Euskarazko 2,5 milioi txio urtero!".

@martin_rezola: "Asko dira gaztelaniaz txiokatzen duten erreferentziak unibertsitate-irakasle, kazetari, idazle, politikari abertzale, euskaltzain... euskaldunak. Gehiegi".

@TxoPalaxxx001: "Beti.. euskaldunoi marka goregi jartzea da, ez legoke gaizki gehienetan izango balitz".

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Inklusioa eta ekintzailtza sustatzea ditu helburu Aretxabaletan kokatzen den Gu Haziak Gara elkarteak. **Gu Haziak Gara bazterkeria egoera arriskuan egon daitezkeen pertsonen gizarteratzera eta txertatze laboralera bideratutako elkarte da. Zein testuingurutan sortu zen? Zergatik?**

Hiru etorkin elkartu ginen, Peruko bat, marokoar bat eta ni, mexikarra. 2011n heldu ginen hirurok eta sentitu genuen gu etorkinak ginela. Bereizketa sentimendu hartatik zerbait egiteko beharra sortu zitzaigun. Lehenengo, aldizkari bat atera genuen. Ekintza hartan, etorkinen kolektiboa ezagutzen joan ginen eta konturatu ginen kanpotarrok behar asko ditugula; ez bakarrik sozialak, baita ere oinarritzko beharrak asetzeko. 2013an, etxeko garbiketa formakuntza bat egin genuen, oso esperientzia ona izan zen eta erabaki genuen elkarte sortzea. Orduan hasi ginen etorkinekin ez ezik, bazterkeria egoeran egon daitezkeen pertsonekin lan egiten. Izan ere, langabeziak batu eta bereizten gaitu. **Bazterkeria egoera arriskuan egon daitezkeen pertsonak profil askotarikoak dira. Zuen kasuan, kolektibo jakin batekin lan egiten duzue?**

Bazterkeria egoera arriskuan egon daitezkeen pertsonen profila oso zabala da, eta horren erakusle da gure elkarte. Esaterako, badaude indarkeria jasan zuten emakumeak, kanpotarrok, langabeak eta oso egoera ekonomiko estuan daudenak, paperik gabeko emakumeak, adikzio egoera batetik datorren jendea... Egia da herrian, seguru asko, ezagutzen gaituztela etorkinekin lan egiten dugulako, baina une honetan, nahiko zabala da gure kolektiboa.

Zein behar dago Aretxabaletan kolektibo horiekin lan egiteko? Behar nagusia da bizi duten bakardadeari erantzuna ematea. Pertsona orok dugu gure bizitzako momenturen

"Bazterkeria egoera arriskuan egon daitezkeen pertsonen profila oso zabala da"

PALOMA MARTINEZ GU HAZIAK GARA ELKARTEKO KIDEA

Bidelaguntzaren eta formakuntzaren bitartez, bazterkeria egoera egon daitezkeen pertsonen gizarteratzea ahalbidetzeko sortutako elkarte da Gu Haziak Gara



Paloma Martinez, Aretxabaletan. GOIENA

batean baztertuak izateko aukera. Depresioagatik, adikzioengatik, harreman toxiko batetik irten garelako, langabezian denbora luzea egon garelako... Halako egoeretatik igarotzen

garenean, bakarrik gelditzen gara esperientzia horrekin guztiarekin. Elkartean ikusten duguna da horrelako egoeretatik ateratzen diren pertsonen laguntasuna falta zaiela. Formakuntza,

ikastaroak... izango dituzten leku bat edo laguntasun bat izango duten leku bat.

Zeintzuk dira dituzten oztopo edo zailtasun nagusiak?

Une honetan, baditugu hiru emakume indarkeria jasan dutenak, eta euren oztopo nagusia da etxetik irteteko beldurra gainditzea. Hori oso gogorra da, eta oso ikusezina. Beste zailtasun bat da paperen kontua; izan ere, egoera irregularrean dauden pertsonen oso zail dute arlo askotan. Beste oztopo bat hizkuntza bera da, eta, zer esanik ez, oinarritzko beharrak aseta ez izatea. Badago Aretxabaletan bertan lan finkorik ez duen jendea, eta oso larri ibiltzen dira egunean zehar hiru jatordu egin ahal izateko. Aipatuko nukeen azken zailtasuna formakuntza bera da.

Lanpostuak falta dira?

Bai. Nik uste dut baietz, baina esango nuke lanpostu egokituak falta direla. Bakoitzak gure gaitasunak ditugu, gure erritmoak, eta horrekin gure ekarpena egin dezakegu. Bai produkzio bat ateratzeko orduan, bai eta gizartean bertan ere. **Elkar ezagutzeko eremuak falta dira?**

Bai, erabat. Gure elkarte oso proposa da gure horiek bultzatzeko. Baditugu joskintza ikastaroak, estanzioak, fototransferra, muralismoa.. eta horietan parte hartzen dugu bai

kanpotarrok eta baita bertakoek ere. Gure bizitza osorik kontatu gabe elkar ezagutzen dugu, ekintza baten bidez eta alderdi ludikotik. **Gu Haziak Gara elkarteak baditu hainbat proiektu eta horietako bat da D2030ek lagundutako Haziberriak proiektua. Zertan datza?**

Elkarteari egitura sendoa ematea da asmoa, eta hori gura dugu hiru zutaberen gainean eraiki: lehenengoa da soziala, eta hor eskaintzen ditugu tailerrak, hizkuntza errefortzua...; bigarrena da formakuntzarena, eta arlo honetan aurrerapauso handiak eman ditugu Bastida akademiarekin batera. Hain zuzen ere, Bastidarekin, joskintzaren gaineko formakuntza eskaintzen dugu, homologatuta dagoena. Hirugarren zutabea litzateke enpresarena eta finantzaketarena. Hain zuzen ere, hori da D2030ekin eta Saiolanek gidatuta lantzen diharduguna.

Zein garrantzi du, gizarteratzera bideratutako elkarte moduan, eskualdeko beste enpresa, instituzio eta formakuntzara bideratutako ikastetxe batzuekin lankidetzan aritzea?

Ezinbestekoa da. Elkarte bera ez litzateke existituko sarearen testuinguru hori barik. Mexikotik etorri nintzenez ikusi nuen hemen elkartzeko erraztasuna badagoela, sareak sortzeko eta komunitatean lan egiteko. Eskertu egin behar dut Debagoiena 2030, haien laguntzari esker gure sarea indartu egin baita; indartu eta handitu.

"PERTSONA OROK DUGU GURE BIZITZAKO UNEREN BATEAN BAZTERTUAK IZATEKO AUKERA"

"LANPOSTUAK FALTA DIRA, ETA, BEREZIKI, EGOKITUTAKO LANPOSTUAK DIRA FALTA DIRENAK"

Noiz entzungo dute pazienteen ahotsa?

TXEMA KORTABARRIA

AITA MENNI OSPITALEKO ENPRESA
BATZORDEKO KIDEA, NSA1 UNITATEAN
DAUDENEN IZENEAN
ARRASATE

Txema Kortabarría naiz, Aita Menniko enpresa batzordeko kidea. Aita Menniko NSA1-eko pazienteen gutun bat heldu zaigu batzordera, eta komunikabide honetan argitaratzeko eskatu digute. Hona hemen gutuna:

"Gerente hori: NSA1-eko erabiltzailea naiz. Erabateko etika falta daukazuela esan nahi dizuet. Egin den greba honetan ez dituzue batera baloratu pazienteen ondo-ondoan lan egiten duten langileak. Eta pazienteak ere ez dituzue baloratu. Nahiago nuke mundu guztia ospitaletik botatzea, greba mugagabea guztientzat: pazienteak, laguntzaileak, medikuak, erizainak, psikologoak... eta zu bakarrik geratzea *itsasontzia* kudeatzen, ea ahal duzun. Izan ere, ez da bidezkoa pazienteak bakarrik uztea; langile kualifikatu gehiago behar ditugu mota guztietako egoerak artatzeko.

Gauza askotaz jakingo duzu, baina jendearen minaz ez dakizu ezer, zure ordenagailuan sartuta zabilatzalako ez dakit zer begiratzen, eta ez duzu kontuan hartzen bizitza honetan gehien balio duena: pazienteak.

Hori dela eta, guztiok ospitaletik atera eta hemen bakarrik geratzeko eskatzen dizut, zorrak dituzula; adibidez,

Aita Menni osoa, instalazio berriak, ordaintzea.

Zuk asko dakizu. Ea honek pixka bat pentsarazten dizun, ahal baduzu. Greba zerbaiterako egiten da, ez ezertarako. Ahizpak hor daude, ez ahaztu".

Mugi txartela berritzeko arazoak

JOSUNE GARITAOANANDIA

BERGARA

Irailan desgaitasun bat eman zidaten, eta erabaki nuen Mugi txartela berritzea.

Eskatutako dokumentazioa bidali nuen, eta handik astebetera mezu bat jaso nuen esanez bezeroentzako arreta zerbitzura deitzeko. Deitu, eta esan zidaten ezgaitasun-ziurtagiria eta lan-bizitzaren agiria falta zirela.

Webgunearen helbidea eman zidaten, baina ez daukat ordenagailurik; hortaz, telefono zenbaki bi eman zizkidaten. Deitu, deitu, eta ezer ez, ez dute hartzen. Baina beti bideratzen zaituzte webgunera. Ze majoak... Azkenean, Eibarrera joan nintzen, eta atezainak –gaztelaniaz–, ea ordua hartuta neukan...

Esan nion ez dutela telefonorik hartzen eta Internetik ez daukadala; beste zenbaki batzuk eman zizkidan eta... hor konpon! Mesedez eskatu nion nire ezgaitasun-ziurtagiria eraman zutenei fotokopiak ateratzeko, eta kito. Bada, ez. Berriro jaso nuen mezua, ondo ez dagoela esateko. Eguneratuta egon behar duela. Ez da egia izango!

Irailetik hona, ez da ezer aldatu. "A... berdin dit, eguneratuta behar dugu". Eta, nola ez, bideratzen naute webgunera; benetan jatorrak...

Ongi etorri, Ekiola?

ION ALBIZU GONZALEZ

ARETXABALETA

Bai, ongi etorri.

Trantsizio energetikoan berandu gabiltzala esatea ez da ezer berria.

Debagoieneko kontsumo energetikoa (TEP) horrela banatzen da: %55 industria, %24 garraioa, %10 etxebizitzak eta %9 zerbitzuak. Eta energia hori lortzeko iturriak: %37 gasa, %37 elektrizitatea eta %25 gasolioa eta gasolina, nagusiki.

EAEEn kontsumitzen dugunaren %90 kanpotik dator eta energiaren %11 bakarrik osatzen dute energia berriztagarriak.

Ikusten dugun etorkizuna ez da lasai egoteko modukoa, eta kontsumoaren murrizte sakon eta handia egin barik alferrik izango dira egin ditzakegun esfortzu guztiak. Argi eduki dezagun!

Eta Ekiola? Zergatik eman ongietorria?

Trantsizio horretan laguntzen duen apustu garrantzitsu bat delako.

Ahalik eta familia gehien batzeko potentzialitatea duelako.

Ingurumena kaltetzen ez badu –ez badute–, proiektu guztiak beharrezkoak direlako.

Hau guztia esanda, ni partikularki arduratzen nauen pega bat mahai gainean jarri

nahiko nuke. Horrelako proiektuak herritar guzti-guztiei zabalik egon beharko liriateke, baita familia zaurgarri ere.

Zentzu horretan, herrena dator Ekiola, eta horretarako espresuki inizatiba batzuk aurkeztu genizkion Udal Gobernuari. Gutxietsi egin gintuzten eta Leintzeko Ekiola sorreraren prozesutik aldendu gaituzte. Informazio barik.

Bonu soziala kobratzen duten familiek –familia ugariak, zaurgarriak...– trantsizio energetikoan lekuri ez badute eta amankomuneko proiektuak garatzeko ahalmena ez badugu, jai dugu!

Lekeixua lekukotik

OSKAR ELIZBURU

DEBAGOIENEN AEK EUSKALTEGIA
DEBAGOIENA

Korrika bukaeraren aje egunean, oraingorik ere oilo-ipurdiak gaude AEKideok. Euskal herritarrek emandako erantzuna itzela izan da; Donostia lepo, *kabidu* ezinik, giro bikainean eguraldi apartarekin; txiki eta handi, irribarreak nagusi; malkoren batzuk, poz malkoak baina...

Beste koska bat egin dugu gora euskararen aldeko mugimenduan; euskarak normalizaziorako aldarrikapena duen ekintza eta ekinbide handiaren. Jaiok bota zuen mezua, ederra, argia, iradokitzailea... Euskararen gorputzea aldarrikatu zuen, gu gara euskara eta euskara baldin bada gu da. Izate fisikoa da, bat eginda gurekin, gutasuna euskararen baitago. Euskara

bagara, euskaraz biziko gara, eta euskaraz egingo dugu malko eta algarra. Eta gu gara protagonista horretan, gu zikindu behar gara euskararen: erabili, sentitu, transmititu behar dugu; ez da polita eta garbi nonbaiten ikusgai egoteko; ederra da zikina, akatsekin eta bizirik, eta horrela behar du izan, hizkuntza bizia.


Lekeixua irten da lekukotik, irrintzi alai eta sakona denoi eskerrak emateko eta eskerrak ematearekin batera, zer garen ikus dezagun eta senti dezagun ikustarazteko. Lekeixua irten zaigu AEKide guztioi, gure poza eta indarra erakusteko gure modua delako, euskaldunona, barrenetik irteten dena. Eta, askotan, hitzekin esaten ez dugunez asmatzen, irrintzi honekin eskerrak asko erraldoia eman gura dizuegu denoi, Korrikaren parte izan zareten guztioi, elurretan barrez ikusi zaituztegun zoro zoragarrioi, Korrika egiten, eraikitzen eta bultzatzen aritu zareten guztioi. Hamar egunez hamaika lagun etengabe ikusteko aukera izan dugu, zuzenean, han eta hemen, denean eta denetik; Herri bat kalea hartuta euskararen alde.

Lekeixua irten da lekukotik eta honek etenik ezin duela izan aldarrikatu du, maitatzeaz gain erabili behar dugula, euskaraz izan behar dugula. Hau ez da, baina, bukatu; laster datorkigu berriro lekuko aldaketa; badator Euskaraldia eta jarraituko dugu hitzarekin eta ekimenarekin, ekintzek eramango gaituztelako zer garen jakitera eta sentitzera: *Euskara gara*.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





Amagoia Barandiaran, Maria Ubarretxena, Eukene Barrenetxea eta Aritz Otxandiano, astelehenero aurkezpen ekitaldian. L.Z.

Trantsizio energetikoaren baitan, bisita Arrasatera

Trantsizio energetikoa lantzea helburu duen Europa mailako SHREC erakundeko 30 bat ordezkari Arrasatera etorriko dira apirilaren 27an, 28an eta 29an, arlo horretan Arrasaten, bailaran eta EAEn martxan dauden ekimenak gertutik ezagutzeko asmoz

Eneko Azurmendi ARRASATE

Europako hainbat herrialdeetatik etorriko dira bisitariak; besteak beste, Eslovakiatik, Frantziatik, Italiatik, Lituaniatik, Herbeheretatik, Suediatik eta Errumaniatik. Udaletxean egingo diete harrera, osoko bilkuren aretoan, apirilaren 27an.

Ikasketa prozesuan bidelagun izateko, Arrasateko Udalak bertako eragileen taldea osatu zuen proiektua aberasteko asmoz, eta honako hauek osatzen dute taldea, Udalez gain: Debagoiena 2030, Debagoieneko Mankomunitatea, Fagor Taldea, Goiener, H-enea Living Lab, Ikerlan eta Mondragon Unibertsitatea.

Maria Ubarretxena esan azaldu du anfitrioi lanak egitea dagokio- la egun horietan, eta askotariko proiektuak erakutsiko dizkiela bisitariari, hala nola *Fotovoltaiakoak etxean* egitasmoa, Ekiola proiektua, Debagoiena 2030 proiektuaren energia portfolioa, Mondragon Unibertsitateak Ederlaneko labeen beroa baliatuz ezarri nahi duen

berotze sistema, eta eskualdeko kooperatiben ekosistema.

Hainbat bisita egingo dituzte

Irteerak eta bisitak ere egingo ditu nazioarteko ordezkari taldeak. Esaterako, Kulturola eraikina, Ikerlan eta Emaus ekozenterra bisitatuko dituzte. "Kulturola, esaterako, adibide ona da erakusteko. Ondare industrial bat berreskuratu eta eraikina efiziente bihurtu baitugu energetikoki, bigarren aukera bat emanez", dio alkateak.

Era berean, gaineratu du trantsizio energetikoa "bai edo bai" datorren kontu bat dela, horri aurre egin behar zaiola. "Eta herri moduan Arrasatek ere badu bere ardura gai horretan".

ESLOVAKIA, FRANTZIA, ITALIA, LITUANIA ETA ERRUMANIATIK ETORRIKO DIRA SHREC-EKO KIDEAK

Bi hitzaldi, publikoari zabalik

Egitarauaren zati handiena nazioarteko adituentzat izango den arren, badaude publiko orokorrari zuzendutako bi saio, eta Garaiako auditoriumean egingo dituzte. Apirilaren 27an, 11:00etan, gobernantza ereduaren inguruan egingo duten aurkezpena da horietako bat. Hitza hartuko dute, besteak beste, Arrasateko Udaleko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Euskal Energia Erakundeko ordezkariak.

Bestalde, hilaren 28an, energia komunitateen eta ereduaren gaineko mahai-ingurua egingo dute Eako Udaleko eta Ekiolako eta Goiener kooperatibako ordezkariak, 15:00etan. Aurrez, 14:30ean hasita, D2030 proiektuko ordezkariak ere hartuko dute berba, energia portfolioaren inguruan aritzeko.

Bi saio horietan parte hartzeko, aurrez aurre zein *streaming* bidez, izena eman behar da, *Arrasate.eus* webgunean, apirilaren 22a baino lehen.

Askotariko bisitak eta mendi ibilaldiak egongo dira egunotan

Bihartik apirilaren 24ra arte, hiru bisita historiko eta beste hiru mendi ibilaldi antolatu ditu Arrasateko Udalak

E.A. ARRASATE

Bihar, eguna, Arrasateko historiaren "pasarte garrantzitsuenak" ezagutu ahal izango dituzte, historiaurretik aro berrira arte, plazatik abiatuta. 10:30ean euskarazko saioa izango da eta 12:30ean, gaztelaniazkoa.

Egubakoitzean, industrializazioak Arrasaten izandako eragina aztertuko dute, plazatik abiatuta, ordutegi berarekin.

Datozen bi zapatuetan, apirilaren 16an eta 23an, udaletxean ezagutzeko aukera egongo da, ordutegi berarekin hori ere.

Mendi ibilaldiei dagokienez, domekan Gesalibar gaineko Santagedaatx tontorra ezagutzeko ibilbidea egingo dute, 09:00etan plazatik abiatuta.

Astelehenean, San Kristobal eta San Balerio ermiten arrastoak ezagutzeko aukera egongo da, 09:00etan plazatik abiatuta.

Azkenik, apirilaren 24an, domeka, Anporretako bira egingo dute, burdinaren bidea, 09:00etan plazatik abiatuta.

BAZen, 943 25 20 00 telefonora deituz eta *Arrasate.eus* webgunean eman daiteke izena.

Bost domina ekarri dituzte atletek Ordiziatik Arrasatera

Gipuzkoako atletismo txapelketa jokatu dute asteburuan Ordizian 16, 18 eta 20 urtez azpikoetan eta master kategorian, eta Arrasate Kanpanzar Atletiko taldeko ordezkariak bost domina eskuratu dituzte: urrezko bat, zilarrezko bi eta brontzezko beste bi.

Pertika-jauzian, Danel Ruizentzat izan da urrezko domina, 2,80

metroko jauzia eginda. Unai Iturbek, marka bera eginda, zilarrezko domina bereganatu du; eta brontzezkoa, berriz, Aimar Uribetxeberriarentzat izan da (1,80 metro).

18 urtez azpikoetan, 100 metroko proban, Ane Del Fresnok zilarrezko domina lortu du, marka pertsonala hobetuta (13.08).

600 metroko proban, Eñaut Betegik brontzea eskuratu du (1.34.21). Atleta arrasatearren emaitza guztiak eta argazkiak *Goiena.eus*-en daude ikusgai.

GORA ETA BEHERA



Arratoia, "luzaroan", edukiontzi ondoan



Herritar bat kexu azaldu da erdiguneko edukiontzi inguruak zikin egoten direla eta. "Hildako arratoi bat luzaroan egon da edukiontzi baten ondoan, eta itxura txarra ematen du horrek".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Txatxilipurdiren eskutik, bueltan dira udalekuak

Arrasateko eta Euskal Herriko aurre-nerabe eta nerabeei uda "magiko eta ahaztezina" eskaintzeko helburuarekin, 2022ko udalekuak aurkeztu ditu Txatxilipurdik, itxiak zein irekiak; uztailaren izango dira eta apirilaren 25etik aurrera eman ahalko da izena

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Euskaraz, naturaz, sormenez, bizikidetzaz, elkartasunaz eta talde-lanaz bustitako oporraldi paregabeak" eskainiko ditu aurtengo udan Txatxilipurdik, udaleku irekien eta itxien bitartez.

Udaleku irekiak 2 eta 12 urteko haurrei zuzenduta daude eta hiru astez gauzatuko dituzte, uztailearen 4tik 22ra. "Arrasateko kaleak eta naturaguneak hartuta, giro atseginean, egun-pasak, mendi bueltak, ur-jolasak eta abar izango dituen eskaintza dibertigarri eta dinamikoa sortuko dugu", diote antolatzaileek.

Arrasateko hiru auzotan egingo dituzte, eta, adinaren arabera, hiru taldetan banatuko dituzte haurrak: lehena *Bilin Bolonka* izango da, 2016-2019 urte artean jaiotakoentzat –izen-ematea 103 euro–; bigarren taldea, *Bihurrikeixetan*, 2013-2015 urte artean jaiotakoentzat izango da –goizez 126 euro eta goiz eta arratsaldez 149 euro–; hirugarren taldea, *azkenik, Erokeixetan* izango da, 2010-2012 urte artean jaiotakoentzat –149 euro–. Era berean, hainbat deskontu ere egongo dira: AEDko bazkide izateagatik, %5ekoa; familia ugariak izateagatik, %5ekoa; eta biak izateagatik, %10ekoa.

Itxiak, uztailearen 2tik 9ra

Udaleku itxiak, bestalde, Garaion Sorgingunean egingo dituzte (Ozeta, Araba), uztailearen 2tik 9ra. Adinaren arabera, hiru talde egingo dituzte eta talde bakoitzak herrixka propioa izango du Sorgingunean: Aizkomendi herrixkan 2010, 2011 eta 2012. urteetan jaiotakoak egongo dira; Gebaran, 2008an eta 2009an jaiotakoak; eta Orginetxen, 2006an eta 2007an jaiotakoak. Izen-ematea 330 euro da guztietan eta udaleku irekietako deskontu berberak aplikatu dira. Era berean, 25 plaza egongo dira talde bakoitzean. "Elkar zaintza izan-



Atzo, martitzena, egin zuten udalekuak aurkezteko agerraldia. J.I.

UDALEKU IREKIAK ARRASATEN EGINGO DITUZTE; ITXIAK, BERRIZ, ARABAKO OZETA HERRIAN

go da ardatz garrantzitsuetako bat eta udalekuek parte hartuko dugun kideon hitza kontuan izanik adostuko dira ekintzak".

Izena emateko hainbat bide

Izena emateko epea apirilaren 25ean irekiko dute eta maiatzaren 20ra arte egongo da horretarako aukera, aurrez aurre eta online. Honako hauek dira bideak: *Txatxilipurdi.eus* webgune *Udalekuen izen-ematea* atalean; zabalduko duten QR kode baten bitartez; bulegoan –Nafarroa etorbidea 23, 1. solairua–, astelehenetik eguenera, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara; eta telefonoz, 943 79 54 46 zenbakira deituta.

Hezitzaileak behar dituzte

Hezitzaileen eta praktikagileen zerrenda bat osatu nahi du Txatxilipurdik. "Beraz, urtero egin

izan dugun bezala, aurrez aurre, haurrekin eta gaztetxoekin lan egiteko gogoia izanez gero, curriculum bidali beharko da apirilaren 25etik maiatzaren 6ra bitarte", adierazi dute elkartetik.

Halaber, udalekuek hezitzaile aritu ahal izateko eta praktikak egin ahal izateko, hezitzaileen formakuntzarako saio berezi bat antolatuko dute eta derrigorrezkoa izango da joatea. Maiatzaren 28an egingo dute saio hori, egun osoz. Izena eman ahal izateko, hainbat baldintza bete behar dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea, aipaturiko formakuntza saiora joatea eta Arrasatekoa edo Debagoienekoa izatea.

Modu berean, hainbat irizpide ere hartuko dituzte kontuan aukeraketa egiterakoan: begirale titulua izatea –praktikagileen kasuan, praktikak egitea litzateke–, ikasketak, esperientzia eta lanerako prestutasuna.

Interesa duenak curriculum, begirale edo zuzendari tituluen kopiak eta hezitzaileen fitxa beteta –atxikita– bidali beharko ditu bi helbide hauetakoren batera: *a.osoro@txatxilipurdi.eus* edo *i.gallastegi@txatxilipurdi.eus*.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Oraindik 1914a da

Azkarrago dabil historia azkenaldian. Apurto da Europar Batasunaren eta AEBetako hegemonia eusten zuen *Pax Romana* moduko hori –munduko herrialdeen menpekotasun sasikolonialean oinarritua–. Dagoeneko Txina ez da gauza merkeak ekoizten dituen herrialde pobrea, Errusiak bere eragin esparrua eskatzen du Amerikan, Afrikan, Asian; Iranek ez dio uko egiten bere buruzagitza islamiko eta pertsiarri...

Bitartean, planeta osoa basez eta armamentu nuklearrez josita daukaten AEBek eta NATOK, boterea mantendu nahian, harrokeriaz mugitzen dituzte euren armadak gainerako blokeen mugetan, mundua euren delakoan, *jokoan* lehiakide gehiago daudela ulertu ezinik, botoi nuklearrekin jolasean.

Bai, 1914. urtea dakarkigu gogora inperioen joko berri honek. Nahikoa da txarto kalkulaturako eskalada bat... eta agur Ben Hur. Batek daki oraingoan Versaillesen ezer sinatzeko norbait geratuko den, edo burrunbada belizistaren ginetik munduko langileen arteko senidetasunaz hitz egingo duten Vladimir Lenin eta Rosa Luxemburg berriak agertuko diren.

Sanjuanetako lelo lehiaketa martxan du dagoeneko AEDk

AED elkarteak San Juan jaietako lelo lehiaketa antolatu du, Arrasateko Udalarekin elkarlanean. Leloa esaldi laburra eta argia izatea baloratuko dute. Arrasaten bizi, ikasi edo lan egiten duen edonork parte har dezake lehiaketan, "taldean edo bakarka, adin mugarik gabe", eta partaide edo talde bakoitzak nahi beste lan aurkez ditzake.

Lanak maiatzaren 10a baino lehen bidali behar dira *aed@aedelkarrea.eus* helbidera, eta, leloarekin batera, egilearen edo egileen izen-abizenak eta telefonoa zehaztu beharko dira. Epaia maiatzaren 13an jakinaraziko dute, tokiko hedabideen eta sare sozialen bidez.

OHARRAK

Kulturate, itxita

Bihartik astelehenera arte itxita egongo da, eta Pazko astean ordutegi berezia izango du: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Autobusa Senperera

Maiatzaren 8an Herri Urrats jaialdira joateko autobusa egongo da, 09:00etan Zalduspetik irtenda. AEDn lortu daitezke txartelak –bazkideek bost euro eta bazkide ez direnek, hamar–.

Alex Clavero Amaian

Maiatzaren 6an, 19:30ean, Alex Clavero umoristak bakarriketa egingo du amaian. Sarrerak salgai daude udal webgunean, 20 eurotan.



Tokiko sortzaileei ahotsa emango die HitzArteak

Arantza Otaduy, Iker Barandiaran, Eneko Barberena, Maria Osés, Marian Porcel eta Jokin Mitxelena sortzaileak izango dira aurtengo HitzArtea ekimenaren protagonistak. Hilaren 29an Kulturaten egingo dute solasaldia, 19:00etan hasita

Maidar Arregi ARRASATE

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da; irakurketa eta argitalpen industria sustatu eta idazleen eskubideak babesteko eguna, alegia. Hala, horri eutsita, aurten ere, Arrasateko liburutegiak HitzArtea antolatu du, askotariko sortzaileak ezagutzera emateko eta sustatzeko asmoz. Oraingoan, ordea, bertako idazleen, zero kilometroko sortzaileen, aldeko hautua egin du, eta horiek ezagutarazteko bide emango diete herritarrei. "Garrantzitsua dela uste dugu herriko idazle eta sortzaileak ezagutaraztea, eta baita euren lana ikusaraztea herri mailan. Babesa badutela eta bakarrik ez daudela erakutsi nahi diegu. Beren garrantzia ere badute, eta hori sustatu nahi dugu", azaldu du HitzArteko antolatzaile Judit Ruiz de Munainek. Era berean, sortzaileen eta herritarren arteko zubi-lana egin nahi dutela dio: "Bai sortzaileak eta baita herritarrak ere motibatu nahi ditugu. Bertako idazleengana gerturatuzera, galdetuzera eta bertatik bertara ezagutzera animatu nahi dugu publikoa. Idazleen artean taldetxo bat badugu, eta oso lagungarria da; izan ere, zerbait argitaratzea

nahi baduzu, horiek ere lagun-tzen zaituzte".

Sei sortzaile

Askotariko esparruetan jarduten duten bertako sei sortzaile gonbidatu dituzte aurten: "Aurten gonbidatutako sortzaileen profila oso zabala da: historialaria, musikan iaioa den kazetaria, sariak jaso dituen idazlea, nobela idatzi duen irakaslea... Herritar askorendako erakarria izango dela deritzogu". Aurpegi ezagunen alde ere egin nahi izan dutela aitortu du: "Iker Barandiaran, esaterako, oso aurpegi ezaguna da, eta jende asko erakartzen du; Arantza Otaduyk ere askok jarraitzen duten bloga dauka...".

Hain zuzen ere, ekitaldira joaten den publikoak herriko idazleak ezagutzeko dituen bitartean. Gainera, sortzaileen idatziak irudi bihurtuko ditu zuzenean Jokin Mitxelena ilustratzaile donostiar ezagunak. Gainontze-

KULTURATEKO JARDUNALDIAN SORTZAILEEN LANAK ESKURATZEKO AULERA IZANGO DA

ko bost sortzaileak honako hauek dira: Marian Porcel kazetaria eta zinema eta telebistarako gidoilaria eta editorea. Betidanik idatzi du, eta, egun, literaturari eskaintzen dio bere energia. Iker Barandiaran kazetari, idazle eta musikazalea. *Egunkaria, Gara, Putz, El tubo* aldizkarietan, beste askoren artean, jardundakoa; egun, Artemaneko kazetaria da. Arantza Otaduy, aldiz, arte historialaria da eta Debagoiena eta bere historia ezagutaraztea da haren helburuetako bat. *Feeleuskadi* webgunearen sortzailea ere bada.

Bestalde, Maria Osés gazte sortzaileak aurten bukatuko ditu itzulpengintza eta interpretazio ikasketak. Txikitatik izan du literaturarekiko zaletasuna, eta formatu askotan jorratu du zaletasun hori: poesia eta prosa idatzi izan ditu. *Astrapala* podcast-aren sortzailea da. Azkenik, Eneko Barberena euskal idazlea. Zuzenbidean lizentziatua, bost liburu eta hainbat ipuin labur argitaratu ditu. (H)ilbeltza beka irabazi berri du (2021) *Xukunetik aldendu ahala* liburua idazteko.

Kulturateko jardunaldian, sinatutako liburuak eskuratzeko aukera izango dute ikusleek bertatik bertara.



Arantza Otaduy. HITZARTEA



Jokin Mitxelena. EUSKONEWS



Iker Barandiaran. HITZARTEA



Eneko Barberena. GOIENA



Maria Osés. HITZARTEA



Marian Porcel. HITZARTEA



Txakurrak taldea Berlingo Wowville taberna aurrean. JOKIN MENDIZABAL

Kalea astintzeko gogoz, lehen lana gertu du Txakurrak taldeak

Apirilaren 23an, 'Vive la calle!' lehen diskoa aurkeztuko dute arrasatearrek gaztetxean, 22:00etan hasita

M.A. ANTZUOLA

Pandemiak eta taldekide aldatetako lehen diskoa atzeratu badute ere, rock-and-rollez busitako lana prest dauka Txakurrak talde arrasatearrak. *Vive la calle!* diskoa apirilaren 23rako

eskuragai izango dela aurreratu dio GOIENARI taldekide Jokin Mendizabalek.

Taldea, baina, motorrak berotze aldera, Berlinen izan berri da diskoko kantuak astintzen: "K19 tabernan egin dugu ema-

naldia, eta dena gertatzen ari gara. Oso gogotsu gaude Arrasateko emanaldirako; izan ere, atzeratu egin zaigu disko aurkezpena pandemiagatik eta abeslari aldatetagatik".

Hala, *Zaunk & Roll* doinuez eta punk zertzeladez osatutako lehen lana Arrasateko gaztetxean, etxean, aurkeztuko dute, hilaren 23an, 22:00etan hasita. Tatxers nafarrak eta Atturri arrasatearrak ere igoko dira eszenatokira. Sarrera 5 euro da eta bertan jarriko dituzte salgai.

"Rapean sare sozialak dira bozgorailuak"

JON IZAGA 'MUTIKO' RAP ABESLARIA

Orain dela bi urte argitaratu zuen lehenengo abestia; egun, beste hiru abesti ditu grabatuta eta horien bideoklipak egiten dabil. Ekainean Jimmy Jazz aretoan joko du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
24 urteko aramaioarrak gaztetatik entzuten du rap musika. Hala, abestiak entzutek egitea pasa da azkeneko bi urteetan. **Pandemian argitaratu zenuen *Lucid* lehen abestia. Nolako harrera izan zuen?**

Lehenago grabatu nuen arren, 2020ko apirilean argitaratu nuen. Egia esan, lehen abestia zela eta bideo barik argitaratu nuela kontuan hartuta, harrera ona izan zuen. Bisita asko izan zituen sareetan. Lagun talde bat nuen musikan sartuta, eta eurek animatuta hasi nintzen. Estudio txiki bat sortu zuten eta han hasi nintzen.

Ordutik, sei abesti argitaratu dituzu, eta orain, hiru dituzu grabatuta.

Bai, beste sei abesti argitaratu ditut lehenengo haren ondoren. Orain, hiru abesti ditut grabatuta eta abesti horien bideoklipekin lanean nabil.

Non egingo dituzu bideoklip horiek?

Lehenengo bideoklipa animaziozkoa izango da, animatzaile batek egingo du; eta beste biak Eskoriatzako lagun batek egingo ditu. Gu gabilta dena egiten; *Denso*-k [Hodei Vicario] egiten dit instrumentala eta bideoak ere bien artean pentsatzen ditugu.

Rapean, diskoak beharrean singleak ateratzen dituzue?



Jon Izaga *Mutiko* rap abeslaria. J.I.

Bai, esan daiteke horrela funtzionatzen dugula. Beste musika estilo batzuetan ez dituzte singleak ateratzen; arrazoia da kanta bat grabatzeko musika instrumentu asko grabatu behar dituzula, eta estudio batean sartzeari kanta bakarri grabatzeko ez da ekonomikoki errentagarria, hobe da diskoa grabatzea. Gure kasuan, ahotsa bakarrik grabatu behar dugu, beste guztia ordenagailu bidez egiten dugu. Gainera, gaur egun, horrela hobeto funtzionatzen dute. Abesti bat ateratzen duzunean, esaten

dute bi hilabetez egoten dela jendea hori entzuten; diskoa, aldiz, bi hilabete eta erdiz. Hala ere, badut diskoa ateratzeko gogoia; agian, ez fisikoa, baina bai Interneten jartzekoa. Baina, gaur-gaurkoz, ez dut horrenbeste denborarik.

Jendearen aurrean lehen aldiz 2021eko urrian abestu zenuen, Monterronen. Nola gogoratzen duzu?

Oso ondo, izugarritzko taldea batu ginen eta esperientzia ona izan zen. Ordutik, Bergarako gaztetxean ere jo izan dut, eta, orain dela gutxi, baita Arrasa-

teko kalean ere, baina ez kontzertu moduan.

Nondik dator kizur raparekiko zaletasuna?

Ba, esango nuke 13 urte ditudanetik entzuten dudala rapa. Rap amerikarra entzuten dut, nahiz eta genero oso zabala den eta musika mota asko dituen. Betidanik entzun dut eta naturalki irteten zait rapa egitea. Ez dut formakuntzarik jaso; egia da azkenaldian banabilela gauzatzekoak ikastea, baina Internet bitartez egiten du hori, ez modu formalean. Nire produktorea den Hodei Vicario *Denso*-k, adibidez, dena ikasi du Internet bitartez, eta oso ona da.

Zer lortu nahi duzu zure musikarekin?

Ez dut horrelakorik planteatzen. Nik egiten dut irteten zaidana, ideia bat hartzen dut eta hortik tiratzen dut, baina ez dut helburu konkreturik. Beste artista batzuen eragin handia dut, baina helburu konkretu barik. **Gaztekeraz egiten dituzu kantu guztiak?**

Bai; batez ere, gaztekeraz egiten dut. Rapa euskaraz egiten duen jende askorik ez dago. Entzuten dudana guztia gaztekeraz edo ingelesez da, eta, horregatik, naturalki irteten zait gaztekeraz egitea. Ez dago euskarazko erreferenterik.

Rapak badu matxista izatearen etiketa. Ze iritzi duzu horren inguruan?

Nik ez dut uste hori horrela denik. Askotan entzun izan dut aurreiritzi hori, baina askoz ere matxistagoak eta zatarragoak iruditzen zaizkit beste genero asko. Rapak izan dezake este-reotipo hori Ameriketatik datorren irudiagatik: bideoklipetan beti emakumeak agertzen dira. Ez zait iruditzen rapa matxista

denik; matxista izan daiteke gizartearen, eta, ondorioz, rapa ere izango da.

Zure kasuan, musika eta hitzak, guztia sortzen duzu zuk?

Abestiak nik idazten ditut eta musika egiteko *Denso*-ren laguntza izaten dut. Nik zer ideia dudana esaten diot eta bion artean egiten dugu ondorengo guztia. Gasteizko estudio batean grabatzen dut.

Gaur egungo teknologia berriek nola laguntzen dute musika eza-gutzera emateko orduan?

Denean laguntzen dutela esan daiteke. Abesti bat grabatzen dudanean, sare sozial guztietan jartzen dut, bestela inork ez luke eta izango abestiaren berri. Promozioa egiteko lekuak dira, bada, barik. Beste genero batzuetan, beharbada, ez dute horrenbeste garrantzirik sare sozialek, baina nik egiten dudana generoan horiek dira jendearengana heltzeko bozgorailuak.

Amets egiten jarrita, non jotzea gustatuko litzazuke?

Deitzen didaten lekura joateko prest nago; jaialdiren batetik deituz gero, gustura joango naiz. Horren harira, konfirmatu berri didate ekainaren 18n Jimmy Jazz aretoan emango dudala kontzertua, Gasteizen.

Maria Izaga zure arreba izanda, inoiz izatsatu duzue ezer elkarrekin egitea?

Bai, bai... pentsatu izan dut, baina Maria Madrilen dago. Bai, zergatik ez, egingo dugu zerbait elkarrekin.

"NATURALKI IRTETEN ZAIT GAZTEKERA, EUSKARAZ ERREFERENTEAK FALTA DIRA"

Euskararen aldeko mezua

Aramaixo Herri Eskolako ikasleak, irakasleak eta gurasoak euskararen alde korrika ibili ziren barikuan. Korrika Txikia ospatu zuten. Iturizuri kalean hasi zuten ekitaldia, eta eskolako patioan amaitu. Han, talde bakoitzak bere mezua irakurri zuen, eta ondoren, 22. Korrikako *Hitzekin* abestia dantzatu eta kantatu zuten guztiak elkarrekin.



Festa, aterpetxearen 50. urteurrena ospatzeko

Leixargarateko aterpetxea 1971ko irailaren 5ean inauguratu zuten, eta, ospatzeko, urteurren festa egingo dute hilaren 30ean. 10:00etan elkartuko dira goian, eta babeslekuaren inguruko hainbat bitxikeria kontatuko dituzte, jatekoaz lagunduta

Amaia Txintxurreta ARETXABALETAKO UDAREN 75. urteurrenaren barruan, beste data esanguratsu bat ere ospatu nahi dute hilaren 30ean. Leixargarateko aterpetxea inauguratu zela 51 urte pasa dira dagoeneko, eta hori ospatuko dute. Halaxe adierazi du UDako kudeatzaile Ainara Mugak: "Urteurren ospakizuna lehenago egiteko asmoa geneukan, baina, COVID-19ak ekarri duen pandemia tarteko, azkenean, orain egitea erabaki dugu. Mendi martxa bat egiteko asmoa geneukan hasieran; hala ere, jende pilaketak saihesteko asmoz, erabaki dugu herritar bakoitzak bere aldetik igotzea Leixargaratera, eta ondoren, han egingo dugu ospakizuna".

Hilaren 30ean, 10:00etatik 12:00etara bitartean egingo dute.

Argazkiak eta historia

Aterpetxean jatekoa musikaz girotuta egongo dela iragarri dute. Argazki zaharrak eta askotariko dokumentuak ikusteko

panelak ere jarriko dituzte. Eta 1971ko irailaren 5ean egin zuten inaugurazioan Besaide Mendi Taldeko presidente zegoen Alvaro Arregi Otadui hitz batzuk esango ditu, aterpetxearen historia eta orain arteko hainbat istorio kontatuz. UDAn, garai hartan, Javier San Miguel zegoen presidente.

Izan ere, bi zatitan dago banatuta aterpetxea: alde bat UDA-Murruxok eramatzen du; eta bestea, Arrasateko Besaidek. Azken horretako kide Aitor Zabaletak hainbat bitxikeria gogoratzen ditu: "Interesgarri ikusten dugu nola finantzatu zen aterpetxea mendizaleen aldetik; errifekin kolaboratuz lortu zen diru zati bat. Norba-

IÑURRATEGI PAGALDAI ANAIEKIN LORTU ZUTEN AKORDIOA LEIXARGARATEKO ATERPETXERAKO

nakoek ere aurreratu zuten dirua, eta hori guztia dokumentatuta daukagu izen-abizenekin. Badakigu, baita ere, inauguratu eta hiru urte geroago landatu zituztela ondoan dauden hiru lizarrak. Teilatua, hasiera batean, ez zen teilekin egindakoa, hormigoizkoa baizik... 1.000 istorio daude, eta horietako batzuk panelen baten jartzen saiatuko gara".

Aterpetxearen kokalekuarekin ere izan zituzten gorabehera batzuk: "Babesleku Degurixan eta Alabitan kokatzeko hainbat saiakerak huts egin ondoren, 1970eko erdialdean akordioa lortu zen Bolibarko Jausoro baserriko Iñurrategi Pagalday anaiekin, Leixargaraten aterpea eraikitzeke, haien jabetzako txabolatik gertu, babeslektatik gertu, iturri bat jartzeko konpromisoarekin", gaineratu du Zabaletak. Horrelako istorio gehiago ere kontatuko dituzte urteurren festan.



Lanak hastean, ibilgailuendako itxi egingo dute Iparragirre kalea. MIRARI ALTUBE

Zirkulazioan aldaketak ekarriko dituzte Santa Kurtz kaleko lanek

Hilaren 19an hasiko dituzte bigarren faseko lanak eta Iparragirre kaleko iparraldea zirkulaziora itxiko dute

A.T. ARETXABALETAKO

Santa Kurtz kaleko hornidura eta saneamenduko plan bereziko obrek bigarren faseari ekingo diote hilaren 19an. Egun horretatik aurrera, Sasoi Eraikuntzak enpresako makinak izango dira Santa Kurtz eta Otalora kaleetan, Iparragirre-
iparraldea- kalean barrena - Amets taberna-.

Tarte hori itxi egingo dute, eta horrek ibilgailuen zirkulazioan aldaketa batzuk eragingo ditu. Kurtzbarri Eskolako eraikina zeharkatu ondoren, ibilgailuak Sarasate hegoaldeetik - Expres taberna- joango dira Otalorara. Kale horrek zirkulazioaren noranzkoa aldatuko du, eta beheranzkoa izango da obrek irauten duten bitartean.

Sarasate, Elcano, Guridi eta Iparragirre kaleetako bizilagunek Expres tabernatik Santa Kurtz aldera igarotzeko aukera

izango dute, oraindik obretan ez dauden zatietan aparkatzeko aukera izan dezaten.

Bost fase

Santa Kurtz kalearen berrurbanizazioaren bigarren fasea lehenengoarekin batera egingo da. Azken hori joan den urtarrilean hasi zen eta Iparragirre kalearen hasieraren eta kuarteleko erdi-biribilgunearen zatia hartu zuen. Bi fase horiek ekainaren erdialderako amaitzea espero dute, eta orduan, honako esku-hartze hauek egingo dira: hirugarren fasean, Iparragirretik -iparraldea- Sarasateraino -hegoaldea-; laugarrenean, Expres tabernatik Otalora kalera-ko tarteraino; eta bosgarrenean, Kurtzbarri Eskolako ingurua hartuko dute lanek.

Sasoi Eraikuntzak enpresari esleitu zitzaizkion lan horiek, 2.042.500 eurotan.

Hilaren 28rako antolatu du UDAK hurrengo solasaldia

Gurea tabernan izango da UDA taldeak antolatutako hurrengo hitzaldi-solasaldia, hilaren 28an, 19:00etan. Hiru kirolari gonbidatuko dituzte bertara; Ainara Urrutia, Beñat Arnaiz eta Igor Olalde. Eta elkarrizketatzaile lanetan Xabi Igoa bertsolari aramaioarra izango da.

Aretxabaleko atleta da Ainara Urrutia, 37 urterekin hasi

zen korrika egiten eta hainbat helburu betetzeko aukera izan du orain artean. Beñat Arnaiz triatleta arrasatearrak ibilbide luzea dauka eta haren bizipenak entzuteko aukera ere izango da hilaren 28ko saioan. Eta Igor Olalde korrikalari aretxabale-tarraren esperientzia eta iritziak ere gertutik ezagutzeko aukera eskainiko dute.

Solasaldia musikaz girotuta egongo dela aurreratu dute, oraindik zein musikari egongo diren zehaztu ez dituzten arren.



Leixargarateko aterpetxearen gaur egungo itxura, kanpotik. MIRARI ALTUBE



Iazko Hitz-Artea ekitaldian, Judit Ruiz de Muniain idazlea irakurtzen, eta atzean Mitxelenaren ilustrazioak, zuzenean. GOIENA

Herriko idazleen eskutik, hitzen arteaz gozatuz

Liburuaren Egunaren harira, bi ekimen egingo dituzte: apirilaren 27an, herriko idazleen liburuen azoka egingo dute Herriko Plazan; eta 28an, berriz, Hitz-Artea ekimenean, bailarako hainbat idazleren hitzak ilustratuko ditu Jokin Mitxelenak

Amaia Txintxurreta ARETXABAETA
Herriko idazleen lanak izango dira protagonista aurten ere Liburuaren Egunaren bueltan. Sei idazle hauen azken lanak ezagutu ahal izango dira gertutik: David Agirrerena, Luis Jose Errastirena, Maider Triviñorena, Judit Ruiz de Munainena, Karmelegartua aretxabaletarrarena –haren poemak Tere Irastorza Bergarako Idazle Eskolako zuzendariak irakurriko ditu– eta Xabier Oianguren eskoriatzarrarena.

Hitz-Artea ekimena 28an

Iaz egin zuten lehenengoz Hitz-Artea ekimena eta aurten ere egingo dute, hilaren 28an, 18:30ean, Arkupeko Zeraia aretoan. Bertan, Jokin Mitxelena ilustratzailea zuzenean marrazten izango da, bailarako hainbat idazle euren lanak jendaurrean irakurtzen dituzten bitartean.

Esaterako, Judit Ruiz de Muniainek bigarren urtez hartuko du parte. Argitaratu zuen lehen

liburu *Zukafukamusuka* izan zen, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutako istorio erotikoen liburua. Iaz, Karmelegartuaren sarian aipamen berezia jaso zuen, eta aurten, *El rinoceronte, relatos en estampida* Gabonetan argitaratu zuen bigarren lanaren zati bat irakurriko du. Oso ekimen aberasgarria iruditzen zaio: "Asko gustatu zitzaidan aurreko urtean parte hartzea. Iruditzen zait oso bisuala dela, gaur egun oso ohituta gaude bideoekin, eta izan zen nahasketa oso interesgarria. Gainera, gero, marrazkiak ere banatu egin ziren eta jendea asko gustatu zitzaion. Niri oso positiboa iruditzen zait; izan ere, uste dut bakarrik irakurtzeak baino ikuskizun handiagoa es-

kaintzen duela formatu honek. Bestalde, asko gustatzen zaidana da baita ere herriko idazleak izatea protagonista. Bertan izango garen gehienok gure kontu editatzen dugu, gure zaletasuna da, ez da ogibidea, eta aukerabat da gustatzen zaiguna erakusteko".

Liburu azoka 27an

Horrez gain, aurreko egunean, hilaren 27an, liburu azoka egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, Herriko Plazako arkupeetan. Herriko hainbat idazleren lanak egongo dira bertan. Horiek gertutik ikusteko eta zuzenean idazleekin hartu-eman izateko aukera izango da, eta, noski, argitaratu dituzten azken libururak erosi ahal izango dira. Aurten, Hitz-Artean ez du parte hartuko, esaterako, David Agirrek, baina azokan egongo da egun horretan bertan argitaratuko duen *Guía del Camino Ignaciano. Un camino para la justicia social* saiakerarekin.

EUREN KONTU EDITATZEN DUTEN HERRIKO IDAZLEEN LANAK EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DA



NIRE USTEZ

MIKEL ARROIBE

Korrika ispilu

Aurten ere Korrikak jende ugari mobilizatu du Aretxabaletan eta oso emoziozkoak izan da. Ez dakit euskaraz *salbatzeko* nahikoa izango den, ez dakit kaleko erabileran igoerarik igarriko den, baina argazkia oso polita izan da.

Gure hizkuntzak –eta kultura– bizirik segi dezan nahi badugu, ezkerreko balioetatik egin beharko dugu tira, eta ezkerreko duen balio handiena elkarlana eta elkar-zaintza da. Korrika ere horren erakusle izan da; ez dio axola nor eman duen lekukoa, garrantzitsua da Aretxabaletan egin dituen bi kilometro eskaseta hogei pertsonaren artean elkarlanean egin duela aurrera Korrikaren karabanak.

Hogei pertsona horien artean aniztasuna izan da nagusi; dela adina, generoa, lanbidea, jatorria... Argi dago haurrak aniztasunean hezteko dela etorkizun bidezkoago baten oinarria. Era berean, gure kulturak aurrera egin dezan, kanpotik datorrenari gure mundu ikuskera transmititu behar diogu, baina kontuz, berea gutxietsi gabe, galduarazi gabe eta, ahal dela, iritsi zaizkigun kultura berri horietatik guk ere ikasiz.



MIRARI ALTUBE

Jolas parkea gaztetxoendako

Udaberriko jolas parkearekin eman diote hasiera opor asteari 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek. Puzgarriak, mahai-jolasak, eskulanak egiteko txokoak eta beste hainbat gune izan dituzte aukeran Ibarra kiroldegian, bi egunez. Gabonetan COVID-19agatik parke barik gelditu arren, orain izan dute horrekin disfrutatzeko aukera.

Jou Díaz
Karakina

Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAETA

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Udaberriko jolas parkea, Manuel Muñoz kiroldegian. AITOR AGIRIANO

Jolas parke gosea ase dute herriko gaztetxoek

Askotariko jolasetan murgilduta hasi dute Aste Santua umeei. Hain zuzen, astelehena ezker, esperoan zeuden puzgarri eta tailerrak izan dituzte kiroldegian gozagai. Borobiltzeko, gaur, eguaztena, puzgarriak egongo dira igerilekuan

Aitor Agiriano Arrese ESKORIATZA
Ezohiko egunetan izan bada ere, 3 eta 12 urte bitarteko eskoriatzar gazteek urtero egin izan den jolas parkean aritzeko aukera izan dute. Gabonetan bihurtu izan ohi da Manuel Muñoz kiroldegia jolas parke, baina, pandemiaren ondorioz, bertan behera gelditu zen egitekoa zen azkena. Hala, sasoi

aldaketarekin batera, udaberri hartu dute leku askotariko jolasek kiroldegia.

Goiz eta arratsalde aritu dira puzgarrietan saltoka, eskulanak egiten eta bideo jokoetan jolasean ere bai, besteak beste. Herriko gazteek "faltan" igartzen zuten horrelako jolas parke bat, eta "izugarri disfrutatu" dutela esan dute. Antolatzaileek eta

hezitzaileek ere balorazio "oso positiboa" egin dute azken edizio honek izan duen harrerekin.

Gaur, eguaztena, puzgarriak izango dira igerilekuan, bi txandatan: 10:30etik 12:00etara, 3 eta 7 urte bitarteko umeentzako; eta, bestetik, 12:00etatik 13:30etara, 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzako.



MAIDER ETXANIZ
GAZTERIA TEKNIKARIA

"Parke gosez zegoen jendea. Haur pila bat etorri dira eta genituen helburu guztiak bete dira. Herritarrak eurak oso pozik gelditu dira".



JONE AZKARGORTA
HEZITZAILEA

"Lehenengo aldiz izan naiz begirale. Izan ere, esperientzia oso aberasgarria izan da adin tarte askotariko umeei hezitzaile jardutea".



MALEN BENGOA
ERABILTZAILEA

"Lagun artean dibertitzeko leku aproposa da jolas parkea. Herrian horrelako aukera gehiago egotea gustatuko litzaidake".



Peio Lizundia Kortazar, aitonaaren aurrean biografia irakurtzen. IMANOL SORIANO

Aitona-amonen bizipenei balioa ematen dien lehiaketa

'Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu' egitasmoak baditu irabazleak; egubakoitzean egin zuten sari banaketa

A.A. ESKORIATZA

Zortzigarren edizioa izan du aitona-amonen istorioen transmisioa mantentzea helburu duen egitasmoak. Orokorrean, familiako txikienek haien istorioen berri ez zutela konturatuta jarri zuten martxan lehiaketa. "Lehen, etxeetan, baserrietan, istorioen transmisioa modu naturalean egiten zen. Gaur egun, berriz, etxe txikietan bizi gara, aitona-amonak ez dira gurekin bizi eta zailagoa da transmisio hori egitea. Hala, galdu ez dadin, lehiaketa martxan jartzearen ideia sortu zen", zehaztu du Iñaki Agirianok, Eskoriatzako liburutegiko arduradunak.

Arizmendi Ikastolako eta Luis Ezeiza eskolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek parte hartu dute. Guztira, 65 ikasle aurkeztu dituzte biografiak eta Ane Zubizarreta Zabala, Goizane Bañares de la

Torre, Peio Lizundia Kortazar eta Zura Gabilondo Saez de la Cuesta izan dira lehiaketako azken edizioako irabazleak. Epaimahaia, berriz, Oskar Loitik, Arantxa Unzuetak, Mari Karmen Arrietak eta Iñaki Agirianok osatu dute.

Magikoa eta hunkigarria

Errota Musika Eskolako kideek eskainitako *Jostailugileak* ipuin musikatuarekin eman zioten sari banaketa ekitaldiari hasiera, Zaldibar antzokian. Jarraian, irabazle bakoitzak idatzitako biografiaren irakurketa egin zuten, norbere aitona edo amonaren aurrean jarrita: "Oso magikoa izan zen une hura, oso hunkigarria. Batek baino gehiagok malkoa ere izan zuten hartan. Horrelako momentuek harremanak egonkortzeko balio dute, pisu emozional handia du horrek".



Indarberrituta, martxan da Aresko campusa

Aste Santuko jaiegunetan hasi eta Pazko asteen amaituko den saskibalo campusean dabilta 9 eta 16 urte bitarteko 38 gaztetxo. Egingo dituzten bi txandetako lehena amaitzean den honetan, balorazio "positiboa" egin dute

Aitor Agiriano Arrese ESKORIATZA

Joan den astelehenean, apirilaren 11n, eman zioten hasiera Eskoriatzako Kirol Elkarteak antolatutako saskibalo campusari. Gaztetxoek saskibaloira gerturatzea eta kirola eginez ondo pasatzea dute helburu Aste Santuko jaiegunetan egiten ari diren campusean.

Edizio berri honetan, 2006 eta 2013 bitartean jaiotako 38 hurrek eman dute izena. "Oso pozik gaude campusean parte hartze- ra animatu den gatetxo kopurua ikusita, benetan pozik. Egia esan, pandemia aurreko zenbakietara bueltatu gara berriz", zehaztu du Zuhaitz Gonzalezek, saskibalo campuseko gidariak.



Aresko campuseko taldea. ZUHAITZ GONZALEZ

Errutinatik kanpo

Aurten, bi txandatan banatuta ari dira egiten, eta lehenengo txanda amaituko dute gaur. Campusera joatera animatu direnak asteen zeharreko entrenamendu saioetako errutinatik ateratzeko aukera izan dute, eta baita saskibaloiarene gaineko kontzeptu eta teknika ugari ikasteko ere.

Horretarako, askotariko ariketak egin dituzte: "Psikomotritate ariketak, banakako teknika, tiroak, paseak eta beste asko landu ditugu; betiere, adi-

naren arabera banatuta. Hori bai, egun guztietako ariketek elkarren artean lotura izan dute eta izango dute. Ni neu eta taldeko bi jokalaritara gara hezitzaile. Oso ondo pasa dute hurrek".

Aurrera begira, indartsu

Pazko asteen jarraituko dute saskibalo campusaren bigarren txanparekin. Zehazki, apirilaren 19an, martitzena, hasi eta apirilaren 22an, egubakoitza, amaituko dute. Orain arte egindako lanaren balorazioaren inguruan

galdetuta, lortutako emaitzarekin oso pozik daudela adierazi du Gonzalezek: "Antolakuntza taldeko kideak oso pozik gaude, eta campusean parte hartzen ari diren gaztetxoek ere gauza bera adierazi digute; oso gustura dabilzala, eta gozatzen. Oso garrantzitsua da hori guretzako. Egia esan, jasotako erantzun positibo honek ematen digu aurrera begira gogotsu lanean jarraitzeko indarra. Energiak betetzen gaitu honek, eta, gure leloak dioten moduan, *Aresko non stop* aurrera!".

'Literatura juntaixe': irakurketa musikatua, herritarren eskutik

Zenbait herritarrek euren gustuko liburuen pasarteak irakurriko dituzte, zuzeneko musikarekin lagundurik

A.A. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Kultura Sailak eta liburutegiak antolatuta, *Literatura juntaixe*-ren hirugarren aldia izango da apirilaren 29an, 18:30ean hasita, Zaldibar antzokian. Liburu eta mokadu

artearen bildurik, irakurketak partekatzeak aukera egongo da.

Aurreko aldietan bezala, Dorleta Kortazar ipuin kontalariak gidatuko du saioa. Ekitaldi xumea izango da eta hainbat eskoriatzarrek gustuko duten li-

buruaren inguruan hitz egingo dute. Hain zuzen ere, zergatik gustatu zaien azalduko dute eta gomendatutako liburu horretako pasarte bat irakurriko dute haiek. Hirugarren aldi honetan, Miren Diaz de Gereñu, Esther Kortazar, Loli Muñoz eta Dorleta Lezeta izango dira parte hartuko duten herritarrek.

Gainera, Beñat Arrietak eta Gari Barandiaranek zuzenean joko duten musikak girotu eta borobilduko du ekitaldia. Sarre- ra doakoa izango da.

LEINTZ GATZAGA | 19

"Nahiz eta bola-jokalari txarrak izan, galtzeko ez dago inor"

JUANITO BENGEOA BOLA-JOKALARIA

Gipuzkoa hiru-txirlo bola-joko txapelketa Gatzagan

Aitor Agiriano Arrese GATZAGA

51. Gipuzkoako hiru-txirlo bola-joko txapelketan parte hartuko du Gatzagak lehenengo aldiz aurten. Juanito Bengoa izango da txapelketan parte hartuko duen herritar bakarra.

Andramaixetan egin izan ohi da bola-jokoa. Oraingoan, baina, maiatzaren 7an egingo da, ezta?

Bai, hala da. Orain dela hiru urte, baina, Bola Jokorako Euskal Federazioa gurekin harremanetan jarri zen ea Leintz Gatzagak, Elgoibar, Markina, Itziar, Eibar eta Bergararekin batera, besteak beste, bola txapelketan parte hartuko lukeen galdetuz; bai guri eta bai Aretxabaletari ere egin zioten txapelketan parte hartze-ko proposamena. Hala, joan den urtean egin genuen horrelako lehenengo jokaldi bat modukoa, txapelketan sartu gabe. Aurten, baina, barruan izango gara eta maiatzaren 7an Gipuzkoako txapelketako bola-jokoa egingo da Gatzagan ere.

Txapelketan parte hartuko duen gatzagar bakarra izango zara.

Leintz Gatzagan bolariak egon badaude eta ni baino hobekak direnak ere bai, baina jendea ez zen animatu eta ni neu animatu nintzen. Bola-joko hau taldeka da, ez da bakarka jokatzen. Orduan, Aretxabaletako eta Untzillako jendearekin taldea osatuta eman nuen izena, eta nahiko ondo gabilta.

Gatzagan bolotan ibiltzeko ohitura aspaldikoa da. Nola dago gaur egun bolatokia?



Juanito Bengoa. IMANOL BELOKI

Aspalditik dator ohitura, bai. Kale inguruan bazegoen lehen ere bolatokia, eta, zaharrei entzunda, baita mendi sailtan ere: Pagoeder inguruan bat, beste bat Hiruerreketa inguruan... Pentsa bolatarako zein zaletasun egongo zen lehen. Gaur egun ere bolatoki ederra daukagu herrian. Beti zaindu izan dugu, baina, Gipuzkoako txapelketan sartuta gaudenez, are gehiago zaintzen dugu orain.

Andramaixetan herritarren arteko pikea egoten da, inguruko herritarrek ere ematen dute izena eta giro ederra egon izan ohi da beti.

Hirurogei bat lagun elkartzen gara, gutxi gorabehera, herriko jaietan. Egia esan, pike handia egoten da, bai; nahiz eta bolari txarrak izan, galtzeko ez dago inor hemen eta denok harrotzen gara pixka bat. Hori bai, giro paregabea izaten da.

Bisita gidatuak Gatz Museoa, bihurtik astelehenera

Apirilaren 14tik 18ra bisita gidatuak egingo dituzte Gatz Museoa: 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Ez da erre- serbarik egin behar izango, baina gomendagarria da aurrez 943 71 47 92 telefono zenbakira deitzea.

Joan den urtearekin alderatuta, bisitari asko espero dituzte. "Jendea gogotsu dago eta

dei asko jaso ditugu bai Aste Santuan eta baita Pazko asteen bisitak egiteko ere; nahiz eta Pazko asteen itxita egongo den museoa", adierazi du Aitor Larrañagak, Gatzagako Gatz Museoko arduradunak.

Hala, berrogeita bost eta hirurogei minutu artean iraungo dute bisita horiek eta Gatzagako iturri gaziaren inguruko aktibitate ekonomikoa ezagutzeko aukera egongo da, gatz nola osatzen den eta nola ekoizten den ikustearekin batera.



Udaleko ordezkarien eta zerbitzuko arduradunen arteko bilera, Ibargarai kalean dagoen zentroan. B.U.

Hasiera "ona" izan du zentro psikosozialak

Bazterkeria, mendetasun edo babesgabatasun arriskuan dauden adingabeak artatzea helburu duen Ibargarai zentroaren lehen sei hilekoaren balorazio positiboa egin dute Udalak eta zentroko arduradunek; ekainetik abendura hamar esku-hartze egin zituzten

Jokin Bereziartua BERGARA

Ibargarai kalean dagoen zerbitzu psikosozial eta psikohezitzailearen "balorazio ona" egin du Udalak. 2021eko ekainaren 1ean jarri zuen martxan zerbitzua, bazterkeria, mendetasun edo babesgabatasun arriskuan dauden adingabeei begira.

Lorrazt enpresari esleitu

Gizarte eta hezkuntza arloan zein arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua birplanteatu ostean, Udalak lehiaketa bidez Lorrazt enpresari esleitu zion Bergaran bazterkeria, mendetasun edo babesgabatasun arriskuan dauden adingabeak artatzeko eskumena. Terapeuta baten eta bi hezitzailearen gidaritzapean, familia-bizikidetzaz hobetzea, familiako kideen arreta eta zaintzarako trebetasunak hobetzea eta autonomiaz moldatzeko aukera erraztea eta ahalbidetzea dira zerbitzuaren helburuak. Urteko kostua 153.400 eurokoa da. Balorazioa egiteko

duela aste bi elkartu ziren Udaleko ordezkariak zerbitzuaren arduradunekin. Besteak beste, jarduneko alkate Ainhoa Lete, Herritarren hatzordeko arduradun-zinegotzi Ekaitz Aranberri, Gizarte Ongizateko zinegotzi Zihortza Marzan eta EAJko bozeramaile Maite Agirre izan ziren zentroa bisitatzen.

Askotariko zerbitzuak

Honako zerbitzu hauek ematen dituzte Bergaran zaintza psikologiari eta hezitzaileari dagokionez: batetik, profesionalei etengabeko formakuntza eskaintzen zaie. Detekzio lana ere egin dute, herriko beharrak identifikatzeko; horretarako, zerbitzua aurkeztu zuten Udalean eta

**2021EKO EKAINEAN
ABIATUTAKO
ZERBITZUAREN
URTEKO KOSTUA
153.400 EUROKOA DA**

herriko hiru ikastetxeetan. Izan ere, ikastetxeekin detekzio-aholkularitza saioak egin dituzte. Prebentzio goiztiarretako aholkularitza eta laguntza teknikoak ere ematen dituzte.

Ekintza prebentiboari lotuta, kasu zehatzetarako esku-hartzeak eskaintzen dira arriskuan dauden adingabeekin eta haien familiarekin, dituzten beharrei erantzuten laguntzeko. Psikohezitzaileei dagokienez, egunero korako tresnak emateko, harremantzeko eta diru-kudeaketan laguntzeko aholkularitza ere eskaintzen dute.

Hamar esku-hartze

Datuei dagokienez, 2021eko ekainetik abendura hamar kasutan egin dituzte esku-hartzeak, eta bi kasu larri Gipuzkoako Diputaziora bideratu dituzte. Guztira, hamabost heldu eta hamaika adin txikiko artatu dituzte; horietatik hamaika emakumezkoak izan dira eta hamabost, gizonezkoak.



Larramendi industrialdeko H partzela, airetik ikusita. GOIENA

Ingurumen Baimen Bateratua jaso du Larramendiko plantak

Jaurlaritzak emandako baimenari errekurtsioa jarriko dio Udalak; enpresak dio "oraingoz" ez duela ezer esateko

J.B. BERGARA

Paper-fabriketako hondakinak tratatzeko Larramendin aurreikusita dagoen plantaren bueltan badago nobedaderik. Izan ere, Udalak apirilaren 8an jaso zuen Jaurlaritzako Ingurumen Iraunkortasunaren sailburuordetzaren partetik Elxeko (Alacant) Valogreene Paper BC enpresari Ingurumen Baimen Bateratua ematen diola jakinarazteko ebazpena. "Udalak azaroaren 22an bidalitako alegazioei ez zaie erantzuten. Alegazioetan, laburbilduz, esaten zen: Plan Orokorraz ez du jasotzen hondakinaren kudeaketarako az-

piegitura erabilera, eta, beraz, ez dago Larramendiko H partzelarako onartuta. Bestetik, hondakinaren kudeaketaren erabilera ere ez da bateragarria, erabilera osagarri bezala onartuta dagoelako, baina ez erabilera nagusi bezala", esan du Udalak, ohar bidez. Jaurlaritzaren idatziak dio ingurumen inpaktuaren adierazpena egin dela eta baimena eman zaiola enpresari "karedun materialaren ekoizpenerako". Ingurumen baimenari errekurtsioa jarriko dio Udalak. Valogreene enpresarengana jo du GOIENAK; diote "oraingoz" ez dutela ezer esateko.

Jaietako txosnak Oxirondon, Zubieta kaleko obregatik

Ekainaren 3tik 7ra ospatuko dira aurten Pentekoste jaietako txosnagunea Oxirondon jarriko dute, Zubieta kaleko lanengatik: "Urtea amaitu arte Zubieta kalea birgaitzeko lanak egiten ari da Udala, eta, ondorioz, ezinezkoa da Bideberri ingurua ibilgailuei ixtea, txosnak bertan, eta segurtasuna bermatuz, jarri ahal izateko. Hainbat kokapen aztertuta, Oxirondo plazako aukera ikusi du Udalak egokien. Hortaz, ekainaren 3tik 7ra egingo diren festetako txosnak bertan muntatuko dituzte. Lekualdatze horrek inguruan bizi diren bizilagunei ahalik eta traba gutxien eragin diezaien neurriak hartuko ditu Udalak".

Euskara lan munduan sustatzeko 'Harixa' ekimena, martxan

Euskara lan munduan sustatzeko *Harixa* egitasmoa abiatu dute Miguel Altunak, Enpresarek, Soraluceak, Errekak, Elayk, Fagor Ederlanek, Lazpiurrek, Ecenarrok, Mondragon taldeak, Jardunek eta Udalak, Emun enpresaren laguntzarekin. Apirilaren 7an egin zuen lan-mahaia bilera eta bertan finkatu ziren ildo nagusiak; maiatzetik aurrera enprekin bilerak egingo dituzte ekimena aurkezteko, eta enpresa bakoitzean lantalde txiki bat osatzea da lehentasuna, enpresa barruko hizkuntza egogaren diagnostikoa egitearekin batera. Ikasleek praktikak edo Duala euskaraz egitea ere bada helburuetako bat.



Irailean martxan egotea aurreikusten den zentro berrituan egokitzapen lan txiki batzuk egin dituzte. JOKIN BEREZIARTUA

Irailean martxan egongo da 'Arin' zentro berritua

Intentsitate baxuko menpekotasun maila duten erretiratuendako eguneko zentroa San Joxepe elkartearen egoitzan irekiko dute; zerbitzu berria kontratazio prozesuan dago eta aurreikuspena da aste barruan hamabi erabiltzailerendako lekua izatea

Jokin Bereziartua BERGARA

San Joxepe erretiratu elkarteak eguneko zentroa irailean jarriko dute martxan berriz; betiere, intentsitate baxuko menpekotasuna duten erabiltzaileei begira. *Arin* izena jarri diote Udalaren zerbitzu berriari, eta, jarduneko alkate Ainhoa Letek zehaztu duenez, une honetan

zerbitzua arautzeko araudia onartzeko prozesuan dago, eta zerbitzuaren kontrataziorako pleguak prestatzen. Bi prozesu hauek amaitua, aurreikusten da zerbitzua irailetik aurrera zabaltzea. "Gizartea zahartzen doan heinean, gero eta premia handiagoa dago halako zentrotarako. Bizitza normala egin

ahal izatetik eta intentsitate altuko eguneko zentro batera arteko trantsizioan gero eta urte gehiago igarotzen dira; premia berriak ere areagotzen joango dira", gaineratu du Letek.

Askotariko helburuak

Askotariko helburuak bete nahi dituzte zerbitzu berriarekin.

Batetik, adineko pertsona zaurgarrien autonomiari eustea, beren ohiko ingurunean mantentzen eta gizarteratzen laguntzea, eta, hala badagokio, isolamendu-egoerak konpentsatzea; beste aukera bat eskaintzea harremanak behar dituzten eta normalean bakarrik edo lan egiten duten senideekin bizi diren adineko autonomoei; nagusientzako harrera, aisialdi eta bizikidetzaz-zerbitzua eskaintzea, prebentzio-jarduerekin, arreta pertsonalizatuekin eta jolas-jarduerekin, oinarrizko helburua bizi-kalitatea hobetzea izanik. Helburu horiei begira, honako zerbitzu hauek aurreikusten dira: estimulazioa eta errehabilitazioa lantzekoak; hezkuntzari, kulturari eta aisialdi lotutako jarduerak; edo gizarte-harremanak edota harreman pertsonalak izateko edo ezartzeko trebetasunak eskuratzeko eta harremanak ezartzeko aukerak sortzeko laguntza.

Gehienez, hamabi lagun

San Joxeperen elkartearen egokitu dute zentroa, baina, taldeen osaketaren arabera beharra balego, beste guneren baten ere zerbitzua eskaintzeko aukera egongo litzateke. Zerbitzua astelehenean egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eskainiko da, jaiegunetan eta oporraldietan izan ezik. Hala ere, egutegia jarduera mota bakoitzean izena emanda dauden pertsonen ego-

kitzeko aukera egon daiteke. Udalaren araudian jasotzen denez, gutxienez hiru lagun eta gehienez hamabi artatuko lirateke San Joxepeko zentro berrituan. "Hori bai, lehen eskaintzan gutxieneko hiru laguneko kopuru hori ez dugu aintzat hartuko", argitu du Letek.

Bete beharreko baldintzak

Arin eguneko zentroko erabiltzaile izateko baldintzak honako hauek izango dira: 65 urtetik gorako pertsonak, menpekotasun-arriskuan edo egoeran daudenak –lehen mailakoa, mendekotasun balorazioan 25 eta 39 puntu artean lortu dituztenak–; menpekotasuna aitortu gabeko adinekoak edo 25 puntutik beherako puntuazioa dutenak –menpekotasun balorazioan, 75 urtetik gorakoak, hauskortasun-egoeran daudenak–; eta isolamendua, bakardadea, abandonua edo tratu desegokia jasateko arriskuan edo egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak. Erabiltzaileak zerbitzuagatik ordainduko duen kopurua bizi duen egoera ekonomikoaren arabera finkatuko da, eta hilean 5 euro eta 60 euro artekoa izango da.

HILEAN 5 ETA 60 EURO ARTEAN ORDAINDUKO DA, ERABILTZAILEREN EGOERAREN ARABERA



NDANK NDANK

Dionewar eta Bergara, oso gertu

Kulturartekotasuna eta elkarbizitza sustatu nahian, azaroan lau gazte senegaldar izan ziren Bergaran, eta orain, bisita itzultzeko txanda heldu da. Ndank Ndanken eskutik, Bergarako eta inguruko herrietako lagun talde bat Senegalgo Dionewar herrian dago astelehena ezker;

domekan zegoen aurreikusita hegaldia, baina, bertan behera geratu zenez, astelehenean bidaiatu zuten –goiko argazkia Madrilan ateratu zuten–. Bidaizko parte dira Jokin Oregi *Sor2* eta Mikel Larrañaga *Remak* ilustratzaileak; mural bat egingo dute han, eta gero, beste bat hemen.

OHARRAK

Udaberriko oporraldirako eskaintza zabala

Aste Santuan eta Pazko astean Bergara monumentala, laborategi historikoak, Laboratorio museo eta Dolmenen Ibilbidea bisitatzeko aukera eskainiko dute (Ikus 2. orria): 943 76 90 03.

Ikastaroak seminarioan Pazko astean

6 urtetik gorakoendako bi saio egingo dituzte. Apirilaren 20an, Izedarren eskutik eskulan ikastaroa (11:00); apirilaren 22an, Camden Town akademiaren eskutik, dantza ikastaroa (11:00). Izen-ematea: www.bergara.eus –plaza mugatuak–.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera

Ekainaren 30erako aurkeztu behar dira aitortpenak; hitzordua eskatzeko eta argibideetarako: 943 11 30 00, Bergarako Ogasuneko Bulegoa –Toki Eder 5– edota www.gipuzkoa.eus.

Ehundu: eraldaketara begirako saioak

Maiatzaren 17an, ekonomia feministaren eta zaintzaren gaineko saioa gidatuko du Emagineko Miren Aranguren; eta ekainaren 14an, talde kudeaketaz, antolaketaz eta parte-hartze inklusiborako tresnez arituko dira, Farapiko Nerea Eliasen eskutik. Izena emateko: ehundu@ehundu.eus.



Ibargarai kaleko eta Seminarioko patioiko abelburuek gaztetxoenen arreta piztu zuten. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO ETA JOKIN BEREZIARTUA



Mari Karmen Etxeberriaren postua.



Talogileek lana lepo izan zuten.



Ume bi eurek egindako kandleekin.



Zapatagilea, San Martin plazan.

Erramu Zapatuko feria indartsu bueltatu da, eta Itzulia ere batu da festara

Bi urteko etenaren ostean, ohiko eran bueltatu da bergararrendako horren kutuna den udaberriko azoka, eta jende asko elkartu zen ferriako gune esanguratsuenetan; Euskal Herriko Itzulia ere herri barrutik pasatzeak kaleko giroa are gehiago berotu zuen

Jokin Bereziartua BERGARA
Erramu Zapatuak utzi dituen irudiak ikusteak besterik ez dago COVID-19ak eragindako murrizketen garaia gainditu dela ondorioztatzeko. Egitarauan izan ziren ohiko Erramu Zapatu baten ka-

lerik egingo ez luketen ekitaldiak, Txapa Irratiak antolatutako herri bazkaria eta Jardunen txorimalo lehiaketa, kasu, eta 2023an ekitaldiok antolatzeko asmoa agertu dute antolatzailuek. Tartera euria egin bazuen ere, ez

zuen eguna zapuztu; Oxirondon, San Martin plazan eta Seminarioan jendetza elkartu zen goizean zehar, eta baita 16:00 bueltan ere, ziklismoko Euskal Herriko Itzulia Gorlan behera zihoala herriko kaleak zeharkatu zituen eta.



Oxirondoko plazak pandemia aurreko irudiak utzi zituen.



Gesaltza txarangak ederto girotu zituen herriko kaleak.



Euskal Herriko Itzulia, Bideberrin barrena, zapatu arratsaldean.



Hainbat herritarrek egin zuten bat Aiko taldearen *Dantza-jira* ekitaldiarekin, Fraiskozuri plazan.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez goienakide!

goiena[“]
kide



www.goiena.eus/kideak





Amaia Arroyo, pantailen erabileraz, Torresoroan. M.A.

Pantailen erabilera arduratsua sustatzen

Hurrek egiten duten pantailen erabilera kezka iturri bilakatu da azkenaldia, baita Antzuolako Herri Eskolako irakasleen eta gurasoen artean ere. Horregatik, Amaia Arroyo Sagasta hezitzaile digitala izan dute bidelagun saio ezberdinen bitartez

Maidar Arregi ANTZUOLA

Hurrek egiten duten pantailen erabilera kezka iturri bilakatu da. Eta Antzuolako hezkuntza komunitatea ere arduratuta dago. Hala, Pausoka guraso elkarteak antolatuta, Amaia Arroyo hezitzaile digitalak hainbat gako eman ditu bi saiotan. Izan ere, bai gurasoak eta baita irakasleak ere bat datoz:

pandemiak pantailen erabilera areagotu egin du, eta erabilera arduratsuen aldeko hautua egitea nahitaezkoa da.

Lehenik eta behin, erabilera ganean hausnartu behar dela dio Arroyok, eta erabilera ona bultzatzeko bidelaguntza eskaini: "Gure lasaitasunerako, pantaila aurrean bakarrik uzten ditugu, maiz, haurrak; bai-

na, modu gradual batean, pantailen munduan sartzeko laguntza behar dute. Hala, ikuspegi kritikoa landu behar dugu, pixkanaka, eurekin".

Jarraibideak

Haurraren autonomia eta konfiantza lortzeko hainbat etapatan zein jarraibide progresibo izan beharko lirartekeen azaldu du:

"0 eta 3 urte arte, ahalik eta pantaila gutxien gomendatzen dute; 6ra arte, euren gailu propiorik ez edukitzea eta beti lagunduta erabiltzea; 6tik 9ra, berriz, espazio irekietan erabili ahal dituzte gailuak, betiere, laguntzarekin; eta 9tik 12ra bitartean, autonomia pixka bat utzi diezaiekegu. 12tik aurrera, lan ona egin dugula ikusita, autonomia utzi behar zaie".

Errudun sentitzea

Hain zuzen, solasaldian guraso askoren artean sortutako sentimendua kulparena izan da. Arroyok momentu eta familia guztiak ezberdinak direla deritzo: "Epaiketa zein errudun sentazioa ahaztu egin behar dugu; une guztietan ez gaude berdin; ezta familiak eta testuinguruak ere. Gainera, pantailen erabilera, batzuetan, baliagarria

da, eta zilegitasun hori ere eman behar zaio".

Komunitatearen elkarlana

Etxean ez ezik, eskola eremuan ere pantailen erabilera geroz eta handiago da, eta hor desorekak sortzen direla ere badio Arroyok: "Hezkuntza komunitate moduan ulertu behar dugu; zerbait elkarrekin sustatu behar dugu eta oreka bilatu pantailen esposizioa neurrigabea izan ez dadin. Haur Hezkuntzan, esaterako, etxean pantailak asko erabiltzen dira; ez, aldiz, eskolan eremuan".

PANTAILAK ARDURAZ ERABIL DITZATEN, BIDEAGUNTZA ESKAINI BEHAR ZAIE HAURREI

Tirolina itxita dago, oraingoz

Antzuolako Udalak gogoraz du tirolina jarrita dagoen arren gunea itxita dagoela erabiltzaileendako; horrenbestez, oraingoz ezin dela erabili gogora ekarri nahi izan du kaleratu duen ohar baten bidez. Azken ukituak ematea falta da; besteak beste, ingurua txukuntzea. Hain zuzen ere, segurtasun guztiak bermatuta, laster irekiko dutela gaineratu dute.




M.A.

Olaran etxeko atek herritarrei zabalduko dizkiete gaur

Zertxobait atzeratu den arren, azkenik, gaur 18:30ean inauguratuko dute Olaran etxea. Garbiketa lanak egin dituzte, eta jada prest dago kultura etxea berriro herriko eragileak eta antzuolarrak jasotzeko. Hainbat lan irisgarri egin dituzte erakinean; tartean, igogailua jarri dute eta gela zabalagoak eta eroasoak eraiki dituzte.

Gurasoak eta irakasleak, arduratuta



ASIER INTXAUSTI
PAUSOKAKO KIDEA

"Guraso elkartera kezka iritsi ziztaigun, eta pantailen erabileraren inguruko bi solasaldi antolatu ditugu. Alaba bat daukat, eta haserreak ere izan ohi dira pantailen harira; horregatik, Amaia Arroyok dioen moduan, gurasook ardura hartu behar dugu eta pantailen erabilera neurtu".



JOSUNE JIMENEZ
IRAKASLEA

"Hurrek jolasean darabilten hizkuntza, jolasteko modua zein harremantzekoan igarri dugu pantailen erabilera. Haurrari ezer jarri aurretik, ikusita eta landuta egon behar du. Erabilera normala da, baina erabilera arduratsua egin behar da, eta etxean eta eskolan landu".

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Martin Elorza elgetarrari, 'beneragarri' izendapena

Limako Arantzazu Euzko Etxeak jakinarazi berri du 'beneragarri' izendatuko dutela Azula etxeko elizgizon eta misiolari elgetarra. 1966an hil zen Elorza, Liman. Hain zuzen ere, Eliza Katolikoak zabalik du haren beatifikazio prozesua

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako Azula baserrian jaio zen Martin Elorza Legaristi, 1899ko abenduaren 30ean. 12 urte zituela sartu zen pasiotarren kongregazioak Gabirian zuen apaizgaiantzako ikastetxean, eta, ordutik aurrera, Eliza Katolikoaren baitan egin zuen ibilbidea.

Elorzak *beneragarri* izendapena jasoko duela eman du adizteraz Limako Arantzazu Euzko Etxeak. Kanonizazioaren bidean beste urrats bat da; izan ere, Eliza Katolikoak zabalik du elgetarraren beatifikazio prozesua. 2004ko urriaren 18an aurkeztu zuten kanonizazioaren kausa, Erroman.

Pasiotarren kongregazioko kidea, Peruko Amazonian misiolaria eta Peru iparraldean dagoen Moyobamba departamenduko gotzaina izan zen elgetarra. Haren biografoek diote gizarte lan sakona egin zuela Amazonian; bereziki, heziketa



Martin Elorza elgetarra. PASIOTARRREN KONGREGAZIOA

arloan. Kudeaketarako gaitasun berezia zuela jaso dute, eta baita baldintzarik okerrenetan ere zernahi ekintza modu eraginkorrean aurrera eramateko gaitasuna zuela. Aipamen berezia egiten dio Manolo Cainzosek

Elgetarrak historian izeneko liburuan.

Elgetako kristau komunitateak behin baino gehiagotan izan du gogoan Elorza. Haren omenezko irudi bat dago Elgetako Andra Mari plazan.

Plazako etxebizitza errefuxiatu ukrainarrei harrera egiteko

Sei hilabeteko epealdi baterako eskainiko du Udalak Eusko Jaurlaritzaren Lehen Kontingentzia Planerako

L.Z.L. ELGETA

EAJ-ren proposamena aintzat hartuta Ukrainako errefuxiatuei harrera egiteko eskainiko du Udalak Mendizaleen Plazako etxebizitza. Martxoaren 30eko ez ohiko bilkuran onartu zen.

Egitasmoarekin ados egonda ere udalbatza osatzen duten bi alderdi politikoak ez ziren ados jarri mozio bateratu bat onartzeko. EH Bilduko ordezkariak ez zuten EAJ-k aurkeztutako mozia bere horretan onartu, eta bigarren bat jarri zuten mahai gainean. EH Bilduren mozioan

"inbasioa", "Putin" eta Europar Batasunaren neurrien garrantzia esplizituki agertzea nahi zuten jeltzaleek.

Ez zen akordiorik egon. Jeltzaleen mozioak aldeko hiru boto eta kontrako sei jaso zituen; EH Bilduren mozioak aldeko sei eta kontrako hiru. Hala, etxebizitza errefuxiatuei harrera egitera bideratuko da. Jeltzaleek eskatu zuten urtebeteko lagapena egiteko, eta ez sei hilabetekoa. EH Bilduko ordezkariak esan zuten egoeraren arabera aztertuko dela luzapena.



O.E.T.

Hamazazpi urte Peruko Amazonian

Gabiriako apaizgaiantzako ikastetxean hasi zuen ibilbide erlijiosoa Elorzak, 1912an, eta, hamabi urte geroago, bertako zuzendari izendatu zuten. Denen moduan, garai latzak bizi izan zituen gerra urteetan, baina egokitu zitzaion, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak Deustuko komentuan jarritako osasun ospitalea kudeatzea. Babesleku garrantzitsua izan zen bai sukar tifoideak jotako gaixoendako bai ihesi heldutako hainbat lagunendako.

Gerra amaituta, bi aldiz jaso zuen Probintziako Nagusi kargua, eta, denborarekin, pasiotarren Amerikako -Peru eta Kolonia- ordezkari izendatu zuten.



Elorza, bi elizgizon lagun dituela, 1964an, Perun. PASIOTARRREN KONGREGAZIOA

Moyobamba (Peru) 1949an izendatu zuten Elorza Moyobambako eliza-prelaturako administratzaile. Departamendu oso pobrea zen, garraio biderik gabekoa eta garatu gabeko

nekazarizatik elikatzen zena. Bertan hamazazpi urtez egindako lana goraiatzeko diote Elorzari; bereziki, hezkuntza alorrean. 1954an kantsakratu zuten apezpiku.

Eskolako umeen Korrika Txikia

Korrika ez da oraingo honetan ere Elgetatik igaro, baina, Herri Korrika dela zein eskolako kideek egindako Korrika Txikia dela, euskararen aldeko lasterketak ikusgarritasuna izan du herrian. Barikuan egin zuten Korrika Txikia eskolako ikasleek eta irakasleek. Lekukoa eskutik eskura ibili zen, eta Kultura Asteari amaiera emateko ekitaldi polita izan zen.

Ugarteburu, jaun eta jabe

Badirudi Oier Ugarteburu eibartarrak ez duela aurkaririk, oraingoz, Gipuzkoako 51. hiru-txirlo bola txapelketan. Aste bukaeran Elgetan jokaturako bi tiraldien ostean, Asola-Berriko bolaria da nagusi sailkapenean. Bost txirlo jo zituen Ugarteburuk, lau jo zituen Sorluzeko Jose Antonio Nuñezek eta hiru Mikel Almorza bergararrak. Ekainean amaituko da txapelketa.



IMANOL SORIANO



Otadui zuhaitziko guneetan egin dituzte dagoeneko aldaketak. O.E.

Hondakinen esekitokiak egokitzen ari dira

Etzeko hondakinen ontziak eskegitzen diren guneak egokitzen ari da Mankomunitatea Oñatin, Udalarekin batera. Esekitekietako beheko lerroak kentzen ari dira, erosoago izan dadin ontziak uztea eta hondakinak lurtean uzteko ohiturari trabak jartzeko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Haizete handiko egunetan edukiontzia tokitik atera eta airean eramatea konpondu guran hasi zen Oñatiko Udala hondakinen esekitekietan aldaketak egiten, duela urte batzuk. Orain, aldaketa horiek hobetzen ari da Mankomunitatearekin, behealdean dauden erabiltzaileek azaldu dituzten arazoak ere konpontzeko asmoz eta, era berean, lurteko txukuntasuna hobetzeko helburuarekin.

Ehunetik gora gune

Haize boladari eusteko, gako edo hagindun pieza borobil batzuk ari ziren jartzen, ontzia han ondo kateatzeko. Babesak ere jarri zituzten hainbat guneetan; tiki haizetsuetan eta erreka ondoan daudenetan, esaterako, ontzietako zikina errekaratu heldu ez dadin. Eta neurri horiek jarraituko dute aurrerantzean ere. Horrez gain, baina, eta Antzuolan egin dutena adibide hartuta, zintzilikarioen

beheko lerroko ontziak uzteko tokia kentzen ari dira; zinta batekin tapatu dituzte Mankomunitateak. Hondakinak uztea erosoago izatea da aldaketa horrekin lotu gura duten helburuetako bat, eta beste bat, hondakinak lurtean uzteko ohitura kentzea herritarrei.

Ehunetik gora gune daude Oñatin etzeko hondakinak uzteko, eta bakoitzean hainbat zintzilikario. Kendutakoak, beheko lerrokoak, poste bereko goiko aldean edo tokian tokiko aukerak ikusita ari dira irtenbideak jartzen. Aldaketak egiten zaizkien herritarrei atarian oharra jarrita jakinarazten zaie aurrerantzean zein esekitoki berri erabili behar duten. Aste-

MANKOMUNITATEKO ZINTA BATEKIN TAPATUKO DITUZTE ZINTZILIKARIOETAKO BEHEKO LERROAK

ro batzen dira Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariak aldaketa hauei buruz berba egiteko. Kale bakoitzeko gune bakoitzerako ze proposatzen duten adierazten dute Mankomunitateko teknikariek, eta Udalekoekin adostu. Otadui zuhaitziko guneetan, esaterako, egin dituzte aldaketak.

Eskuorria

Hondakinak lurtean uzteko ohitura zabaldu egin dela ere konturatu dira udal ordezkariak, gune batzuetan, batez ere, eta ikuskaritzak gehitzeko eskatu diote Mankomunitateari, eta guneen egoerei jarraipena egiteko. Hala, intzidentziak jasotzen dituzte Mankomunitateko langileek eta oharrak utzi bai ontzia egun askotan jaso gabe duenari eta baita kuboa edo plastikoak lurtean uzten dituenari ere.

Apirilean eskuorri bat banatuko du Mankomunitateak etxetxe, hondakinen inguruko informazioarekin.

Udal zerbitzuen ordutegia aldatuko da datozen egunetan

Aste Santuko jaiegunak datoz eta udal zerbitzuetako ordutegiak beste batzuk izango dira egun horietan. Zubikoa kiroldegia eta Herritarren Arreta Zerbitzua, esaterako, itxita egongo dira eguenean, egubakoitzean eta astelehenean. Zapatuan eta domekan, berriz, ohiko ordutegia izango dute. Udal liburutegia, aldiz, itxita egongo da datozen bost egunetan eta zabalik, ohiko ordutegiarekin, Pazko astean. Kontrara, zinema egongo da asteburuan. Eguenean zineklubik ez, baina asteburuko zinema bai; nagusien filma, *El método Williams*, 19:30an izango da, eta domekan 22:00etan ere bai. Umeena, *Orkestra lurtarra*, 17:00etan.

Arregiri hirugarren gradua ukatzea salatu du Etxerat-ek

Haserre eta gaitzespena adierazi ditu Etxerat-ek, Joseba Arregi presoari hirugarren gradua kendu diotelako eta bigarrenera pasatu dutelako. Otsailean Martuteneko tratamendu-batzordeak hirugarrenera pasatzea proposatu eta Jaurlaritzak onartuta, Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskaltzak helegitea jarri zuen, eta bigarrenera bueltatu da.

Udal dirulaguntzak aurten ere enpresa berriak sortzeko

2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitartean alta ematen duten enpresa berriendako dirulaguntzak emango ditu Oñatiko Udalak aurten ere. Gainera, merkataritza lokalen alokairuentzako laguntza lerroa sortu da eta emakume sustatzailerak ere bereziki babestuko dira. 25.000 euroko partida dago enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzetarako eta bateragarriak dira Aldundiak, Lanbideak eta Jaurlaritzak ematen dituenekin. Eskaerak egiteko epea dagoeneko zabalik dago, azaroaren 30era arte. Informazio guztia Udalaren Sozioekonomia Sailean eskatu edo udal webgunean kontsultatu daiteke.

OHARRAK

Gorbeira irteera

Gorbeira izango da mendi irteera apirilaren 24an; Araba aldetik igoko dira. Izena emateko azken eguna hilaren 21a da.

Erretiratuak, Baionara

Baionako Euskal Museoa eta Sarako leizeak ikustera doaz Pake Lekutik hilaren 29an. 25ean, toki biei buruzko hitzaldia egongo da egoitzan.



O.E.

Arrapalak Otadui zuhaitzian

Bi arrapala egin dituzte Otadui zuhaitzian, irisgarritasuna bermatzeko. Udal brigadako langileak ibili dira lan horiek egiten, duela aste pare bukatu zituzten arrapalak, eta, joan den astetik, heldulekuak jarri zituztenetik, erabiltzeko moduan daude. Argiteria hobetzeko lanekin ere ari dira; Oلابarrietan bukatu dituzte eta Bidebarrietan hasiko dira laster.

Beteranoen txapelketako finalak, hilaren 23an

Herriko futbol txapelketako finalak apirilaren 23an jokatuko dituzte, Azkoagainen, arratsaldean. Albok eta Tutelatranku taldeek jokatuko dute kopako finala, eta Mazedonia eta Iturritxo taldeen artean erabakiko da ligako txapelduna

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Heldu da denboraldi amaierara herriko futbol txapelketa. Hurrengo astean, apirilaren 23an, jokatuko dituzte finalak, Azkoagainen. Ohikoa den moduan, kopakoa lehenengo eta ligakoa segidan. Bigarrena bukatutakoan egingo dute urteroko sari banaketa.

Sari banaketa

Urriari hasi zuten herriko hamar taldek aurtengo denboraldia, eta hurrengo astean amaituko dute. Albok eta Tutelatranku taldeek lehiatuko dute apirilaren 23an aurtengo kopa, eta ligako finala, berriz, Macedoniak eta Iturritxok jokatuko dute; 15:30ean hasiko da lehen partidua eta 17:00etan bigarrena. Azkoagainen izango dira finaleko partidu biak eta ondoren egingo dute sari banaketa. Talde irabazleak ez ezik, denboraldiko golegile eta atezain onenak ere sarituko dituzte, besteak beste. Aurten ere, herriko hainbat komertzio eta negoziok emandako diru-sari edo produktuak emango dituzte sari banaketa horretan eta guztiei eskerrak eman gura dizkie zuzendaritza taldeak lerro hauen bitartez.

Denek elkarren aurka jokatu beharrean, bi taldetan banatu dute lehen fasea eta bakoitzeko



Aurtengo denboraldiko partidu bat, Azkoagainen. GOIENA

hiru onenek jokatu dute, bigarrenean, ligako finala, eta kopakoa beste laurak. Horrela antolatuko dute aurtengo denboraldia, eta hilaren 23ko finaleko partiduak jokatuta bukatuko da.

Balorazio positiboa

Denboraldiko balorazioa egiteko eskatuta, pozik daude antolatzailerak. Diote pandemiatik bueltako liga positiboa izan dela, eta, hasieran gorabehera batzuk egon baziren ere, ez zirela arazo izan eta partidu guztiak jo-

katu dituztela. Baikorrek dira hurrengo denboraldiari begira, eta Oñatiko futbol txapelketak jarraipena izango duela diote. Aloña Mendirekin izandako harremana ere ona izan dela aitortu dute. Izan ere, harekin adostu behar izan dituzte partiduen egunak eta orduak, Azkoagaingo beste hitzorduak ez zapaltzeko. Finaletarako ere horrela izan da; aurreko asteburuan Azkoagainen partidu asko zeudela ikusita erabaki zuten Aste Santuko oporren bueltarako uztera.

Zinegoak jaialdiko filmak eskainiko dituzte hilaren 27an

Bilboko LGTBI Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko (Zinegoak) sei film labur proiektatuko dituzte, jatorrizko hizkuntzan, zinema aretoan, hilaren 27an, eguaztena, aurten ere bat egin du-eta Oñatiko Udalak jaialdi honekin. Hauek dira lanak: Katherine Martinearen *Les filles ne marchent pas seules la nuit* ikus-entzunezkoa; Paloma Orlandinoren *Ob Secena*; Albert Carboren *Elsa*; Shaleece Haasen *To the Future, With Love* animaziozkoa lana; Maider Garciaren *No deberías*; eta Aitor Gametxoren *Berak baleki*. Proiektzioen emanaldia apirilaren 27an da, 18:30ean, Udaleko Berdintasun Sailak eskainita.

Komiki saio eta ipuin kontaketa bereziak hileko azken astean

Liburuaren Nazioarteko Egunaren baitan, komiki saio eta ipuin kontaketa bereziak egongo dira apirilako azken astean kultura etxean, udal liburutegiak antolatuta. Hilaren 26an, hain zuzen ere, Paco Rocaren *La casa* eta *Regreso al edén* liburuak aztertuko dituzte, Kike Infamaren gidaritzapean; 18:30ean hasiko da saioa.

Maite Arrese aktore eta ipuin kontalaria, berriz, Yogipuinak izeneko saioa egingo du apirilaren 28an, 18:00etan, 6 urtetik gorako umeendako; yogako eza-gutza txikiak eta ipuinak uzartuko ditu. Saiora joateko izena hilaren 19tik aurrera eman behar da, haurren liburutegian.

GORA ETA BEHERA




San Lorentzoko salto-saltoan, zikina pilatzen

San Lorentzoko salto-salto gero eta puskatuagoa eta zikinagoa dagoela dio irakurle batek: "Zinta batekin korapilo bat eginda egon da. Barruko zabor kantitatea ere lotsagarria da. Ez da lehen aldia arratoiak sartzen direla azpira. Umeen parkeen garbiketa sakondu beharko litzateke".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.





Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Bereziki, irudikoa moduko formula txikiendako da arriskutsua errepidea dagoen moduan egonda lasterketa egitea. GOIENA

Ez dute Gorlako Igoera beldurrez antolatu nahi

AUTOMOBILISMOA Errepidearen "egoera tamalgarriak" bultzatuta, Bergarako Gorla Racing taldeak erabaki zaila hartu du: maiatzaren 28an egitekoak ziren lasterketa bertan behera utzi dute. "Errepidea leku askotan hondoratuta dago", dio Xabier Zabaletak

Xabier Urtzelai BERGARA

"Ez da erabaki erraza izan, baina ez dugu lasterketako eguna beldurrez pasa nahi. Baldintza hauetan ez dugu Gorlako Igoera antolatuko". Gorla Racing taldeko Xabier Zabaletak GOIENARI egindako adierazpenak dira. "Bi urteko hutsunearen ondoren, lasterketa antolatzeko gogoz geunden. Azkeneko edizioa 2019an egin genuen, eta ordurako Gorlarako errepidea [GI-3750] ez zegoen batere ondo. Esaterako, Ugarrixa merenderoa baino apur bat lehenago dagoen bihurtunean 2-3 automobil zuzen joan ziren, hor asfalto hondoratuta dagoelako, eta istripua izan zuten. Kontua da, baina, iazko azaroan izandako euriteen ondorioz zenbait luizi izan zirela mendateko hainbat puntutan, bereziki, paelletan, eta hor ere errepidea oso hondoratuta geratu da. Baldintza horietan ez dago igoera bat antolatzetik. Rally bat izango balitz, tira... Baina igoera bat ezin da horre-

la egin; besteak beste, formula txikiak hor ezin dira ibili".

Zabaletak aitortu du aspaldi dabiltzala Udalarekin hartu-emanetan, baina konponbidea ez dela berehalakoan iritsiko: "Alkateari mendatea gurekin batera ikuskatzera etortzeko eskatu genion, eta hala egin zuen. Puntu ezberdinak errepasatu genituen harekin, eta aitortu zigun uste zuena baino okerrago zegoela. Diputaziokoek ere badakite zelan dagoen mendatea, baina, Foru Aldundiaren ustez, mendatea "erabilgarri" dago. Nik ulertzen dut errepideak ez direla egiten lasterketak antolatzeko, baina auzokideendako ere ez dago errepidea batere ondo.

MAIATZAREN 28AN EGITEKOAK ZIREN GORLAKO IGOERA BERTAN BEHERA UTZI DUTE ANTOLATZAILEEK

Antolatzaileek lasterketa Angiozarko mendatera pasatzea ere aztertu dute, ez litzateke lehenengo aldia izango. "Baina ez du merezi, hura ere ez dago ondo, eta, bere egunean, Gorlan segurtasun neurriak hartu genituen; esaterako, bazter-babes bikoitza jarri genuen puntu arriskutsuetan. Angiozarren ez dago halakorik. Eta pilotuek Gorlan lehiatu nahi dute".

Bost igoera geratuko dira

Horrenbestez, igoera historikoenetako bat antolatzeko geratuko da aurten ere, eta oraingoan ez da koronabirusagatik izango. Hala, igoeren egutegia bost lasterketetara pasako da. Zaleek ekainaren 9ra arte itxaron behar dute Jatako igoeraz gozatzeko, eta udako oporren ondoren etorriko dira Sollubeko igoera, Jaizkibelgoa eta Urrakikoa. Debagoienean, Eskoriatzako -uztailak 16- eta Aramaioko -irailak 10- rallysprintek osatuko dute automobilismo egutegia.



Oñatiko pilotariak, Herri Artekoan, artxiboko irudi batean. GOIENA

Aretxabaleta, Oñati eta Bergara Herri Artekoan izango dira

PILOTA Maiatzaren 15ean hasiko dira bailarakoak, ez dute final-hamaseirenetako partidua jokatu

X.U. ARRASATE

Gipuzkoako hamazazpi herri izango dira klub mailan horren maitatua den Herri Arteko Txapelketan. Maiatzaren 1eko aste-buruan hasiko dituzte final-hamaseirenetako kanporaketak, baina Debagoienekoek aurrerago hasiko dute torneoa.

Aretxabaletak, etxean

Bergarak, Aretxabaletak eta Oñatik final-zortzirenetan hasiko dute txapelketa, Idiazabalek eta Andoaínek soilik jokatu dute final-hamaseirenetako kanporaketa. Hala, maiatzaren 15eko

aste-buruan Aretxabaleta izango da kanporaketa etxean hasiko duen bakarra. Aretxabaletarrek Hernani izango dute aurrean. Eta joanekoa etxetik kanpora jokatu duten oñatiarrek amezketarren kontra neurtuko dituzte indarrak eta bergararrek Azkoitira egin beharko dute bidaia. Ez dira kanporaketa errazak, inondik inora. Esaterako, datu historikoei erreparatuta, Azkoitiak jantzi ditu txapel gehien eskuzko txapelketan: hamasei, hain zuzen ere. Azken edizioa, berriz, azpeitiarrak irabazi zuten.



IMANOL SORIANO

Faboritoez markak ondu dituzte

2020ko udaberrian, koronabirusaren konfinamenduak bete-betean harrapatu zuen Arrasate-Udalatz lasterketa, eta domekan Mondraitzeko lagunek gogoz hartu zuten hitzordua. Errekorrak ondu zituzten Gontzal Murgoiatik (1.47.37) eta Onditz Iturbek (2.11.06). Haritz Kortabarria eta Ane Zabala izan ziren arrasatear onenak.

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI

Final gogorraren ondorenak erasanda-edo, txapelkunak ez zuen partidu ona jokatu Oñatin, eta 8-22 galdu zuen, Rezustarekin, Irribarriaren eta Zabaletaren kontra: "Giro ederra zegoen frontoian, eta pena dut; maila kaskarra eman dut, baina, tira, beti ezin da, besteek asko jokatu dute eta erraz irabazi digute".

Altuna zaitugu bigarren abizenek ere. Askok ez dute jakingo sortzetik beretik pilotarekiko lotura eragin dizun osaba erremontistekiko ahaidetasuna amaren aldekoa dela.

Hori da, bai; osabak, Imanol eta Garikoitz, erremontistak izan ziren. Askok uste dute aitaren aldetik datorkidala lotura, baina ez.

Eta zeu ibili izan zinen erremontea-ekin?

Bai, nahikotxo ibili nintzen, 14 bat urtera arte. Asko gustatzen zait. Orain ere joaten naiz ikustera, eta gustatzen zait erremontean ibiltzea.

Baina, bere garaian, eskuaren aldeko apustua.

Bai; adin batera iristean, aukeratu egin behar da bat edo bestea. Hala aukeratu genuen, eta gustura.

Azken txapelketan bikotekide izan duzun Martijaren pianorako abilitadea ezaguna da; piano jolea duzu ama ere, eta pilotan, agian, ez, baina zu pilota eskolakoekin hasi izanak ba omen du loturarik zure amak ematen zituen klaseekin.

Toki berean ibiltzen ginen. Bera goian, klaseak ematen, eta ni behean, pilotan. Eta bai, berez, nire adinekoak baino zaharxeagoak zebiltzan orduan; Xaltonek [Zabala], entrenatzaileak, gazte-gaztetatik han ikusten ninduen, eta goiz hasi nintzen entrenatzen, bai. Beti hantxe sartuta; entrenatu, eta amagana, merienda hartzera. Frontoian ordu asko sartutakoa naiz, bai; baina ni eta beste pilotariak, denak berdin.

Orain ere ibiliko dira umeak pilotan Amezketan. Ez dakit jarraitzen dituzun, edo joaten zaren edo...

Bai; astean behin joaten naiz, astearteetan, umeekin egotera. Ahal dudanean joaten naiz, gustuko dudalako umeekin egotea, eta eurei, ahal dudana gauzetan, animatzeko.

Haiek ikusten dituzunean, ikusten al duzu Jokin haiengan islatuta edo zaila da Jokinek umetatik izan duen pilotarako gogo eta grina horiek edukitzea?

"Buruz burukoa, ligaxkarekin, oso-oso gogorra izango da"

JOKIN ALTUNA PILOTARIA

PILOTA Martijarekin batera binakako txapela jantzi eta astebetara, Oñatin jardun zuen domekan Amezketakoak, Zubikoa pilotalekuko harmailak goraino beteta zirela



Jokin Altuna, domekan, Oñatin. IMANOL SORIANO

Batzuei ikusten diet afizio handia dutela. Entrenamenduetan ez ezik, herrian ere askotan ikusten ditut pilotan. Beste batzuei gehixeago kostatzen zaie. Hori betikoa da, kirol guztietan gertatzen da.

Ba al dakizu zeinen kontra tokatu zaizuen Herriartekoan?

[Barre] Bai, Oñatiren kontra. Azalduko gara, igual etorriko gara hona ere, eta ea zer moduz. **Ze pronostiko egiten duzu? Nolako taldea du Amezketak?**

Urte nahikotxo egon gara taldea atera gabe, eta garrantzitsua da berriz ere ateratzea; eta hurrengo urteetan ere horretarako moduan egotea. Helburua ez da partiduak irabaztea, baizik eta ateratzen direnek maila ona ematea eta ahal den gusturen geratzea, pilotan ilusioz segitzeko hurrengo urteetan ere.

Ilusioa Martijarekin txapelketa lortzeak egin dizu; lehen txapela binakako, buruz burukoari eta lau eta erdikoari binakakoa gehitu eta hiru txapelak edukitzea...

Kristorena, ilusio handia, egia esatearren. Hilabete luzeetako lana izan da, eta, irabazita, oso-oso pozik.

"TXAPELKETAK BERAK ERAKUTSIKO DU JENDEAK ESKUETATIK-ETA NOLA BUKATZEN DUEN"

Buruz burukoa polita dator orain [astelehenean aurkeztu zuten]. Aurrez txapela jantzi duzuen lau pilotari izango zarete, besteak beste; eta nobedadeak ere badira: final-laurdenetako ligaxka izango du txapelketak. Gogorra dator.

Oso gogorra datorrela esango nuke. Ez dakit nola iritsiko naizen. Denbora asko daramagu lehian, eta pilotariontzat ez da erraza; ez niretzat bakarrik: pilotari asko ari da urte osoan zehar partidu asko jokatzeko, txapelketaz txapelketa. Eta orain, ligaxkarekin, oso-oso gogorra izango da, baina bueno... Inportanteena da txapelketa ona ateratzea, eta ea jendeak gozatzen duen; eta pilotariok ez dugun eskuetatik hainbeste sufritzen eta ondo bukatzen dugun.

Ez dakit, bada, askorik gustatzen ote zaizun ligaxkaren kontu hori.

Uf, ez dakit, ikusiko da; txapelketak berak erakutsiko du jendeak eskuetatik-eta nola bukatzen duen. Egia da marjina ematen dizula, partidu bat galtzen baduzu ere, beste aukera bat daukazula. Ikusiko dugu zer moduz ateratzen den.

Hasteko, zerorrek nahiko duzu finalean egon; baina, iaz gertatutagatik, Artolarekin [sailkatu bai, baina ezin izan zuen jokatu, min hartuta] izatea... ederra litzateke.

Oso polita litzateke, baina hori oso zaila da. Azken urteetan finalak beti desberdinak ari dira tokatzen. Maila handia dago, eta edozeinek du sorpresa ematea; bueno, ez litzateke sorpresa.

Finala, Iruñean. Hori ere, polita.

Bai; buruz burukoaren finala ez da inoiz Iruñean jokatu, eta polita izango da. Polita izango litzateke han egotea, baina, bueno, inportanteena, ea txapelketa ona ateratzen den.

Oñatin izan zarete gaur [domeka]. Maddalen Etxegarai eta Uxue Osés ari zaizkigu nabarmentzen hemen aspaldian. Ze iritzi duzu neskak pilotan egiten ari diren bidez?

Pilotan zenbat eta jende gehiago ibili... hori da inportanteena. Ikusten da afizio handia dagoe la nesketan ere, eta hori positiboa da pilotarentzat. Neuk ere badut oroitzapen bat: nire arreba ere oso ondo ibiltzen zen pilotan, eta behin torneo batera apuntatu gintuzten biok. Niri izugarriko ilusioa egiten zidan jokatzeko, eta berari, berriz, garai hartan, lotsa ematen zion. Gauzak aldatu izana denontzat da ona.



25 urte bete dituen Des-kontrol taldea, euren Arrasateko entsegu lokalean. JOKIN BEREZIARTUA



Cock Sparrer taldea bere 50. urteurrenaren baitan egongo da Arrasaten. S.BRUCE

Jone Olabarria ARRASATE

Punk, oi! eta rock musikak jarraitzaile asko eta fidelak izan ditu historikoki Debagoienan. Tradizioak inoiz baino biziago jarraitzen duen erakusle, uda giroarekin batera iritsiko da Bergarara eta Arrasatera musika estilo horiek oinarri izango dituzten emanaldiez gozatzeko aukera.

Horren harira, etxeko eta nazioarteko izar handiak batzea helburu duten bi jaialdiaren antolatzen lanetan daude murgilduta Mauka musikagintzako kideak eta Ekinez Kultur elkartekoak: ekainaren 10ean eta 11n, *Ekinez* jaialdia egingo dute Bergaran; eta hilabete geroago, uztailearen 8an eta 9an, *Mondra & Roll* festibala egongo da Arrasaten.

Aspaldiko asmoa, 2022ra

Bi kasuetan, jaialdiak antolatzeara pandemia aurretik zetorren asmoa zen, baina egoerak normaltasuna berreskuratu arte itxarotea erabaki zuten, "baldintza egokietan" egiteko. Halako ekitaldi jendetsuak antolatuz, moduren batera, "lehen-gora itzuli eta pandemia egoera atzean utzi izana" ospatu nahi izan dutela aitortu dute.

Bergarako kasuan, antolakuntza lanetan dabilen Oier Apeiribaik azaldu duenez, 2020an Brigade Loco taldearen disko aurkezpenarekin batera kontzertu handi bat antolatzea zen helburua, beste bost talderekin batera, eta herriko plazan.

Bi jaialdi, bi herri, hilabeteko tartean

Punk, rock eta Oi! musika oinarri, ekainaren 10 eta 11an Agorrosin futbol zelaiak oholtzan egingo dute Ekinez jaialdia. *Mondra & Roll* izenarekin, punkari eta rockari eskainitako jaialdia izango du Arrasatek; Monterron parkean uztailearen 8an eta 9an

Ordukoa bertan behera geratu zen arren, Bergarako Kaleko Urdangak taldearekin batera elkarlanean "emanaldi handi bat" antolatzeko ideiarekin jarraitu zuten. Eta, hain zuzen ere, jaio zen *Ekinez* jaialdia antolatzeko ideia.

Tradizioa berreskuratu

Arrasateri dagokionez, "herrian izandako afizioa berreskuratu" eta "jaialdia errotu" nahiko laketela azaldu dute Mauka musikagintzako kideek: "Pandemia iritsi aurretik, halako jaialdi bat antolatzeko gogoia genuen.

Hasiera batean, 2020rako genuen aurreikusita, eta hasiak ginen lanean, baina COVID-19a iritsi eta bertan behera geratu zen dena. Iazko egoera ikusita, nahia- go izan genuen normaltasuna berreskuratu arte itxaron eta ohiko baldintzetan egin".

Harrera, "itzela"

Ia bi eta hiru hilabete falta diren arren, antolatzailak "pozik" agertu dira bi jaialdiek izandako harrerarekin, eta pandemia ostean herritarrak halako ekitaldiez gozatzeko "gogotsu" daudela uste dute. Arrasaterako sarreraren salmenta "erritmo onean" doala azaldu dute: "Egubakoitzeko sarrerak polikiago ari dira saltzen, baina bi eguneko bonuak eta zapatuko sarrerak oso ondo doaz". Gogorarazi dute 2.500 lagunendako edukiera duela Monterron parkeak, eta, hortaz "tamaina txikiko" jaialdia izango dela.

"Oihartzun handia"

Ekinez jaialdiaren kasuan, joan den astea ezker agortuta daude bi egunerako bonuak. 2.500 lagunendako edukiera aurreikusi dute: "Harrera oso ona izan du, jendea gogotsu dago, eta, egia esanda, ez genuen espero halako ondo hartzea. Badirudi asmatu egin dugula jaialdiaren formatuarekin. Bi eguneko bonuak agortuta daude, eta, esaterako, Bergaran salgai genituen ostiralerako sarrerak ere ez dira geratzen jada, salgai jarri eta berehala agortu dira".

"OSO HARRERA ONA IZAN DU; EZ GENUEN ESPERO JENDEAK HAIN ERANTZUN ONA EMATEA"

Futbol zelaiak, kontzertuetarako

Udarako aurreikusita dauden lanen aurretik, baloiak, zutoinak eta sareak alboratu eta oholtzaz, anplifikadorez eta gitarrak beteko da Agorrosin. Lan horiek egiteak ahalbidetu du zelaiak jaialdia egitea; belar artifiziala jarri, egungo harrizko hesia kendu eta ureztatzeko eta argiztatze sistema berriak jarriko dituzte, milioi bat euroko aurrekontuarekin.



Agorrosin futbol zelaiak, egungo egoeran. JONE OLABARRIA



Azkenaldian entzute handia lortu duen Suediako The Baboon Show taldea ikusteko aukera egongo da Monterronen. B.S.



Ekainaren 11n Agorrosinen arituko den Brigade Loco taldea. B.L.

Hainbeste jaialdi aukeran edukita –eta, gainera, lehen aldiz izanda–, horrenbeste jende erakartzea oso positiboki baloratu dute antolatzaileek: "Euskal Herrian soilik ez, hemendik kanpo ere izan du oihartzuna eta badakigu Madrildik eta Galiziatik jendea etortzekoa dela".

Prestatzean murgilduta

Antolakuntza lanetan buru-belarri dabiltzala azaldu dute Mauka musikagintzatik, eta bi urtez "ia geratuta" egon ostean eskertzekoa dela herritarren erantzuna: "Itxialdian eta murrizketekin sektoreak oso egoera zaila bizi izan zuen, baina, zorionez, orain berreskuratzen ari dela dirudi. *Mondra & Roll* jaialdiaz gain, beste hainbat bira eta kontzertuekin gabiltza".

Bergarako izango da lehen jaialdia, eta orain arte, gehienbat, komunikazioan eta zabalpenean lanean aritu diren arren, hemendik aurrera bestelako lanetan fokua jarriko dutela azaldu dute.

Bi gune "berezi"

Jaialdiak aire zabalean egingo dira, eta zeresan handiko guneetan. Monterron parkea ohituago dago kontzertu eta kultu-

COCK SPARRER TALDEA BERE 50. URTEURRENAREN BAITAN IZANGO DA MONTERRONEN

ra emanaldiak hartzera, baina, Agorrosin futbol zelaiari dagokionez, kirol hitzorduez harago, lehen esperientzia izango du halako kontzertuekin.

Bi eguneko jaialdi "potentea" egiteko asmoarekin, Udaletik Agorrosin futbol zelaia eskaini zietela adierazi dute *Ekinez* jaialdiko antolatzaileek: "Halako jaialdi bat egiteko leku aproposa da, eta guretzat plazera da bertan egin ahal izatea. Uste dugu futbol zelaiak ere badirela halako ekitaldietarako".

Hain zuzen, Agorrosin Berriko lehen faseko lanak udan egitea nahi dute Udalak eta BKEk, eta horrek ere jaialdia bertan egitea ahalbidetu du; belar artifiziala jarri, egungo harrizko hesia kendu eta ureztatze eta argizatze sistema berriak jarriko dira.

Jaialdiaren berri izan zenean, BKEk urtero antolatzen duen agur festa eta *Ekinez* jaialdia ez nahasteko eskatu zuen klubak: "Antolatu den jaialdiak beste helburu batzuk ditu, eta kluba "agur festa" beste data batean egiteko aukerak aztertzen ari da".

Urteurrenen lekuko

Monterroni dagokionez, bi eguneko jaialdia izango da, uztailaren 8an eta 9an egingo dute, eta punk eta rock doinuak lantzen dituzten "izarrak" izango dira oholtzan. Lehenengo edizioa hasiko dute street punkaren ikono den Cock Sparrer talde ezagunaren 50. urteurrena os-

patuz, Arrasate aukeratu dute eta urteurrenako biraren baitan geldialdia egiteko. Eta beste urteurren borobil bat ospatzen duen taldea ere izango da bai *Mondra & Roll* jaialdian eta baita *Ekinez* jaialdian ere, hauek etxekoak: 25 urte bete berri dituen Des-kontrol.

Nazioarteko "izarrak"

Suediako The Baboon Show taldearekin egingo dute bat horiek lehen egunean; azken urteotan entzute handia lortu

duen taldea, hain zuzen ere. Era berean, oi! doinuekin etorriko da Cockney Rejects taldea.

Ingalaterrako Peter and The Test Tube Babies ere pozik hartuko dute askok, aspalditxoan ez dira eta Debagoienara etorri. The Capaces 20. urteurrenean murgilduta dabil eta *Mondra & Roll* izango da geldialdia egiteko aukeratu duten jaialdietako bat. La Inquisicion bartzelonarrek eta La Excavadora gasteiztarrek osatuko dute egitaraua.

Gertuko taldeak oinarri

"Eszena alternatiboari dagokion espazioa" eman eta herritarrei punk, rock eta oi! musika gerturatzeko asmoz, ekainaren 10ean eta 11n Agorrosin futbol zelaiako oholtzara igoko dira, besteak beste, Unidad Alavesa, Rotten XIII, Azken Sustraiak, Iheskide, Bergarako Brigade Loco, Barne Guda eta Kaleko Urdangak eta Aretxabaletako Neallta Fola.

Hain zuzen ere, "gertuko talde eta lagunekin" antolatu nahi izan dituzte kontzertuak: "Kantopoko pare bat talderekin saiatur ginen arren, azkenean, etxeko eta gertuko taldeen aldeko apustua egitea erabaki genuen, lagun arteko jaialdi batekin".

Etorkizunera begira

Bi jaialdiek izango dute lehen aldia, eta, oraindik eguna iristeko lan handia egiteko duten arren, etorkizunera begira jarrita jaialdiak errotzeko asmoa dute. Arrasateren kasuan, hasiera batetik Monterrongo emanaldiek jarraipena izatea gurako luketela azaldu dute, "herriko giro eta tradizioaren parte modura". Monterron, ohiko agertoki da aspalditik.

Bergarari dagokionez, jaialdiak jarraipena izango ote duen galdetuta, erantzun zaila dute la diote antolatzaileek. Hala ere, "dena ondo badoa", bigarren aldi bat izatea "polita" izango litzatekeela aitortu dute, baina, momentuz, aurtengoan dituzte jarrita indar eta esfortzu guztiak

Egitaraua

EKINEZ JAIALDIA

Ekainak 10, egubakoitza

- Rotten XIII
- Kaleko Urdangak
- Streetwise
- Azken Sustraiak
- Dinamita
- Unidad Alavesa
- Public Enemy
- Barne Guda

Ekainak 11, zapatua

- Brigade Loco
- Iheskide
- The Lio
- Des-kontrol
- Jonny Gerriwelt
- Nelata Fola
- Labana
- Arene 6
- No Limits
- Alerta Gorria



Kaleko Urdangak taldea. K.U.

MONDRA&ROLL JAIALDIA

Uztailak 7, egubakoitza

- The Baboon Show
- Cockney Rejects
- La Inquisicion
- La Excavadora
- The Capaces

Uztailak 8, zapatua

- Cock Sparrer
- Des-kontrol
- Peter and The Test Tube Babies
- Perlata
- Grap
- Zero

"Ikerlari klasiko baten moduan ibiltzen naiz"

MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA MARGOLARIA ETA ESKULTURAGILEA

Margolanak, eskulturak eta marrazkiak batu ditu Manu Muniategiandikoetxeak Donostiako Altxerri galerian duen 'Duda da dudana-Conflictos paralelos' erakusketan

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Maiatzaren 14ra bitartean izango ditu askotariko artelanak ikusgai "oso gustuko" duen Donostiako arte galeria ezagunean. **2015ean izan zenuen Altxerri galerian azkenekoz erakusketa. Pozik itzuli zara?**

Beti da plazera etxean erakustea, betiko lagunekin elkarlanean eta bertako jendearentzako. Oso gustuko dudana arte galeria da, garai bateko galerien izateko modua du, gaur egun sortutako gehienek beste modu baten ulertzen dute-eta artea eta baita artelanak ere.


Duda da dudana-Conflictos paralelos da izenburua. Zer adierazteko?

Bildumen izenak bi hizkuntzatan jartzeko ohitura dut, baina ez bata bestearen itzulpen moduan, baizik eta bi esaldiek dutelako gorputz eta izaera ezberdina. *Duda da dudana* pandemiaren aurretik Madrilen egin nuen *Du-da* erakusketarekin lotuta dator. Isla bat du dadaismoarekin eta horrek ematen dio, nire ustez, nire lanarekiko parekotasun moduko bat. Beste artista batzuen lanak berrirakurri egiten ditut eta ikerketa horietatik ateratzen dira gero nire lanak. Serie horren muina edo jatorrizko elementua Frantziako margolari Cezanneren

akuarela txiki bat da. Hortik azaldu zen egitura matematiko bat, geometriarekin lotuta, eta hortik dator izenburuaren bigarren parte, eta, aldi berean, gaur egun munduan orokorrean dauden arazoei ere erreferentzia egiten die bigarren esaldian.

Beste artista batzuen lanetatik abiatuta, baina zure markarekin.

Lehenengo ideia hori sortu daiteke artelan batetik edo baita ikusi dudana film bateko une batetik ere. Cezannerena, esaterako, aspalditik nuen buruan. Hiru zuhaitz eta adar batzuk ikusten ditut nik paisaia horretan, eta, hortik abiatuta, dena biluztu ondoren, bi lerro paralelo eta karratu moduko batzuk



Muniategiandikoetxeak Donostian dituen lan batzuk. ALTXERRI GALERIA

Bi eta hiru dimentsioko lanak

Azken bost urteetatik hona egin dituen hamabi obra bildu ditu Bergarako artistak Donostiako Altxerri galerian: margolanaz gain, hainbat formatu eta materialekin egindako eskulturak eta espraiarekin egindako marrazkiak batu ditu bilduma horretan.

ondoren. Ikerlari klasiko baten moduan ibiltzen naiz, *proba-akatsa* behin eta berriz.

Formatu eta material askotariko hamabi lan daude.

Hala da, bai; alde batetik, bi dimentsioko koadroak daude, eta, bestetik, eskulturak ere bada, azken horiek formatu eta material ezberdinekin egindakoak. Azkeneko hiruzpalau urteetan erabilitako egiturekin egindakoak dira batzuk; burdinazkoak direla diruditen arren, egurrarekin egindakoak dira; Aleksandr Rodchenkoren lan batetik abiatutako ideiatik sortutakoak. Eta porlanezko eta eskaiolazko pieza batzuk dira beste batzuk, egin nituen lehenengoak. Horiez gainera, nire beste alderdi bat erakutsi dut marrazkien bitartez; pieza edo serie batekin lanean hasten naitzenean, ohitura dut marrazkiak egiteko, sortzeko unerik askeena izaten da niretzako, bizia eta oso automatikoa. Bada, espraiarekin egin ditudan bi marrazki daude ikusgai.

Tailerrean fin eta emankor ari zara.

Garai ilunak pasatu ditugu eta lanean tope ibili naiz; esango nuke, arte diziplina guztietako sortzaile gehienak bezala. Sekula baino lan gehiago egin dut, ez zegoen-eta besterik, eta, gainera, artistok bizitzeko behar dugun zerbait da, baina ez materialki bakarrik, baizik eta gure tailerrean gabiltzalako gustura. Artistok lan egiten lasaitu egiten gara. Egunero joaten nintzen estudiora, eta, lan egiten baduzu, gauzak ateratzen dira.

Aktibatu da artearen gorpila?

Bazirudien baietz; Inauterietan Arco azokan egon nintzen, eta, iazko uztailekoa baino hobeia izan zen arren, ez zen ohikoa izan, baina Ukrainiako gerra



Manu Muniategiandikoetxea. GOIENA

hasteak berriz dena moteltzea ekarri du. Artea ez da lehentasunezko beharra.

Artista moduan ze puntutan zaude?

Nortasun agiriak dio adin bat dudala, buruz eta izatez betiko moduan ikusten dut neure burua, eta artelanei begiratuta heldutasun bat dudala esango nuke.

Gomendiorik emango diguzu Altxerriko erakusketa jarraitzeko?

Orokorrean, galerietan sartzea zerbait elitista moduan ikusten du jendeak; bada, ahalik eta gehienetara joateko aholkatuko nizuke. Lasai sartu galerian, dastatu, ez da azterketa bat, eta, ikusitakoa gustatu edo ez, zerbait positiboa aterako duzue, seguru. Ikusleak bukatzen du artistak hasi duen bidea.

"ARTE GALERIETAN SARTZEKO BELDURRIK EZ IZAN; IKUSI LASAI ETA GOZATU, EZ DA AZTERKETA BAT"

AIERT BEOBIDE,

KOREOGRAFOA

'ELKARRIZKETTAP'

APIRILAREN 13AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:00ETAN
JONI UBEDAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Itziar Ugarteren liburuak, Espainiako Kritikaren Saria

Oñatiarraren 'Gu gabe ere' poema liburua eta Kirmen Uriberen 'Izurdeen aurreko bizitza' eleberria saritu ditu Literatur Kritikarien Espainiako Elkarteak; gaztelera, katalanez, galegoz eta euskaraz iaz argitaratutako lanen aitortza egitea du helburu

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Euskarazko lanen artetik, Itziar Ugarte Irizarren estreinako poema liburua eta Kirmen Uriberen azken eleberriak jaso dute Espainiako kritikarien aitortza. Bi liburuak Susa argitaletxeak argitaratu zituen, iaz.

Sorpresa "itzela"

Korrikaren aitzakian asteburu-pasa Baionarako bidean abiatzeaz zela jaso zuen Oñatiko idazleak eta kazetariak Jon Kortazar kazetariaren sorpresazko deia. "Prentsaurrekoa eman berri zutela esan zidan, eta saritutako lanen artean nire poema liburua zegoela. Asko eskertu nion aitortza hori, eta hortik aurrera nahiko surrealista izan da asteburua, jai giroan murgilduta, baina, aldi berean, mugikorra bizi-bizi, eta jasotako albiste burura etorri eta joan ibili nintzen eta", dio Ugartek.

Albistearen irensten joan zen, poliki-poliki, eta eskertuta dago jasotako aitortzarekin eta, are gehiago, ondoren jaso duen mezu zaparradarekin. "Liburuaren zantzak bat izango da, duda barik, sari edo aitortza hori, eta niretzako ikaragarria da jasotzen ari naizen zoriontzeko mezu eta dei mordoa. Saria emateko argumenturik ez zidan eman Kortazarrek, hark



Itziar Ugarte Irizar kazetari eta idazle oñatiarra. MIKELE LANDA EIGUREN

ere liburua oso gustura irakurri zuela baino ez. Dei txiki batetik, bat-batean, dantza potolo bilakatu da hau guztia. Hasieran, ez nuen ondo jakin sariari neurria hartzen, baina konturatu naiz Espainiatik etorritako saria denez euskal hedabideetatik harago doala sariaren oihartzuna, eta poztekoa da hori".

Zuzeneko saioak prestatzen

Garai bat kontatzeko nahia, oroitzenak eta deskubrimendu berriak dira, besteak beste, *Gu*

gabe ere liburuan oñatiarrak batu dituen poemen abiapuntua eta gaiak. "Lagunarteko momentuak, bestelako giro batzuetatik eratorritakoak, harremanak, 36ko gerra, gure garaiari buruzko intuizioak, momentu txikiak... Askotarikoak dira poemetako gaiak".

Jasotako sariarekin lanean jarraitzeko ardura sentitu duela dio Ugartek. "Lagun batekin ari naiz liburua zuzenenera eramateko saioa prestatzen orain; uda aurretik emanaldiren bat edo beste egitea da gure asmoa".

Nerabeentzako euskarazko urban musika lehiaketa abian da

Ekainaren 8ra bitartean dago epea zabalik; 'Euskara@loramendielkartea.eus' helbidera bidali behar dira lanak

A. A. ARETXABALETA

Hip-hop eta rap doinuek jarraitzaile asko dituzte euskal gazteen artean, eta gero eta gehiago dira Debagoienean ere estilo horretako abestiak sortzera ere auzartzen direnak; hori horrela,

Aretxabaleto Loramendi Euskara Elkarteak, eskualdeko euskara elkarteekin elkarlanean, 12 eta 18 urte bitartekoentzako sariketa antolatu du.

Euskarazko abestiak izan behar dute, aurretik argitaratu bakoak

eta gutxienez minutu bateko iraupenarekin. MP3 formatuan bidali behar dira lanak, ekainaren 8ra bitartean, Euskara@loramendielkartea.eus helbidera.

Saria, estudioan grabatzea

Arrasateko Ohian Uribarren Fane eta Martin Errasti Tata eta Bergarako Iker Hiriart HRT izango dira epaimahaikide lanetan, eta horiek erabakiko dute zein kantuk izango duen Sky-sound estudioan grabatzeko aukera, hori da-eta saria.

Goienakideen txokoa

APIRILEKO SARIAK



Ebook-a
Kobo Clara 'e-book'-a

Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATISKO DABA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOENAKIDE

'sariaren izena' (goienakideen zerbitzua) 988 09 00 07 zenbakira.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Inkarne dagin (LPD 15/1991) legearen arabera, jakinarazten dizugu sare bidezko komunikazioaren erabilera automatizatua baliabideak direla. Datu-bilaketaren helburu bakarra da inkarne dagin erabilera automatizatua. Erabaki zuzenaren bidezko datuak, baina zuzeneko edo zozketaren bidezko datuak: goienakide@goiena.eus

Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Calpe (Alacant). Oporretarako apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik 100 metrora. Bi logela, egongela, sukaldaria, bainugela osoa eta balkoi ederra. Interesatuok deitu edo jarri harremanetan Whatsapp bidez: 655 74 57 97 (Txaro) edo 615 75 98 32 (Jesus)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote batendako moduko etxebizitza behar dugu errentan ahal bada erdiguinean edo gertu. 680 87 38 66

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. 645 72 92 87

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta eta inguruak, haurrak zaindu.

Haur Hezkuntza graduatutako neska euskalduna, Entzumen eta Mintzaira mentzioa egiten ari dena, goizez haurrak zaindu zein ikasketekin laguntzeko prest nago. 666 09 98 84

Arrasate eta Aretxabaleta.

Sukalde laguntzaile moduan edo nagusiak zainzen lan egingo nuke. Asteburuetan etxean bertan bizi izaten edo orduka. Telefonoa: 609 31 34 36

Arrasate, haurrak zaindu.

Haur Hezkuntza graduatutako neska gazte euskalduna. Haurrak zaindu zein ikasketekin laguntzeko prest nago. 646 25 60 30

Arrasate. Etxeko langile moduan aritzeko gertu nago.

nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. Erreferentziak eta legezko agiriak aurkez ditzakek. 612 25 50 43

Debagoiena. Astean zehar, arratsaldetan edo gaueetan, zaintza eta garbiketako lanak egingo nituzke.

Lanerako edo soziosanitario agiriak dauzk. Berehala hasteko moduan. 634 85 66 51

Debagoiena. Denetariko garbiketako egiteko gertu nago. Baita nagusiekin lagundu eta antzeko lanetarako ere. 645 72 92 87

Debagoiena. Edozein lanetarako prest. Esperientzia tabernan, umeak eta nagusiak zaintzen, garbiketako. Nagusiak asteburutan zaintzeko prest. 609 32 34 36

Debagoiena. Egunean zehar nagusiak zaintzeko gertu nago. 645 92 36 41

Debagoiena. Emakume arduratsu eta langilea naiz eta nagusiak zaintzen zein sukaldari moduan lan egingo nuke. Ordu-tegi arazo barik, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Autoa izateko aukera ere badu. 663 94 82 80

Debagoiena. Esperientzia eta titulazioa dauzk denak emakumea zaintza lanetarako gertu. 688 72 88 97

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo beste-lana, zaintza lanak egingo nituzke. Esperientzia eta beharrezko ziurtagiriak daukat. 631 12 51 27

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egiteko prest nago pertsona nagusiak zaintzen. Telefonoa: 602 01 32 58

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten pertsona nagusien zaintzan jardun nahi dut. 602 06 52 12

Debagoiena. Etxeko lanak egiten lan egin nahi dut. Baita umeak edota pertsona nagusiak zaintzen ere. 641 09 15 58

Debagoiena. Etxeko langile moduan aritzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten. 631 37 74 60 (Margarita)

Debagoiena. Etxerako lanetarako edo zaintza lanetarako prest egongo nintzateke. 612 40 93 00

Debagoiena. Garbiketako eta zaintza lanak egiteko prest egongo nintzateke lanaldi osoan. Telefonoa: 612 55 61 76

Debagoiena. Garbiketako lanak egingo nituzke goizetan. 602 68 40 89

Debagoiena. Gauetan edo goizez orduka nagusiak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario eta legezko agiri guztiak. Telefonoa: 647 31 48 17

Debagoiena. Gizona lanerako gertu. Orotariko garbiketako egiteko titulazioa daukat. Nagusiak zaintzen ere arituko nintzateke. Telefonoa: 643 47 39 37 (Yasid)

Debagoiena. Helduak zaintzen lan egiteko prest nago. 672 55 67 35

Debagoiena. Lan bila ari naiz, garbiketako eta haurrak edo nagusiak zaintzen. 612 41 02 49

Debagoiena. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest dagoen mutila naiz, esperientziaduna eta gomendagarria. Orduka edo etxean bizitzen. Berehalako disonibilitatearekin. 610 30 10 00

Debagoiena. Mutila gertu mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaindu, kalera lagundu eta abarretarako. Orduka edo jardun osoz. Telefonoa: 617 86 30 82

Debagoiena. Mutila prest nagusiak zaintzeko eta denetariko garbiketako egiteko. Astean zehar zein asteburuetan. Telefonoa: 641 60 12 04

Debagoiena. Mutila, esperientzia eta erreferentzia onak dituen, etxeko etxeko zaintza lanetarako gertu. Legezko agiriak eta autoa. 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu. 696 84 19 51

Debagoiena. Sukalde laguntzaile moduan, nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketako lan egingo nuke.

Deitu 609 31 34 36 telefonora.

Debagoiena. Orduka zaintza eta garbiketako lanak egingo nituzke. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 00 84 45

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, orduka. Soziosanitario titulua daukat. Garbiketako ere egingo nuke lan. Telefonoa: 666 21 36 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 81 82 01

Debagoiena. Soziosanitario agiria duen mutila lanerako gertu, goiz, arrats zein gauetarako. 612 49 66 57

Debagoiena. Soziosanitario titulazioarekin hamar urteko esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko gertu. 696 84 19 51

Debagoiena. Sukalde laguntzaile moduan, nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketako lan egingo nuke. Deitu 609 31 34 36 telefonora.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, nagusi edo umeak zaintzen edo garbiketako lan egingo nuke. Orduka edo baita asteburuetan ere. 609 31 34 36

Debagoiena. Zaintza eta garbiketako lanak egingo nituzke orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 610 99 70 46

Debagoiena. Zaintza lanak egingo gertu nago. Soziosanitario titulazioa daukat eta bost urteko esperientzia erdituz lanetan. 634 84 41 94 edo 641 73 86 22

Debagoiena. Zaintza lanak egingo gertu nago. Baita pertsona nagusien zaintza ere. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 631 79 81 56

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak opari. Marboaren 9an jaitotako txakurkumeak adopzioan eskaintzen ditugu. Ama Husky Siberiarra da eta aita Border Colliea. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 608 01 48 88

8. DENETARIK

805. TRUKATU

Bizikleta trukea. 12 hazbeteko bizikleta behar dut, 3 urteko umearentzat. Handiago bategatik trukatzeko da, 14 hazbetekoa. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 615 73 45 53

809. ERRENTAN EMAN

Lursailak Aretxabaletan. Lursailak ematen dira errentan Aretxabaletan. Aproposak orturako, txakurak edukitzeko, eta abarretarako. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 618 76 34 40

Advertisement for 'ETXEBIZITZAK SALGAI' by BERGARA. Includes contact info: Ibargarai 3 - BERGARA. Tel./Faxa: 943 76 97 97. www.inmokoarosti.com. Lists various properties for sale with details like location, size, and price.

Advertisement for 'IRAGARKIA JARTZEKO' with contact information: 943 25 05 05, SAILKATUAK@GOIENA.EUS, WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



AIERT BEOBIDERI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa' Eguaztena, 21:30 eta 23:30



WALKING FOOTBALL PROIEKTUA EZAGUTZEN

'Albisteak' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00

Table with 3 columns: EGUBAKOITZA, ZAPATUA, and DOMEKA. Lists various programs and their broadcast times for the week of April 10-12.

Advertisement for 'EGUAZTENA, 13' featuring 'ARRASATE-UDALATX PROBAREN LABURPENA' and 'MARTITZENA, 19' featuring 'AMALURRA IKUSKIZUNA'. Includes QR code and website info: goiena.eus/telebista.

HILDAKOAK

- Kontxi Erostege Bidaguren.** Antzuolan, martxoaren 26an. 65 urte.
- Olatz Orobengoa Urkia.** Arrasaten, martxoaren 26an. 51 urte.
- Maria Luisa Urizarri Iraeta.** Bergaran, martxoaren 26an. 89 urte.
- Felipe Araña Mendinueta.** Oñatin, martxoaren 26an. 90 urte.
- Antoni Zugasti Igartua.** Oñatin, martxoaren 26an. 89 urte.
- Kristina Bengoa Del Prado.** Bergaran, martxoaren 29an. 47 urte.
- Paco Urzelai Casatorre.** Bergaran, martxoaren 29an. 87 urte.
- Rafael Mugarza Arrue.** Oñatin, martxoaren 29an. 74 urte.
- M. Pilar Bastida Irastorza.** Arrasaten, martxoaren 30ean. 97 urte.
- Rosarito Arechaga Fernandez de Retana.** Bergaran, martxoaren 30ean. 90 urte.
- Francisco Rayo Sopo.** Arrasaten, martxoaren 31n. 94 urte.
- Bittor Cerqueira Fernandez.** Oñatin, martxoaren 31n. 48 urte.
- Begoña Ormaetxea Garaio.** Aramaion, apirilaren 1ean. 85 urte.
- Maritxu Larrañaga Larruzea.** Aretxabaletan, apirilaren 1ean. 93 urte.
- Rosario Iturralde Ilarragorri.** Oñatin, apirilaren 1ean. 92 urte.
- Maria Kortazar Irazola.** Arrasaten, apirilaren 2an. 83 urte.
- Jesusa Letamendi Celaya.** Iruñean, apirilaren 2an. 100 urte.
- Angel Pozo Segura.** Arrasaten, apirilaren 4an. 58 urte.
- Luisa Murgoitio Pildain.** Eskoriatzan, apirilaren 4an. 94 urte.
- Andoni Mujika Ulazia.** Eskoriatzan, apirilaren 4an. 58 urte.
- Manuela Antonia Urdallea Uzkudun.** Oñatin, apirilaren 4an. 96 urte.
- Manuela Hidalgo Granado.** Arrasaten, apirilaren 5ean. 63 urte.
- Jesusa Elortondo Etxabe.** Bergaran, apirilaren 5ean. 94 urte.
- M. Lourdes Etxebarria Lamarain.** Madrilan, apirilaren 5ean. 63 urte.
- Martzelina Guridi Iturbe.** Antzuolan, apirilaren 7an. 86 urte.
- Jesus Fernandez de Arroiabe Beitia.** Oñatin, apirilaren 7an. 77 urte.
- Juan Manuel Lucio Sanchez.** Bergaran, apirilaren 8an. 73 urte.
- Miren Berasategi Raizabal.** Bergaran, apirilaren 9an. 90 urte.
- Enrique Pierrugues Perez.** Arrasaten, apirilaren 10ean. 55 urte.
- Jesus Iñiguez Pineda.** Arrasaten, apirilaren 10ean. 88 urte.
- Eustakio Arbulu Gallastegi.** Bergaran, apirilaren 10ean. 93 urte.
- Luis Tebar Romero.** Eskoriatzan, apirilaren 10ean. 78 urte.
- M. Isabel Maiztegi Jauregi.** Oñatin, apirilaren 10ean. 91 urte.
- Santos Gomez Lusa.** Aretxabaletan, apirilaren 11n. 86 urte.
- Armando Casamayor Balon.** Elgetan, apirilaren 11n. 64 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	ARRASATE GAUEZ EGUNERO
Egubakoitza, 15 AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15	(22:00etatik 09:00etara)
Zapatua, 16 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26	2022ko abuztuaren 15era arte:
Domeka, 17 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74	AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Astelehena, 18 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65	
Martitzena, 19 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74	
Eguaztana, 20 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65	
Eguena, 21 RUIZ: Nafarroa etorbidea / 943 79 14 09	
BERGARA EGUNEZ	BERGARA GAUEZ EGUNERO
Egubakoitza, 15 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87	(22:00etatik 09:00etara)
Zapatua, 16 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05	2022 osoan:
Domeka, 17 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05	URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 18 ESTELLA: Matxategi 5 / 943 76 19 63	
Martitzena, 19 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15	
Eguaztana, 20 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74	
Eguena, 21 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87	
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 15 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58	
Zapatua, 16 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58	
Domeka, 17 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58	
Astelehena, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58	
Martitzena, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28	
Eguaztana, 20 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16	
Eguena, 21 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA

Iraia Gonzalez de Zarate Matute

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Hezkuntzako 1. mailako ikaslea.

Gasteizen hil zen, 2022ko apirilaren 8an.

Ikaskide, lagun eta familiako kideei gure doluminak eta besarkada bana Fakultatea osatzen dugun guztion izenean.

Zure esker ona eta bizipoza betiko geratuko dira gure artean!

ESKORATZAN, 2022ko apirilaren 13an.

OROIGARRIA

Evaristo Larrañaga eta Bale Bolinaga

1940ko apirilaren 13an ezkonduak

Zuek izan zinetelako, gu gara, eta gu garen bitartean gure oroimenean eta bihotzean egongo zarete. Esker mila eta maitasuna betiko.

Zuen seme-alabak, errainak eta suhia: Jose Mari eta Arantxa Argarate, Juan Kruz eta Mari Tere Uribe-Echevarria, Javier eta Begoña Aranzabal (†), Arantxa eta Javier Araña. Zuen bilobak: Lorea, Igone, Goizane, Gaizka (†), Nagore, Oier, Igor, Larraitx, Aitor (†), Jon, Iñigo eta Ane. Zuen birlobak eta gainontzeko familiakoak.

ESKORATZAN, 2022ko apirilaren 13an.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

BADESLEA

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA | Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Musika eta aisialdia**

Bi premisa horiekin joan ziren Oñatiko musika eskolako kideak Saloura (Tarragona). Hango kaleak alaitu zituzten kalejirak eta dantza saioak eginez, baina aisialdiaz disfrutatzen aukera ere izan zuten, Port Aventura. Pozarren itzuli dira handik.

2. Marea laranja eta gaztea

Begarako kaleak laranja jantzi ziren Euskal Herriko Itzuliari ongietorria egiteko. Tropelak zituen askotariko koloreen erdian oso ongi antzematen ziren Euskaltel-Euskadi taldearen mailotak. Txalo beroenak azken horiendako izan ziren, baina ziklista guztiek jaso zituzten animoak zaleen partetik.

**3. Arrasateko oñatiarrak**

Pandemiak baldintzatutako geldialdiaren ostean, bi urte igaro eta gero, berriro ere elkartu ziren, martxoan, Arrasaten bizi diren oñatiarrak. Gustura bazkaldu zuten elkarrekin, eta gazte denborako istorioak eta kontakizunak partekatzeko aukera izan zuten. Hurrengo urterako hitzordua ere egin zuten.

4. Iturripen, kontrario

Aurreko domekan, MUK eta Urgatzik jokatu zuten partiduan, protagonista izan zen Mikel Arejolaleiba arrasatearra. Talde zuri-moreko jokalaririk eta kapitain izandakoa Iturripera itzuli zen jokatzera, baina Urgatziko jokalaririk. Lehenengo aldia zen Iturripen jokatzeko zuzena Ointxe! klubari utzi zuenetik.

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ARAMAIO
Libe Reguero Osinaga
Apirilaren 27an, 8 urte.
Zorionak, maittia!
Ondo pasatu zure
eguna eta muxu pila
bat etxekoan partetik!
Asko maite zaitugul!



OÑATI
Ekain Leibar Zumalde
Apirilaren 23an, 9 urte.
Zorionak, Ekain!
Ondo ospatu zure
eguna eta jarraitu
zaren bezalakoa
izaten. Asko maite
zaitugul!



OÑATI
Uxuri Olalde
Apirilaren 21ean, 10
urte. Zorionak, polita!
Disfrutatu egunaz!
Familia eta lagunak.



ARETXABALETA
Maren Axpe Gabilondo
Apirilaren 17an, 9 urte.
Zorionak, maittia,
eta patxo potolo bat
etxeko danon partetik!



OÑATI
Julen Isasti
Apirilaren 16an, 9 urte.
Zorionak, Julen!
Ederki ospatu eguna
eta patxo pila bat
etxeko danon partetik!
Izugarri maite zaitugu,
pottoko!



ANTZUOLA
Enara Lete Lamariano
Apirilaren 14an, 2 urte.
Zorionak, politt hori!
Ondo-ondo ospatu
eguna eta muxu handi
bat familixa danaren
partetik!



DEBAGOIENA
Itxaso Aguirre Benitez
Apirilaren 13an, 13
urte. Zorionak, bihotza.
Ondo-ondo pasatu
eguna. Asko maite
zaitugu.




ARETXABALETA
Abel Saez Bilbao
Apirilaren 13an,
74 urte. Zorionak,
aitxa! Jarraitu duzun
energia horrekin.
Muxu handi-handi bat
famiiliako guztion
partetik.



ARRASATE
Laia Ezkurra Iturbe
Apirilaren 12an, 10
urte. Zorionak, maitia!
Aurtengua bai
berezixa, 10 urte
borobil. Ospakizun
ederra eta alaitasunez
betetako urtia opa
dotzugu. Mila muxu!



ELGETA
Xare Zabala eta Iraia Sarasketa
Xarek apirilaren 12an
eta Iraiak 27an,
urtebetetzeak.
Zorionak etxekoan
partetik.



OÑATI
Ani Idigoras Garcia
Apirilaren 10ean, 4
urte. Zorionak, Ani!
Primeran pasatu zure
urtebetetze eguna.
Muxu erraldoiak
etxeko guztion
partetik.



ARRASATE
Enaitz eta Iradi Ibarrodo Belategi
Apirilaren 6an, 2 urte.
Zorionak, maitiak!
Musu eta besarkada
handi bat familia
guztiaren partetik.
Asko maite zaituztegu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Asteleheneko 13:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratu ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak apirilaren 29an argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUAZTENA 13

ESKORIATZA Udaberriko jolas parkea: puzgarriak igerilekuan
Bi txanda izango dira: 10:30etik 12:00etara 3-7 urte artekoendako, eta 12:00etatik 13:30era 8-12 urte artekoendako.

Kiroldegiko igerilekuan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'O gemer' dokumentala

Zineklubean, jatorriko bertsoian eta azpittituluekin. Ostean, Xabier Erkizia zuzendariarekin solasaldia. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 14

OÑATI 'Gaztagintzaren sekretuak' bisita gidatua

Parketxetik irtenda, eta ibilbide irisgarritik. 11:30ean, esnekien dastatzea. Izenak: 943-78 28 94 edo 699 33 51 83.
Arantzazuko Parketxean, 10:30ean.

OÑATI 'Santutegiko historia eta euskal artisten lanak' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arantzazuko Turismo Bulegoan.

ARRASATE 'Arrasate monumentala eta gehiago' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz eta 12:00etan, gazteleraz. Izena emateko: *Arrasate.eus/ezagutu, turismo@arrasate.eus* edo BAZera deituta (943-25 20 00).
Herriko Plazan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan, euskaraz, eta 13:00etan, gazteleraz. Izenak emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Gatz Museoa.

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Izenak: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus*.
Turismo Bulegoan.

OÑATI 'Espeleotxiki' abentura

Izenak: 943 08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*.
Arrikruzten, 15:00etan.

EGUBAKOITZA 15

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Elgetako erresistentziak 85 urte egitarauaren baitan. Gaur, euskaraz. Izenak emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

OÑATI 'Santutegiko historia eta euskal artisten lanak' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arantzazuko Turismo Bulegoan.

ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz eta 12:00etan, gazteleraz. Izena emateko: *Arrasate.eus/ezagutu, turismo@arrasate.eus* edo BAZera deituta (943-25 20 00).
Herriko Plazan.

OÑATI Txokolatearen sekretuak ezagutzeko bisita gidatua

11:30ean, erreserbarekin. Erreserba egiteko: 605 76 35 95 edo *txokolateixia@hotmail.com*.
Txokolateixan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan, euskaraz, eta 13:00etan, gazteleraz. Izenak emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Gatz Museoa.

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta

17:00etan. Izenak: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus*.
Turismo Bulegoan.

ZAPATUA 16

OÑATI 'Santutegiko historia eta euskal artisten lanak' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arantzazuko Turismo Bulegoan.

ARRASATE 'Arrasateko udaletxea' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz eta 12:00etan, gazteleraz. Izena emateko: *Arrasate.eus/ezagutu, turismo@arrasate.eus* edo BAZera deituta.
Herriko Plazan.

OÑATI Txokolatearen sekretuak ezagutzeko bisita gidatua

11:30ean, erreserbarekin. Erreserba egiteko: 605 76 35 95 edo *txokolateixia@hotmail.com*.
Txokolateixan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan, euskaraz, eta 13:00etan, gazteleraz. Izenak emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Gatz Museoa.

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Izenak: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus*.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Espeleotxiki' abentura

Izenak: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*.
Arrikruzten, 15:00etan.

DOMEKA 17

ARRASATE Santagedaatx tontorrera ibilaldia

Familian egiteko mendi buelta. Izena emateko: *Arrasate.eus/ezagutu, turismo@arrasate.eus* edo BAZera deituta.
Herriko Plazan, 09:00etan.



GOIENA

OÑATI 'Espeleotxiki' abentura

Arrikruz ezagutzeko ohiko pasarelatik harago doan abentura, bereziki, gaztetxoei zuzenduta. Apirilaren 14an, 16an eta 17an egingo dute. Izena emateko: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*.
Eguenean, zapatuan eta domekan, Arrikruzten, 15:00etan.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Elgetako erresistentziak 85 urte egitarauaren baitan. Gaur, gazteleraz. Izenak emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

OÑATI 'Santutegiko historia eta euskal artisten lanak' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63 telefonoa edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arantzazuko Turismo Bulegoan, 10:30ean.

OÑATI 'Altzorraren bila' ibilbide irisgarrian

Orientazio jolasa, familiendako. Izenak: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*.
Arantzazuko Parketxean, 11:00etan.

OÑATI Txokolatearen sekretuak ezagutzeko bisita gidatua

11:30ean, erreserbarekin. Erreserba egiteko: 605 76 35 95 telefonoa edo *txokolateixia@hotmail.com*.
Txokolateixan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan, euskaraz, eta 13:00etan, gazteleraz. Izenak emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Gatz Museoa.

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Izenak: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus*.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Espeleotxiki' abentura

Izenak: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*.
Arrikruzten, 15:00etan.

ASTELEHENA 18

ARRASATE 'Errogatibak gogoratuz' bisita gidatua

1713an debekatu ziren errogatibak gogoratzeko aukera, ermitaz ermita. San Kristobal eta San Balerio ermitetan bisitak. Izena emateko: *Arrasate.eus/ezagutu, turismo@arrasate.eus* edo BAZera deituta (943-25 20 00).
Herriko Plazan, 09:00etan.

DEBAGOIENA 'Dolmenen ibilbidea' bisita gidatua

Gaur, euskaraz, Karakateko aparkalekutik irtenda. Izenak, 657 79 46 77 telefonoa edo *Debabarrena.turismo.com* ataria.
Karakaten, 10:00etan

OÑATI 'Santutegiko historia eta euskal artisten lanak' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arantzazuko Turismo Bulegoan.

OÑATI Txokolatearen sekretuak ezagutzeko bisita gidatua
11:30ean, erreserbarekin. Erreserba egiteko: 605 76 35 95 telefonoa edo txokolateixia@hotmail.com.
Txokolateixan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museora
12:00etan, euskaraz, eta 13:00etan, gazteleraz. Izenak emateko: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.
Gatz Museoran, 12:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua
Unibertitate zaharra eta parroquia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Izenak: 943-78 34 53 edo turismo@onati.eus.
Turismo Bulegoan.

OÑATI 'Espeleo-Arrikruz' abentura
Helduendako. Izenak: 943-08 20 00 edo arrikruz@onati.eus.
Arrikruzten.

EGUAZTENA 20

ELGETA Garbigune ibiltaria
Egun osoan egongo da.
Salbador kalean, 10:00etatik 21:00etara.

BERGARA Eskulan tailerra
Izederreko kideek emango dute. Izenak emateko: Bergara.eus ataria.
Seminarixoko karpan, 11:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

EGUENA 21

ELGETA '366 egun borrokan Euzkadiren alde' liburuaren aurkezpena
Gurasoak elgetarrak zituen Loyola batailoiko komandante izan zen Juan Beistegi Ugalde eibartarraren bizitza kontatzen du liburuak. Aitor Miñambres egongo du aurkezpena. Irekia eta debalde, edukiera bete arte.
Elgetako udaletxean, 18:30ean.

BERGARA Maniega & Fernandino Quintet taldea
Jazz eta blues doinuak entzuteko kontzertua. Irekia eta debalde.
Irala kalean, 20:00etan.

OÑATI 'Paris, distrito 13' filma
Zineklubean, jatorrizko bertsoian eta azpitoluekin. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

EGUBAKOITZA 22

BERGARA Dantza tailerra Candem Town-ekin
Izenak emateko: Bergara.eus.
Seminarixoko karpan, 11:00etan.

BERGARA Almudena Maesoren erakusketa
Gaur zabalduko dute pintura lanak biltzen dituen bilduma. Inaugurazio ekitaldia egingo dute. Ikusgai egongo da maiatzaren 8ra arte.
Aroztegin, 18:00etan.

ZAPATUA 23

ELGETA Enduro martxa
Piñu-koku taldearen eskutik, ibilbide berriarekin.
Mendizaleen plazan, 10:00etan

ARRASATE 'Arrasateko udaletxea' bisita gidatua
10:30ean, euskaraz eta 12:00etan, gazteleraz. Izena emateko: Arrasate.eus/ezagutu, turismo@arrasate.eus edo BAZera deituta (943-25 20 00).
Herriko Plazan.

BERGARA 'Baby sferic' ikuskizuna, haurrendako
0-3 urte artekoendako. Emanaldi bikoitza: 12:00etan eta 17:00etan. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan.

OÑATI 'Santutegiko historia eta euskal artisten lanak' bisita gidatua
16:00etan, euskaraz, eta 17:00etan, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.
Arantzazuko Turismo Bulegoan, 16:00etan.

DOMEKA 24

ARRASATE 'Anporretako bira. Burdinaren bidea' ibilaldia
PR-GI 205 ibilbidean barrena. Izena emateko: Arrasate.eus/ezagutu, turismo@arrasate.eus edo BAZera deituta (943-25 20 00).
Herriko Plazan, 09:00etan.

ELGETA Intxortako ibilbide gidatua

Gaur, ele bitan. Izenak emateko: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

OÑATI Txokolatearen sekretuak ezagutzeko bisita gidatua
11:30ean, erreserbarekin. Erreserba egiteko: 605 76 35 95 telefonoa.
Txokolateixan.

ELGETA 'Elgetako erresistentziak 85 urte', ekitaldia

Duela 85 urte Elgetako frontean borrokatu zirenak, zibilak eta kereilan parte hartu dutenak omenduko dituzte, besteak beste. Tapiaren eta Eibarko Kezka dantza taldearen parte-hartzearekin.
Mendizaleen plazan, 12:00etan.

OÑATI Olatz Salvador
Musikari donostiarrak *Aho uhal* diskoko kantuak joko ditu, bandarekin. Sarrerak, zortzi euro.
Gaztelekuan, 12:30ean.

OÑATI 'Santutegiko historia eta euskal artisten lanak' bisita gidatua
16:00etan, euskaraz, eta 17:00etan, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.
Arantzazuko Turismo Bulegoan.

ASTELEHENA 25

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzek
Aste Santuko oporren ostean, pentsio duinak eskatzeko elkartuko dira, Oñatin, Antzuolan, Bergaran, eta Arrasaten.
Herri horietan, 12:00etan.

ZINEMA

BERGARA

SEMINARIXOA

A tiempo completo
Domeka eta astelehena: 19:30.

Orkestra lurtarra
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El metodo Williams
Egubakoitza eta zapatua: 19:30. Domeka: 22:30, 19:30. Astelehena: 19:30.

Orkestra lurtarra
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

La peor persona del mundo
Eguaztenetik martitzenera: 19:15.

Los tipos malos
Eguaztena: 17:15. Eguenetik eguaztena: 12:00, 17:15. Eguena (apirilak 21): 12:00, 17:00.

Morbius
Eguaztena: 16:45. Eguenetik eguenera: 12:00, 16:45.

Canallas
Eguaztena: 21:40. Eguenetik astelehenera: 11:30, 21:40. Martitzena (apirilak 19): 21:40. Eguaztena (apirilak 20): 22:00.

Sonic 2
Eguaztena: 17:00. Eguenetik eguenera: 11:45, 17:00.

Para Chiara
Eguaztenetik eguenera: 21:40.

Animales fantásticos
Eguaztena: 16:45, 19:25, 22:10. Eguenetik astelehenera, eguaztena (apirilak 20) eta eguena (apirilak 21): 11:30, 16:45, 19:25, 22:10.

Martitzena (apirilak 19): 11:30, 16:45.

Paris, distrito 13
Eguaztena: 21:40. Eguenetik eguaztena: 19:30, 21:40. Eguena (apirilak 21): 19:30.

Las cartas de amor no existen
Eguaztenetik eguenera: 19:35.

El hombre que vendió su piel
Eguaztenetik eguenera: 17:30.

Orkestra lurtarra
Eguaztena: 16:45. Eguenetik eguenera: 12:00, 16:45.

Contando ovejas
Eguaztenetik eguenera: 18:50, 21:10.

La ciudad perdida
Eguaztena: 17:30, 19:30, 22:30. Eguenetik martitzenera eta eguena (apirilak 21): 12:00, 17:30, 19:45, 22:00. Eguaztena (apirilak 20): 12:00, 17:10, 19:45, 22:10.

Ambulance
Eguaztena: 17:00, 19:40, 22:20. Eguenetik eguenera: 11:30, 17:00, 19:40, 22:20.

El juego de las llaves
Eguaztena: 18:20, 20:25. Eguenetik eguenera: 18:20, 20:25, 22:30.

EIBAR

COLISEO

Llegaron de noche
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 17:00, 20:30.

A tiempo completo
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 17:00, 20:30.

ANTZOKIA

Animales fantásticos
Zapatua: 16:00, 19:15, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 17:00, 20:00.

KRITIKA

Arthur Rambo ★★★★★
Zuz.: Laurent Cantet. **Herr.:** Frantzia (2021). **Aktoreak:** Rabah Nait Oufella, Antoine Reinartz, Sofian Khames. **Iraupena:** 87 minutu.

Errealitate artifiziala

ANTONIO ZABALA

Karimek arrakasta handia izan duen liburua idatzi du. Aljeriarrak jaiotzez, Parisen bizi da, eta liburuan amaren istorioa kontatzen du. Komunikabide guztiek harekin berba egin nahi dute, eta beraren etorkizuna ezin hobea izango dela dirudi. Baina minutu batzuetan dena alda daiteke. Karimek, urte batzuk lehenago, *Arthur Rambo* ezizenarekin, sare sozialetan sekulako astakeria zirikatzaileak zabaldu zituen. Orain, Karimek bidalitako mezuak sare sozialetan sartzen ditu berriro norbaitek, haren egoera goitik behera aldatuz. Badakigu sare sozialetan, minutu gutxi batzuetan, jendea epaitzeko eta zigortzeko gai garela. Baliabide horren bitartez gure frustrazioak eta

anckerkeriak ateratzen ditugu. Pelikulan, Karimek bizi duen odisearen lekuko izango gara. Liburuaren argialetxeak, komunikabideak, lagunak, familia... denak dezepzionaturik sentitzen dira. Eta Karim, bitartean, irtenbiderik gabe galduta sentitzen da.

Arthur Rambo filmak sare sozialekin lotutako galdera pila bat egiten ditu: *Ez dago barkamenik erru bat egiten duenarentzat?, Gehiago zaindu beharko genituzke pentsatu gabe egindako adierazpenak?* Sare sozialetan dena berehalakoa eta gehiegizkoa da. Errealitate artifizial batean murgiltzen gara, garrantzi gutxiko gauzak handitzen ditugu, eta benetan garrantzitsuak direnak ahaztu.



AZKEN BERBA

AINZANE OIARBIDE

Gernika-Ukraina: justifika ezina

1937an izan zen bonbardaketa Gernikan, eta mundu guztian ezaguna den zoritarreko gertakari historiko hura aipatu zuen Zelenskik, Ukrainako presidentea, Espainako Kongresuan, agerraldi telematikoan. Gernikako sarraskiaren argazkiak eta irudiak zuri-beltzean ditugu, Ukrainan Vladimir Putinek agindutako sarraskia koloretan, kaleetan kolore gorria gailenduz. Jendeak jasandako sufrimenduan ez dago diferentziarik.

Ukraina gizarte zibilaren aurkako eraso itxuragabea jasaten ari da; Errusiak Herri burujabea inbaditu du; Gernikaren bonbardaketa gogorarazten digute; Eta ez dago eskubiderik Elgetako EH Bilduko zinegotzi batek aurpegiatu zidana entzuteko: "Ukrainak ez ditu Minskeko akordioak errespetatu". Nola justifika daiteke Errusiak Ukraina inbaditzea? Nola emakumeen bortxaketak, umeen hilketak, zuloetan milaka gorpu izenik gabe pilatuta lurperatzeak? Ez, zinegotzi jauna, Minskeko akordioak ez ditu inork bete, batez ere, Herria ezin delako behartu inbaditzaile baten nahietara. Ukrainarrek ez diete uko egin nahi Donbassko lurraldeei, Ukraina baitira. Ikuspuntu humanitario eta abertzalezik ezinezkoa zait justifikazio hau ulertzea.

GOIENA OKM GIDA

"Biztanleriaren %80k bizkarreko mina du"

MIREN LARRAÑAGA ATHLON BIZKAR KLINIKAKO FISIOTERAPEUTA

Zortzi urte beteko ditu aurten Aretxabaletan dagoen Athlon bizkar klinikak. Bizkarreko eta lepoko minaren aurkako azken teknologiarekin egiten dute lan pazienteekin

Jone Olabarria ARETXABALETA

Bizkarreko gaitz muskulu-eskeletikoak era funtzionalak baloratu eta tratatzen dituen klinika espezializatua da Athlon. Hiru urte daramatza bertan lanean Miren Larrañagak.

Zerk egiten du ezberdin Athlon?

Puntako teknologiaz eta profesional adituen ezagutzaz baliatuz, bizkarrezurreko diagnostiko funtzionala egiten dugu eta datu horietan oinarritutako banakako tratamendu pertsonala eskaintzen dugu.

Zein motatako jendea dator klinikara?

Denetik dago. Asko aurretiko diagnostiko mediku batekin etortzen dira. Hala ere, inongo diagnostiko mediku barik datorren jende asko dago, gero eta gehiago, eta, balorazioa egitean, mina desoreka muskularren jatorria dela ikusten dugu. Proportzio txikian bada ere, prebentzio moduan datorren jendea ere badaukagu.

Askotan, adinarekin lotzen dugu bizkarreko mina...

Adinari dagokionez, ez dago mugarik. Orain momentuan, gazteenak 25 urte dauzka eta zaharrenak, 90. Biztanleriaren %80k du edo izan du bizkarreko



Miren Larrañaga, Aretxabaletako Ibarra kiroldegian dagoen Athlon bizkar klinikaren j.o.

Klinikara joan, eta lagunak egin

"Askotan, hiru edo lau lagun batera etortzen dira klinikara, eta astero, ordu berean elkarrekin egoten dira. Hainbeste denboraren ostean, elkar ezagutu eta harreman oso ona sortu da talde batzuen baitan. Hemen, mina kenduta, beste mila gauzari buruz hitz egiten dugu, eta horrek asko batzen du. Pentsa, taldeetako batean jubilatua dira, eta hemendik kanpo ere elkartzeko zerbait hartu edo paseatzeko".

mina; askotan, erresonantzia batekin edo diagnosi batekin datoz, baina ez da ezer ikusten bertan. Guk, azken batean, min hori nondik datorren aztertzen dugu; izan daiteke ezker aldean izatea mina baina arazoa beste gorputz atal batetik etortzea.

Nolakoa da zuek eskaintzen duzun saio bat?

Ordubeteko saioa izaten da: hasieran, beroketa aerobikoekin egiten ditugu -bizikleta estatikoa, zinta eta eliptikoa-; horren ondoren, makineta zirkuitua; eta amaitzeko, luzatze ariketak.

Zein da zure lanaren alderdirik onena?

Nire lanaren alderdirik onena jendeari laguntzeko aukerak aukera da. Oso zaila da beste pertsona baten aurrean zure min, ardura eta egonezina azaltzea. Ez da erraza hori islatzea, eta asko eskertzen diegu pazienteei.

Eta okerrenea?

Alderdirik okerrenea, batzuetan notizia txarrak eman behar izaten ditugula.

Zertan datza zuen tratamenduak?

Pazientearen parte hartze aktiboan, egokitutako ariketa terapeutikoan eta esku terapian oinarritzen da eskaintzen dugun tratamendua. Bizkarrezurreko diagnostiko funtzionala egiten dugu, hau da, mugikortasun eta indarraren balorazioa.

Etengabe eguneratuta egon behar duzue...

Bai; astero artikulua zientifiko berriak ateratzen dira eta formakuntzaren bidez ere eguneratuta egon behar dugu.

Goiena Okm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida



TOKIKO INFORMAZIOAK EZ DU OPORRIK

'GOIENA.EUS' ATARIAN UNEOROKO INFORMAZIOA

'ALBISTEAK' SAIOA GOIENA TELEBISTAN
APIRILAREN 19TIK AURRERA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!



Zu hemen zaude.